

Ná-De-Ná

Joseba Lakarra
EHUko irakaslea

Alfontso Martinez Lizarduikoak argitara emandako *Euskal zibilizazioa (Gure Herriaren sustraien bila)* liburua hizkuntzalaritzaren ikuspegitik iruzkin-zeko eskatu zion aldizkariak artikulu honen egileari. Liburu aipamenaren egitura izan arren hala neurriak nola edukiak artikulu gisa argitaratzea ekarri dute, zenbait ikerketa alorren egoerari buruzko gogoeta xehea eskaintzen baita: hizkuntzen historia eta historiaurrea —bereziki euskararena—, hizkuntzalaritza historikoa eta metodo konparatua, hizkuntz familiak, Na-dene familia eta euskararen kokapena hizkuntz familien artean...

The journal editors asked the author of the present paper to write a review for the book *Euskal Zibilizazioa (Gure Herriaren sustraien bila)* [Basque Civilization –In Search of Our Roots] by Alfontso Martinez Lizarduikoa. Nevertheless it was decided to publish the requested review as an article due to its length and contents even though it follows the structure of a book review. Lakarra provides a thorough reflection on several areas of linguistic research: language history and pre-history –with particular attention to Basque–, historical linguistics and the comparative method, language families, the Na-dene family and the situation of Basque amongst the world's language families.

So my main point is this: to be responsible historical linguists, we will sometimes have to say that we don't know and can't guess what happened in some particular historical situation. My subtext is that it is a mistake to believe (as a considerable number of historical linguists apparently do) that a weakly-supported explanation is always better than no explanation at all (Thomason 1993: 485-486).

El número de personas que combinan el rigor intelectual con una dosis, por mínima que sea de radicalismo político es despreciable. Lo cual, en un país que tiene a Georges Bush de presidente y a Danforth Quayle esperando turno para 1996, no es divertido que digamos (Alan Ryan *apud* Sokal & Bricmont 1999: 293).¹

1.1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (1998-6-26) emandako onespina eta guzti argitaratu zen iaz —eta dagoeneko hirugarreneko ateraldian omen da— gure artean gutxik bezalako oihartzuna erdietsi duen liburu hau.² 163 orrialdetan, hogeita hamazortzi lerro orrialdeko eta hirurogeita hamar bat hizki lerroko, balirudike zer irakur badukeela horretara emanak; haatik, ukitzen dituen arazo arazotsuek sor lezaketen nekea arintzeko edo, hainbat orrialdetan mapa, fotografia, marrazki eta beste dator bertan.³

Liburuaren egitura orokorra ondokoa litzateke:

1. *Euskara eta euskaldunak mitologiaren laino artean* (9): “Euskara eta euskaldunak, ikergai zientifiko” (9), “Azterketa analitikoa ala azterketa sintetikoa?” (11), “Bertako ikerkuntza historikoaren alde” (12), “Besteri ere, esker onez” (14).

1. Sokal eta Bricmont-ek honela jarraitzen dute: «Cuatro años más tarde, con Bill Clinton instalado como nuestro presidente supuestamente “progresista” y Newt Gingrich preparándose ya para el nuevo milenio, la situación sigue siendo poco divertida». Bidenabar, hori da liburuko azken ahapaldia.

2. Alfontso Martínez Lizarduikoa, *Euskal zibilizazioa (Gure Herriaren sustraien bila)*, Gaiak Argitaldaria, Donostia (= AM).

3. Horrelakoak dira 8.ean, 10.ean, 13.ean, 14.ean, 16.ean, 18.ean, 20-21.etan [osorik], 22.ean, 23.ean, 25.ean, 26.ean, 28.ean, 29.ean, 30.ean, 31.ean —70.ean errepikatua—, 33.ean [osorik], 34.ean, 36.ean [osorik], 38.ean, 39.ean, 40.ean [erdia], 41.ean, 42.ean, 43.ean [erdia], 48.ean, 49.ean, 52.ean, [osorik], 54.ean, 55.ean, 56.ean, 57.ean, 59.ean [osorik], 63.ean [erdia], 64.ean [erdia], 66.ean [osorik], 68.ean [osorik], 70.ean [erdia] —31.ean lehenago emana—, 72.ean [ia osorik], 73.ean [erdia], 74.ean [erdia], 77.ean, 78.ean [erdia], 80.ean, 81.ean, 82.ean, 83.ean [ia erdia], 84.ean, 86.ean [erdia], 88.ean, 90.ean [erdia], 92.ean [erdia], 93.ean [erdia], 94.ean [ia osoa], 95.ean [ia erdia], 96.ean [ia osoa], 100.ean [erdia], 102.ean [ia erdia], 103.ean [ia erdia], 104.ean [ia erdia], 105.ean, 108.ean [ia erdia], 109.ean [ia erdia], 112.ean [osorik], 118.ean [erdia], 121.ean [ia erdia], 124.ean [ia erdia], 126.ean, 128.ean [erdia], 130.ean [erdia], 131.ean [erdia], 133.ean [osoa], 136.ean [osoa], 139.ean [ia erdia], 142.ean [ia osoa], 144.ean [erdia], 146.ean [erdia], 148.ean [erdia], 149.ean [ia erdia], 152.ean, 154.ean [erdia], 155.ean [erdia]; 157.a ia erdi txuria eta 158.a erabat.

Eman diren zifron arabera, 63 bat orrialdetan figura, dibujo, fotografia, taula eta beste ditugu, ia guztiaren % 40a osatzen dutelarik. Gehienak ez dira egileak berak sortuak ez landuak eta ez bide da sobera arduratu beharrezko izan zitekeen moldaketa txikiren bat —hizkuntzazkoa, epigrafe urriak euskaratuaz, demagun— egiten ere. Ondorio bezala, hor dira jatorri diferente, eta usu aitortugabeko erdara garbietan Euskal Herriari edo atzerriko nahiz mundu osoko kontuei dagozkien mapak (18. or., 20-21. or., 54. or., 55. or., 74. or., etab.), 78.eko letra beltz itsusiak ahantzi gabe.

2. *Euskaldunen aberria: euskal-akitaniar gunea* (17): “Euskara” (17), “Nondik datorkigu euskara” (18), “Gizakiaren jatorria (hominizazioa)” (24), “Cro-Magnon gizakiaren aberria” (26), “Informazio kulturalik eman al diezaguke genetikak?” (28), “Europaren disezio genetikoa” (29), “Euskal-Akitaniar gunea” (32).
3. *Arkeologia, hizkuntzalaritza eta genetika, euskal zibilizazioaren bila (I)* (35): “Nola bizi eta garatu zen euskal-akitaniar gizadia” (35), “Lotura iberiar-afrikarra” (38), “Euskal-akitaniar gunea: migrazioen abiagune ala bideburu?” (43), “Paleoantropologia eta Cromagnonen banakuntza” (44), “Euskararen ahaideak” (45), “Akitaniera eta iberiarekiko lotura” (47), “Izan al zen behin euskara-akitaniararen hizkuntz hedapenik?” (49).
4. *Arkeologia, hizkuntzalaritza eta genetika, euskal zibilizazioaren bila (II)* (53): “Euskara-kaukasiera, desagerturiko kontinentearen hondakin biziak” (53), “Euskara eta berbere hizkuntzak senide?” (56), “Krutwig eta quantxeak” (58), “Zer gertatu zen Europan paleolitoaren azken uneetan?” (61), “Genetika, arkeologiaren eta hizkuntzalaritzaren laguntzaile” (64).
5. *Europar neolitoaren originaltasuna: Antzinako Europa* (67): “Epipaleolitoa Europan. Inbasio neolitikoak” (67), “Indoeuropar inbasioen zantzu genetikoa” (69), “Indoeuropar hizkuntzen berreraikuntzak ez garamatza Europa-ra, Asiara baizik” (71), “Biziraun zuten Europako hizkuntza ez-indoeuropar bakanak” (73), “Neolitiko europarraren berezko saiakuntza: Antzinako Europa” (76), “Antzinako Europaren suntsiketa” (79), “Antzinako Europaren azken zibilizazioa: Kreta eta Kikladeak” (81), “Minostar unibertso kulturala eta euskaldunak” (84).
6. *Euskal Herria eta Antzinako Europaren kolapsoa: grekoen eta zelten inbasioak* (87): “Greziaren sorrera” (87), “Greziako mitologiaren alderantzaketa sinbolikoa” (89), “Europako kolonizazioa” (91), “Europako jatorrizko biztanleria” (95), “Euskal neolitoa” (98), “Euskal-akitaniar munduaren krisi handia: iberiar eta zelten inbasioak” (101), “Zeltak eta euskaldunak: bi zibilizazioen ukimena” (104).
7. *Euskal Herria eta Erromako inperialismoa* (107): “Euskal Herria, erromatarak iristean” (107), “Erromatarak Euskal Herrian: gorabehera militarrik” (110), “Menperatze ekonomiko eta kulturala (115), “Hiriak eta galtzadak: asimilazio-bidean barrena, estrategia urbanistikoa” (117), “Kristautasuna Euskal Herrian barrena” (119), “Teknologia berriak eta ohituren erromanizazioa” (122), “Erromanizazioa eta euskararen hiltoria” (123).
8. *Iraganalditik etorkizunera: Euskal Herria bere berezko baloreen bila (I)* (125): “Euskal Herria bere berezko baloreen bila: substratuen integrazioa eta integrazio dialektikoa” (125), “Euskal zibilizazioa eta europar inkontzientea” (127), “Lehenengo egitura ikustezina: euskal hirien sarea paleolitikoan jadanik?” (129), “Bigarren egitura ikustezina: hizkuntza, lurralde” (132), “Hirugarren egitura ikustezina: tenplurik eta jainkorik gabeko erlijioa” (135), “Laugarren egitura ikustezina: mitoen liburu sakratua” (137), “Tartalo-Polifemo: grekoa ala euskalduna?” (140).

9. *Iraganalditik etorkizunera: Euskal Herria bere berezko baloreen bila (II)* (143): “Familia, demokrazia, emakumea (143), “Auzolana: igualitarismo primitiboaren aztarna, apika?” (145), “Dionisioren munduan: jai eta kirolak” (147), “Euskal Herria, herri indigena” (151), “Euskal Zibilizazioa: errealitate ala lan-hipotesia?” (153).

[10]. Bibliografia 159-163.

1.2. Irakurlea egilearen abiapuntuaz hobeki jabe dadin *in extenso* aipatuko dut 153-154. orrialdeetan (liburuaren eta lanaren akaburantz) “Euskal Zibilizazioa: errealitate ala lan-hipotesia?” ataleko lehen ahapaldian ezarria:

Liburu honen funtsa den ikerlanean duela hiru urte hasi nintzelarik, intuizio eta datu lotugaberen bat besterik ez nuen izan abiapuntu. Denbora pasa ahala, bilaketa (ia detektibeskoak, landu behar izan nuen material gehientsua katalogatu gabarik zegoela kontuan izanda) ugariren ondotik, hasierako intuizioan ongi egokitzen ziren piezak aurkitu izan nituen. Puzzle-zaleek ongi ulertuko didatenez, azken urte honetako ikerkuntza askoz azkarrago bilakatu da piezak egunean baino egunean zehazkiago egokitzen zirelako elkarrekin eta horrek, hasierako ideia lauso hura gerotik eta erreago bilakatzen ari zela adierazten zigun, eta gauzak honela izateak, bere aldetik, piezak errazago eta garbiago egokitzea zekarren, etab., etab. Azkenean, Euskal Zibilizazio handiaz, euskaraz eta gure herriaz irakurleari eskaintzen diodan ikuspegi sintetiko eta orokorrari original, ezezagun eta harrigarria deritzot.

AM-k bere liburuaren azken helburutzat dituenak eta aldarrikapen nagusiak (156-157. orr.) ezarriko ditut segidan:

Duela ia hogeita hamar urte gure herriak nozitzen duen *impasse*-tik irten ahal gaitezen, euskaldun intelektualen hurrengo belaunaldiak jorratu beharko dituen ikerketa berrien norabidea zein izan litekeen adierazi besterik ez du egin nahi zirriborro azkar xehe honek.⁴

Gaizki interpretaturik ez izateko hemen ere ondokoa aldarrikatzen dut: Euskal Zibilizazioari buruzko hipotesiarekin eta honek, herri garen aldetik, jasaten duen minorizazioaren aurkako borrokari eskaini diezazkiokeen argudioak gorabehera, ez dut hemen beste inperialismo kulturalik erreibindikatze asmorik, ezta hurrik eman ere.⁵

4. “Etxerako lanak” ere jartzen zaizkigu hainbat ikersailetako partaideoi: pintura eta arte eramangarriaren azterketa eta datazioa, Levante eta Afrikakoekin duten edo izan dezaketen lotura aztertzeko, datu horiek Iberiar Penintsulako eta ipar Afrikako paleoantropologiarekin koerlazonatuaz, *euskararen ahaideei buruzko ikerketa osoagoak egin beharko lirakeke, gureak eta berber hizkuntzek izan dituzten harremanetan sakonduz eta Iberiar Penintsulan toponimiari buruzko ikerketa sakon-zehatzak eginez, gure arbasoek seguru aski Afrikaraino joateko erabili zituzten komunikabideak aurkitzeko*, populazioen genetikak eskualde osoko azterketa sistematikoa egin beharko luke... Eta Europa mailan antzera: «Paleoantropologia, genetika eta hizkuntzalaritza xehekapenez aplikatu beharko dira gurearekin alde edo moldez erlazonaturik omen dauden herrietan. Piktoen, etruriarren, Alpeetako herrien, bretoiaren, korsikarren, kretarren eta antzeko herrien sustraiak ikertzea arrunt interesgarria litzaiguke. Europari dagokionez, gainera, aurreko hirurei mitologia konparatua erantsi behar zaio, baina ez indoeuroparrek euskal mitologiari egin omen dituzten (sic) maileguak abiagune harturik, alderantzizko norabidean baizik, jatorri aurreindoeuroparrek mitologiatik hasita, alegia. Azterlan hauek osatu beharko lirakeke Antzinako Europari —kultura zikladiarri, zehazkiago— buruzko berarizko ikerketa batekin. Eta, nola ez, Kaukasoko kulturari buruzkoarekin». Ez naiz seguru AM-ren itxaropenak bete ahalko ditugun.

5. *Excusatio* honek ba ote Krutwigen hurrengo pasartearen oihartzunen bat?: «Por su parte, las teorías indoeuropeizantes (que entre los alemanes se llaman consecuentemente “indogermanisch”)

Baina gurea bezain iraganaldi urrun eta lausoan —gertu eta bizian,aldi berean— oinarrituriko erreibindikazioak eta era guztietako inperialismo kulturalak arbuaitzen ditudan bezainbesteko indarrez, edozein herriri —gureari bereziki— bere lehenaldia ahalik eta zorroztasun zientifikorik handienaz ezagu-tzeko zor zaion eskubidea ere erreibindikatzen dut. Hortik abiatuturik, herri horrek bere izaeraren bereizgarriak onartzeko eskubidea izango du eta horienganako errespetua erakutsi beharko du bere burua demokratizatzen jo nahi duen edonork. Bereizgarri horiek, gainera, beste erronka batzuei aurre egiteko baliabide izango ditu bere iraganaldiaz kontzientzia duen herriak, bere etorkizuna ulertu eta antolatzeke aukerarik hoberena eskaintzen diotelako.

Bere egitekoak betetzeko arkeologia, antropologia, genetika, mitologia eta beste hainbat ezagutzarekin osatu nahi izan du AM-k errumes dakusan hizkuntzalaritza historikoa:

Euskara milurteko askotan zehar hausturarik gabe lurralde berean dirauen giza talde bati atxikita egoteari esker, hizkuntz ikerkuntzak besoak zabaldu eta mugak gaindi ditzake, giza talde hori aztertzen duten bestelako zientzia alorrek eskaintako informazioaren bitartez; horrela bakarrik sartu ahal izango da hizkuntzalaria hain nekezak dituen garai primitibo horietan. Informazioari dagokionez, azken bi hamarkada hauetan, populazioen genetika, arkeologia eta paleoantropologiaren bidez oso informazio baliotsuak erdietsi dira⁶ eta, hauei esker, historia osoan lehenengo aldiz, euskaldunen unibertso primitiboa izan zitekeenaz halako puzzle koherentea eratu da. Horren kontakizuna ezin liluragarriagoa da, eta horixe da liburu honetan azaldu nahi dudana, hain zuzen (11).

1.3. Zorigaitzez, iruzkintzaile honen gaitasunetik at dira, ez dut zer frogaturik, jakintza horiek eta baita politologiak⁷ nahiz herrigintzaz liburuxkan aurki litezkeenak oro ere. Aldiz, hizkuntzari buruzko ez zerbait esan nezakeela begitandurik, agian oker, horiek baino ez ditut ukituko ondoko lerroetan sakontasunen batekin.⁸ Ez deritzot erabat itsuturik nagoenik, bestalde, uste dudalarik alderdi hau dela Euskal Zibilizazioaren eta Euskal Herriaren iraganari buruzko edozein eraikuntzaren oinarri eta giltza:

tienen por base demostrar que del norte del (sic) Alemania partieron todas las emigraciones “que llevaban igualmente la cultura nórdica”. En la práctica, en cambio, se demuestra que son justamente los pueblos germánicos los menos indoeuropeos de todos [...] y que la patria original de los indoeuropeos no se encontraba en el Norte de Alemania, por lo tanto que los hombres de raza nórdica, originariamente, no son indoeuropeos, sino “alógenos indoeuropeizados” [...] Frente a estas teorías imperialístico-científicas...” (1978: 86-87).

6. Baina atzerrian, ez Euskal Herrian!; ikus lan honen azken atalean.

7. Ezaguna da Chomsky Mitsou Ronati eta besteri kontakua: matematiketan autodidakta izan arren eta alorra zientzia “gogorra” aspaldidanik, matematikariaren biltzarretan inoiz paperik ez omen diote eskatu eta bai arretaz entzun berriztat edota interesgarritzat esateko zuena; politologoek, aldiz, beti isilarazi nahi izan dute eta gogoko ez zuten zerbait zioenean beharrezko begitanduz zitzaizen beren alor zientziatik urrunekon zituen ikasketen agiriak eskatzea.

8. Jurgi Kintanak *Egunkaria*-n (1998-azaroak 17) AM-en eraikuntzaren beste alderdi horietako zenbaitez —arkeologiaz bereziki— kritika gogor bezain zuzenak egin zituen, nik bide horretatik berriz ibili beharrik ez dudalarik; hizkuntzalaritza bertan esaten dituenak ere oso egokiak dira, Mallory-ren 1994ko liburuz eta Gimbutasen indoeuroparren aitzinaberriak Kitsonek (1997) kritikaren bat edo beste eginagatik (cf. 54. oh. ean). *Ostia* aldizkarian (cf. “Euskal imaginario indigenaren asmakuntza (I)”, 14. zb., 30-31) egindako ideologia abertzalearen historiarekin eta horren barnean AM-i emandako kokagunearekin ere bat etor gintezkeela deritzot; alabaina guzti honek zerikusi txikia du ene lanaren gunearekin.

Estornes-ek egokiro adierazten zuen bezala, arraza eta herri diren aldetik euskaldunok —kopuruz, lagun gutxi baikara— oharkabe pasatuko ginatkeen eta inguruko herriek beren aldakin gisa joko gintuzketen, hizkuntzari esker izan ez balitz. Hizkuntzalariek aurrean duten buruhauste hori, Menéndez Pidal-en iritziz. «Lurralde horretan irau duen dokumentu historikorik ohoragarriena da, egungo klima eta aldi geologikoa baino lehenagokoa, agian» (9. orr.; Estornesena 1980-81: III, 203an dator eta hurrengo orrialdean Pidal-en aipua, hor ere jatorri zuzenik gabe).⁹

2. Iruzkina itxuraz atzekoz aurrera, akabutik hasirik, bibliografiatik, hain zuzen, hor aurki dezakeguna ez da «oinarri zientifiko estriktoen gainean»¹⁰ eraikitako pentsamendua edo liburua dela baieztatzeko arrazoirik emateko modukoa: letra larrian eta zabal-zabal, txuriune handiekin, bertan zer bildu handirik ez dela dirudi. Sarrera gehienak liburuak dira, zaharrak eta txarrak (aspaldi gaindituak, alegia) asko, eta —larriago dena— aldizkari (berezitutako) artikulurik ez delarik; badaezpada ere, *Muy Interesante*, *Saioak*, *Mundo Científico*, *Investigación y Ciencia* eta antzekoak ez dira inoiz, inon, inola eta ezertarako zeinnahi ofiziotako inork bere jardunean (denbora-pasa, bai, agian, nork bere etika eta estetikaren arabera) darabiltzan —irakurtzeko zein bertan argitaratzeko— aldizkariak. Ez da hor, aldiz, *Language*, *Transactions of Philological Society*, *International Journal of American Linguistics*, *Diachronica*, *Journal of Indo-European Studies*, *Oceanic Linguistics*, *Aion*, *Anthropological Linguistics*, *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, *Journal of Chinese Linguistics*, *Central Asiatic Journal*, *Revue d'Etudes Georgiennes et Caucasiennes*, *International Journal of Dravidian Linguistics*, *American Anthropologist*, *Current Anthropology*, *Antiquity* eta beste hainbat eta hainbaten arrastorik...; txaubinismorik ez agertzearren, agian, ezta ASJU, *Euskera*, *FLV*, *Lapurdum* ez besteren aipuruk. Alabaina, horietan eta egileak aipatzen edo ezagutzen ez dituen beste hainbat liburu eta era ezberdinetako bildumatan¹¹ gauzatu da —berezilarien artean beheraka ote doan nago— hizkuntzalaritza eta beste zenbait jakintzaren (bereziki arkeologia eta genetikaren) arteko elkarlanean mundu osoko azken milaka urtetako iraganaren berreraiketa saio zenbaiten inguruko eztabaida.

Guztira 39 bibliografia-sarrera dira aurkitu ditudanak AM-ren zerrendan; ezin esan asko ez aski denik aipatu ikerketa eta eztabaidaren tamaina gogoan izanik; usu hizkuntzalari eta filologoaren artean dozena bat edo dozena t'erdi orrialdetako

9. Hortik atera litekeen ondorioak De Hozek indoeuropar hizkuntzez esandakotik aski hurbil behar lukeela dirudi: «Indoeuropeización significa ante todo adquisición de una lengua indoeuropea, se trata por lo tanto de un proceso lingüístico y que debe ser estudiado en primer lugar a través de la lingüística» (1999b: 4; cf. hemen 33. oh.) nahiz eta, ondoren, «tema de estudio claramente sociolingüístico e implica inevitablemente la consideración de las relaciones que existen entre lengua y hablantes» ere gehitu. Cf. 52. oharrari dagokion testuko aipuan Gorrochateguik Renfrewz esanak.

10. Cf. «(...) autoreek [hemen aztergai izango dugun Martínez Lizarduikoaren liburuaz landa J. Naberanen *Sugearen iraultza* du aipagai] duda izpirik ez dute uzten, oinarri zientifiko estriktoen gainean nahi dutela beren gogoeta garatu. Berak ez antropologoak, linguistak edo genetistak dira, baina hori diren ikerketa berrietan oinarrizten dira. Egiten dutena da, horien ekarpenak eskuan dituztela, gure iragana birgogoetatu —eta, zeharka, oraina jorratu, alternatiba errotik berri baten bila—» (J. Azurmendi (Filosofoa), «Euskal zibilizazioa: sugearen iraultza», *Egunkaria* 1999ko apirilak 13, 5. orr.).

11. Ohar orokor bezala, AM-k —irakurteei eta iruzkintzaile honi gauzak erraztearren edo— ez du bere iturrietako orrialde eta erreferentzia zehatzik ematen, ezta hitzez hitzeko aipurik ere gehienetan, nahiz eta inoiz komatxoak eta letra etzana erabili.

lantxo batean edota edozein artikulu nahiz oharretan ikus ditzakezu horrenbeste.¹² Alabaina, AM-k salatu duen^{12b} lankideon «ezerezi buruz dena jakin» nahi izateko grinaren ondorio izan bide liteke... Aldiz, Arnold-en liburua (*El misterio vasco desvelado*) edo Oteizaren edozer gauza idatzizko bertan aurkitzea oso bitxi egin dakizkioke norbaiti, okaztagarri begitantzen ez zaizkion bitartean, jakina.¹³ Swadesh-en artikulua (edo liburua, aipatzeko modu orokorragatik ez da garbi jakiteko modurik) ez da egilearen ezagunena eta testuinguru honetan bazen anitz aipagarriarik —Estornés AM-ren iturriak ezagutzen zuen bat edo beste—, Beringeko bi aldean hizkuntz loturez (Swadesh 1962) edota bestelakoez, glotokronologiaren oinarriei buruzkokoak ahazteke. Halere, euri asko egin du geroztik eta Berman (1992), Bright (1984), Campbell (1988, 1997 eta beste hainbat), Campbell & Mithun (1979a, b), Chafe (1959), De Meo (1992), Goddard (1990 eta beste anitz), Hamp (1987), Kimball 1992), Krauss (1979), Mithun-en ugari, Munro (1994), Newman (1991), Nichols (1990), Poser (1992), Rankin (1992), Rodrigues & Dietrich (1995), etab. —Mary Haasen guztiak tartean, jakina— nahita nahiezko ditu Ipar-Ameriketako antzinako hizkuntz egoerari buruzko edozein lanek —edota han ikasi ustekoak beste alor batera hedatu nahi dituenak—, are edozein saiok, eta ezin Ruhlen-en sasi-oihartzunetan fidatu. Euskal alorretik atera gabe, Trasken *The History of Basque* (1997) agian beranduegi argitara zitekeenez AM-ek eskuragarri izateko, baziren egile beraren “Basque: the search for relatives”, “Origins and relatives of the Basque language: Review of the evidence” eta “Basque and Dene-Caucasian: A critique from the Basque side”, non AM-ek premiazko izan zitzakeen teoria, datu, hipotesi eta argudio guztien azterketa pareka ezina eriden zezakeen.

Bestalde, ez Ameriketako ez Eurasiako, ez Afrikako ez Ozeaniako, ezta Euskal Herriko hizkuntz histori(aurre)aren inguruko arazo korapilatsu zein errazena aska litezke teoria orokorr(ar)en berriren bat izan gabe: Bynon (1977), Campbell (1998), Crowley (1992), Haas (1969), Hock (1986), Hock & Joseph (1996) eta Trask (1996) eskuliburu eskuragarri eta argiak dira —argiegiak aukeran?— hizkuntzalaritza historikoan metodo konparatuaz aritzean, haren muga eta botereaz, jokoaren arauz azken finean, zer ulertzen den jakin nahia edo beharra duenarentzat.

Azkenik, AM-k uste duenaren aurka, Greenberg eta bere zabaltzaile edo boz-eramaile Ruhlenen metodologiak eta ondorioak ez direnez inondik inora alorrean nagusi, goraiatu, estimatu ez onartuak, konpli zen Baldi (1990, osorik), Campbell (1988), Matisoff (1990), McMahon & McMahon (1995), Morpurgo-Davies (1988),

12. Beharbada, hau umekeria edo txikikeriaren bat izan liteke baina... agertzen diren guztiak irakurriak ote? Greenbergen *Indo-European and its closest relatives*, azken dozena bat urtean argitaratzeko iragarria ere bai? Mitxelenaren *Sobre historia de la lengua vasca* ere bai nahiz eta haren emaitzak ez eztabaidatu eta haren metodologi hatsarrietarik ezer gutxi ikasi? Ez dakit —testukritikan aritua naizen aldetik susmoren bat badut ere— zer dela eta «Martinet “L'euskaro-caucasien...”» datorren Mitxelenarenaren ondotik AM-ren bibliografian; ez da zer esan beharrik azken artikulua hau *Lengua e historia*-n (ikus akabuko ene bibliografian) bildua izan zela eta han edozeinek erraxkiago aurki eta irakur lezakeela.

12b. Cf. AM 11-12. or. eta hemen 121. oharrari dagokion testuko aipua.

13. Damurik ez du egile horren «El no se qué de nuestro indoeuropeo»-ren aipurik ez iruzkinik.

Nichols (1996), Poser & Campbell (1992), Ross & Durie (1996), Sims-Williams (1998a), Watkins (1990) eta beste hainbat gogotan izatea edota irakurleari ez ezkutatzea, bederen.¹⁴

3. Egileak hizkuntzaren historiaren eta historiaurrearen ikerketaz eta horren historiografiaz (cf. Gómez 1997, 1997b) duen ikuspegia ez dakit estandarra den; esaten zaigunez «euskararen balizko ahaideei buruzko ikerkuntzak, tradizioz, harrera ona izan du euskal ikaskuntzetan, gure hizkuntzaren ikerketa sistematiko eta zientifikoa sortu zenez geroztik. Gero Uhlenbeck, Lafon, Tovar, Bouda, Caro Baroja, Krutwig eta beste hainbat ikertzailek garatu zuten “hizkuntz historia” izenekoa W. Humboldték lehenengo aldiz oinarriak jarri ondoren» (46), hurrengo ahapaldian «aurrehistoria, zehaztu beharko genuke» gogoratzen duelarik. Eta «beste inongo hizkuntzarekin ezin baita konparatu» hortik jotzea ondoren ikusiko ditugun beste “metodo” batzuetara.

Aipatzen diren izenen artean era askotako diferentziak nabarmenak dira: oker ez banaiz Caro Barojak (1942-43) ahaidetasun hipotesi baten (euskara-iberikoaren) historiografia egin zuen funtsean —latinetik altxorak historiaurrearen ikerketan eman zezakeen laguntza gogoratzeaz landa (1945)—; Lafonek *historia* —XVI. mendeko aditza eta bizkaieraren deklinabidea gehi ekialdeko euskalkiak aztertuaz, esaterako— zein ustezko jatorriei (euskara-kaukasiera) buruzko historiaurrea egin zigun; Krutwigek ez du inongo historiarik egin eta historiaurreaz jaulkitako zenbaiten pisua ikusiko dugu beherago (§ 8); Uhlenbeckek historia ez egiteaz landa baieztapen antihistoriko larriak¹⁵ ere bota zituen...

Harrigarriena, ordea, akitanieraren egitura (1954a), latinetik altxorren azalpen boterea (1957b, 1967b, 1974, etab.), erdiaroko onomastika (1969, 1971), testurik zaharretako —eta beraz, emankorretako— hizkera (1954b, 1958), dialekto zahar eta berrien (1953, 1968, 1972) berreraiketarako pisua eta aitzineuskararen oinarriak (1957a, 1961/1977, 1981) miatu zituen Mitxelenaren

14. Matisoffen lanari ondoko aitzin-oharra ezarri zion *Language*-ko argitaratzaileak; «[Editor's note: Because of the importance to historical linguistics of the issues raised by Joseph Greenberg, his supporters, and his critics, the editor decided to solicit a discussion of these issues by a scholar whose qualifications include extensive experience in comparative linguistic research and a presumed lack of prior bias either for or against Greenberg's view. The following essay is the result]» (*Language* 1990, 106). Matisoffen lehen ahapalditik bertatik (titulutik, hobe) dakusagu iruzkin osoari darion ironia: «There is no denying that G's central thesis [...] has a certain romantic sweep to it. Such a far-reaching claim would seem to require pretty convincing evidence to back it up» (1990: 106). Gero ere «The consensus among professional Amerindianists seem to be that G has NOT in fact “exerciced great care” in the selection or utilization of his materials, and that he has ignored the results of the best recent research on many topics» (107) edo «G seems to scorn those who work at sub-megalo levels of classification as focusing “on a limited group determined by accidents of expertise (4). He has no taste for tiny details» (108) eta beste hainbat eta hainbat eransten ditu. Hara Dixon ere: «There is no reputable historical linguist, anywhere in the world, who accepts the claims of Greenberg and the Nostraticists» eta oharrean «Lest this be thought circular, let me provide a criterion for recognising a large group of reputable historical linguists: anyone who teaches the subject at a leading university in the USA or in an EEC nation» (1997: 44). Halere, bada (cf. Baldi 1991 eta Salmons & Joseph 1998 arg.) nostratistak (horietako zenbait, hobe) begikoago dituenik.

15. Lakarra 1986-n (eta Mitxelena 1964-n lehenago) erakutsi zenez, ezin esan liteke hark egin legez (cf. Uhlenbeck 1947) bizkaiera eta gipuzkera XVI. mendetik hona hurbilduaz eta beren arteko ezberdintasunak urrituaz joan direnik.

izenik ere ez agertzea begitantzen zait. Ez bakarrik lan horiengatik, jakina: haren *Lenguas y protolenguas* (1963) irakurtzea ere ez bide litzateke egiteko alperra AM-rentzat eta hizkuntzaren iraganaren berreraiketaz arduratuarentzat.¹⁶

Liburuaren hasieran bertan metodoen ingurukoa argitu beharra ikusten du AM-ek:

Euskararen hizkuntz azterketak, halaz ere, nekez gainditzen den oztopoa eriden du bidean. Hizkuntzen bilakabidea, aldakuntza eta hizkuntzen arteko harremanen ikerketa da hizkuntzalaritza historikoaren funtsa. Ikerlanean jardun ahal izateko, hizkuntzalaritza historikoak testu idatzien premia du eta, euskarari dagokionez, horrelako testurik ez dago. Beste alde batetik, euskararen historian —geroaxeago ikusiko dugun bezala— milaka urte asko egin dezakegu atzera, nahiz eta distantzia hauetan hizkuntzalaritzak metodologia egokirik ez duen. Euskararaen kasuan, beraz, hizkuntzaren historia egin orde, hizkuntzaren aurrehistoria egin beharko dugu; eta horretarako zientziaren beste adar batzuk izango ditugu lagungarri (11).¹⁷

Zerekin erka ez izaki euskararen kasuan HISTORIARIK egiterik ez dela esan dutenen artean izen handiko konparatistak (Saussure, Meillet) izan direla ezin uka. Edozein hizkuntzalarik onartuko du, gainera, bestelako ikersailetatik letorkiokeen laguntza; alabaina, ez dirudi egoki denik behar baino lehenago historiaz “paso” egitea. Euskararen lekukotasunen corpusa ez da nahi genukeeen bezain zabal, oso eta sakona, are paleolitikoa baino askozaz garai modernoagoetara iritsi nahi dugunontzat. Okerragoa dena, ez da behar lukeen bezain ikertu eta ezaguna (cf. Lakarra 1997a). Nolanahi ere, bada tarterik paleolitikoko testu idatziak (ez) erabiltzetik soilik gaur egungo hizkuntzatiko datuak erabiltzera bitartean. Ezer baino lehen esan dezagun hizkuntza indoeuoparretan ere lekukotasunik zaharrenak k.a. bigarren milurtekoaren hasiera edo erdialdekoak direla (hitita, sanskritoa, mizenikoa). Halaz guztiz, bizpahiru mila urte lehenagoko aitzinindoeuopera berreraiki ohi da (eta hortik familiako hizkuntza bakoitzaren

16. Hara ondoko pasartea: «Arkeologiak ondorioztaturiko datu batzuk ditugu, gure bilaketa linguistikoan norabidea adieraz diezaguketenak. Aurreko atalean, euskal matrizeko kontinente zabal bat bazela hartu dugu abiaguneko hipotesizat. Kontinente hura hizkuntzaz konektaturik egon bazen eta, beste aldetik, hedapen-gunea lurralde euskal-akitaniar hizkuntzarekin edo hizkuntzekin ahaidetasunezko loturarik izango zuten, noski. Badakigu euskal-akitaniar matrizean mintzatu z(ir)en hizkuntza(k) protoeuskara(k) izan z(ir)ela, haietako zenbait seguru aski, egungo euskaratik ez oso urrunekoak, gainera. Badakigu, era berean, paleolitoko hizkuntza euskal-akitaniar haietakoren bat — haxe da, izan, historia kitzikagarri honetako egiazko alderdi miragarritzkoena— hogeita hamar mila urte geroago, European oraindik mintzatzen dela, garai hartan baino, hori bai, askozaz ere eskualde urriago batean. Badugu, beraz, lekuko bat bizi-bizirik: egungo euskara» (45).

Aitzineuskara edo aitzinhizkuntza zer den AM-k ez dakenez edota hitz horren erabilera ez-estandarren baten aurrean garenez (cf. Crowley 1992, Fox 1995, Trask 1996, Campbell 1998 eta eskuliburu horietan aurki litekeen bibliografia), zer da “egungo euskara”? 20. mende akabuko hau? (Horrela balitz duela 20 edo 40 mendetako egoeraren ordezkarietat erabiltzea ez litzateke zilegi). Hori gehi aurreko mendeetako hizkera guztien bilketa pankroniko eta ukronikoa? Datu horietarik abiatuturik berreraikitako aitzinhizkuntza? Bestalde, ze eratako “konexioa” du buruan kontinente horrentzat? *Sprachbund* tipokoa, familia gisakoa...? Eta batera zein bestera, ba ote asmorik hori frogatzeko ahaleginen bat egiteko? Badirudi sinestunak duela frogaren zorra, ez agnostikoak (cf. Hamp 1998, etab.).

17. Populazioen genetika, arkeologia eta paleoantropologiaz ari da, cf. § 1.2.ren akabuko aipua, hemengoaren ondo-ondokoa dena.

bilakabidea), aski ongi gehienen ustez;¹⁸ gogora bakar-bakarrik Saussure hil ondoren eta hark bere hogeita bat urtetan ezagut ezin zitzakeen lekukotasunetan eriden zituela Kurylowicz-ek laringal gero famatuak.¹⁹ Horrelatsu jazotzen da familia semitikoan eta baita askozaz beranduagoko lekukotasunak baino ez dituzten algonkinarrean (cf. Goddard 1973, 1990, 1996b, Campbell 1997), austronesioan (Dahl 1976, Blust 1990) edo bantuan.

Baina badira urteak (cf. Mitxelena 1963) argi asko markatu zela euskararen diakroniaren ikerketa 1545 baino lehenago, X-XI. mendeetako izenak baino lehenago hasterik bazela; izan ere, euskara ez da AM-ek eta enparatuk uste duen bezain isolaturik. Bestela esan, hainbat euskal morfemak badu zerekin erka, are erkaketa horren bitartez bere iragan hurbil eta urrutikoaren zertzelada nagusiak eskuratzea ere. Mailegaketaren azterketaren bitartez —horretaz ari baikara, noski— atera liteke (eta hortik atera da neurri on batean) euskal hots aldaketen ikuspegi zabal beharrezkoa: *arno*, *ardão* eta *ardandegi*-tik ez bide zen zailegi **ardano*-ra iristea, baina are errazago *ballena* > *balea* eta *catena* > *gatea* aldamenean izaki. Bestalde, hona heldurik (eta *Sembe* eta *Senico*-gabe ere *sehi*, *segi* eta *sein*-etik **seni*-ra iritsi arren) zailxeago zen zalantzarik gabe *anaia* modernoko sudurkariarekin zer egin erabakitzea... *anoa*-n (< *annonna*) demagun, ikusi ezean jatorriko bi ene mota diferenteek euskal maileguetan bi emaitza diferente izan ohi dituztela: ez zen, beraz, oinarrigabea bigarren /n/ bat (/N/ “bortitza”, alegia, cf. Mitxelena 1957a) proposatzea euskal fonologia zaharrerako ere.²⁰

Euskaran beste gutxitan adinako garrantzia duen mailegaketa eta ahaztu nahi ez ditudan lekukotasun akitaniarrek alde batera utzirik ere, badugu atzerantz jotzerik. Metodo konparatua ez da hertsia-hertsian hizkuntzen historiaurrea egiteko bakarra, erabiliena, boteretsuena edo ezagunena bada ere. Isolaturik diren hizkuntzetan batez ere, baina baita beren lehen lekukotasunetarik familiaren aitzinhizkuntzarako bidai luze edo laburra egin nahi duten gainerakoetan eta are historia barneko lekukotasun gabeko garaietarako²¹ ere, barneberreraiketa ezinbartzertuko lanabesa dugu. Erkatzen diren hizkuntzetan, bestalde, barneberre-

18. Cf. «Anyone who has spent at least five minutes thinking about history realizes that a major problem with historical analysis is that there are gaps in any historical record. Historical linguists, like other historians, spend much of their time trying to fill in those gaps with educated guesses. This is most obvious when the task is reconstructing one historical linguistic state, which by definition predate all documentation for a given family, but it's also true of most of the other historical analyses that we carry out. Even with a well-documented language like English there are historical puzzles that we argue about because we have only partial information about what changes to what, and when. Whether or not a language's history is well-documented, our basic research strategy is to keep working with the data until we have solved the historical mysteries; the success of this strategy can be seen in the large number of historical linguistic mysteries that *have been solved*» (Thomason 1993: 485). Eta hor bertan «[...] and these limits also result from the fact that our information is *inevitably far from complete*». Etzanean emandakoak guztiak ezagutzen dituzte betidanik eta hala ere alorrean dihardutenez gero...

19. Badaezpada ere, Saussureren berreraiketa ez da berreraiketa konparatuaren baizik eta barne berreraiketaren adibidetzat eman ohi; cf. Fox 1995, Trask 1996.

20. Honetaz mintzatu naiz Lakarra 1999an. Bestalde, bibliografian errazago aurkitu ahal da mailegaketa prozesuetan hartzailearen bitartezko emailearen berreraiketazko saiorik ezen ez alderantzizkorik; hortik Mitxelenaren eta haren eredu Jacksonen.

21. Zer egin, esaterako 1545az geroz urtetan lekukotasun haboro ez duen ekialdeko baxenafarrerarekin? Edota Amilletaren dotrinatik (1678) 1825ekora bitartean lekukotasunik ez duen Antzuolako hizkerarekin?

raiketa nahiz konparaketaren aurretik nahiz ondoren egin ahal da,²² sakontasun handiagoa ematen ahal zaielarik.

Euskaraz, esaterako, *orbel*, *goibel*, *harbel*, etab., ikusirik —eta hor bertan goxo gelditu beharrean— nola ez ohartu guztietan *-*bel* morfema bat dugula kolorearen esanahia gehitzen diona kasuan kasuko lehen osagaiari? Alabaina, euskara historikoan kolorearen izena ez da *-*bel*, *beltz* baizik. Hortaz, noizbait *-*bel* izanik gero -*tz* hartu zuela pentsa genezake. Bestalde, *hor* “zakur handia” eta *hartz*-en artean ere ez ote aztertzen ari garen beste bi formen arteko erlazio berbera²³ edota *sabel* eta *gibel* ez ote goiko *-*bel* horren paradigmakoak²⁴? Arrazoi du Watkinsek (1990) etimogilari baten —orobat barne-berreraikitzailearen— meriturik handiena noiz gelditu jakitea dela esatean; alabaina, AM-en metodoak hobeak ote? Historiaren barneko aldaketan ikerketa eta barneberreraiketa liburutik erabat ezabatzeke eta aipatu ere ez egiteko bezain on?

Euskararen ahaideak ikertu nahian glotokronologiaz gain joskera-ahaidetasuna, semantika eta toponimia aurkezten dizkigu lantresna gisa, metodo estandarrez etsita edo:

Beste lan-alorretako bat dugu joskera-ahaidetasunaren ikerketa. Azterketa honek garrantzi handiagoa du, perpausen baitan hitzek betetzen duten ordena eta funtzioari dagokiona delako. Informazio hau hizkuntzaren gogo edo espirituari dagokionez askoz ere fidagarriagoa da. Hitz soilak maileguen bitartez txertatu edo sartu diren bitartean, sintaxiak irauten badu hizkuntzak ere irauten duela esan daiteke. Sintaxia desagertzen denean, ordea, hizkuntza suntsitu egin dela esan dezakegu. Azterketa sintaktikoak dezente korapilatsuagoak dira, hizkuntzen arteko ahaidetasuna hurkoa denean bakarrik egiten direlako (47).

Semantika da hizkuntz azterketaren beste alor interesgarri bat: metodoa, antzeko ahoskera duten hitzak hartu eta edukiak elkarrekin alderatzean datza, haien arteko koerlazio-maila nola edo hala neurtuz eta, hemendik abiatuz, haien garapen ebolutiboa eta denak enbor bereko osagai inoiz izan ziren zehazteko (47).

Bitxi litzateke, beharbada, sintaxiaren iraupenaren eta hizkuntzaren arteko loturaz egilea eta Etxeberri Sarakoa (eta bere iturri zuzen eta zeharkakoak, greziar eta erromatarrak azken finean) erkatzea. Alabaina, ohartu ote AM hizkuntza zeltikoen edota hebreeraren hitz ordena aldaketa ezagunak bere ikuspuntuan hizkuntza horien familia erlazioez —hizkuntzon “gogo eta espirituaz” landa— dakarrenaz?²⁵ Ez dut uste semantikaren definizio hau edo antzeko ezer ere esku-liburuetan erraz aurkitu ahalko denik; zer da, bestalde “garapen ebolutiboa”? Me-

22. Ikus Fox 1995; orobat Campbell 1998 barneberreraiketa eta berreraiketa konparatuaren ezarketa ordenaren eraginazko finougriozko adibide interesgarri baterako.

23. Konpara gazteleraz *can* “hor” eta *canino* “hartz”; batean eta bestean atzizkiek izenatarik hasiera batean adjektiboak ziren hitzak sortzeko balioa dukete.

24. Horretarako *-*gi*- eta *-*sa*- morfemen kasu gehiago beharko genuke: *gi-harre*, *gi-zen* (cf. *ze-zen*) eta *sa-min* (behabada *sa-kon*) bederen aipatu ahalko lirateke (cf. Lakarra 1995).

25. Aurrerago «koerlazio lexikografiko honek, aldi berean, sintaxi edo joskeraren bermea dauka. Koerlazio lexikografikoa adierazle garrantzitsua izaki ere, are eta garrantzi larriagoa du perpausaren elementuek agertzen duten ordenak. Euskararena subjektu-objektu-aditza da, eta avaiara (sic) eta georgierarenak ordena berbera dute» (54-55) botatzen digu; horrela dirudi, bai euskara modernoarekin (cf., halere, Hildagoren lanak) ez nahita nahiez aitzineuskararekin (cf. Gómez 1994). Bestalde, SOV

todo konparatuak, aldiz, bai eskatzen du forma eta esanahi koerlazioak aztertzea eta horiek erabiltzea morfema eta hizkuntzen ahaidetasun frogak bilatzeko;²⁶ hortik ez da jarraitzen, noski, koerlazioan diren ahoskerak materialki “antzekoak” izatea.²⁷ “Antzekotasunen” bilketan ez dago aspalditik hizkuntzalaritza linguistiko zientifikoaren bidea: Watkinsek (1990), Hamp-ek (1998) eta bestek Meilleten bidetik erakutsi dutenez, askozaz froga sendoagoak dira antz itxurarik ez duten koerlazio sistematikoetarik datozenak.

4. Behin baino gehiagotan (cf. § 1.ean liburuaren egitura) dakar AM-ek arraza, odola eta genetika bere ondorioen lagungarritzat. 45. orrialdean arkeologia eta genetikatik abiatzen da “euskararen ahaideak” bilatzera: izan ere hizkuntzazko frogak ahulak iruditzen baitzaizkio:

Lehen aztertu dugun lurralde handia biologikoki eta kulturalki konektaturiko kontinente bat izan baldin bazen, matrize euskal-akitaniarrekoa gainera, bertako osakideen (osakide guztien edo haietako batzuen) artean nola edo halako hizkuntz loturarik ere egon beharko litzateke, dudarik gabe. Informazio hori eskura bageneza, arkeologian eta paleoantropologian oinarriturik dagoen gure hipotesi hau berretsi edo auzitan jar liteke. Molde honetako hizkuntzalaritzazko ikerlana egiteak berealdiko garrantzia izango luke. Baina arazo larria topatu dugu bidean. Hondakin arkeologikoen denboran barrena iraun eta gure egunetaraino irits daitezkeen arren, hizkuntzen biziraupena askozaz ere aldrebesagoa, hizkuntza berez etengabe bilakatzen eta aldatzen ari delako eta behin betikoz desagertzean ez du bat ere aztarna materialik uzten. Ikusi batera egoera hau etsigarria den arren karga arinduko zaigu, behar bezalako metodologia erabiltzen asmatzen badugu (cf. § 1.3.ko aipua hizkuntz frogen indarratz).

29. orrialdean esaten zaigunez, Cavalli-Sforzak deriba genetikoak planeta osoan —eta Europan zehazkiago— miatu eta, horietan oinarriturik, herri eta arrazen aldakortasunak azaltzen dituzten arbolak eratu omen ditu:

Eta ustekabez (“espero zenez” esan beharko genuke) lotura hertsia-hertsia aurkitu du bere arbola genetikoen eta hizkuntzalariek —zeharo bestelako bide eta metodologiez— egiten dituztenen artean. Horren eraginez ondorioztatu du aldakuntza kulturalak (hizkuntzen bilakaera, adibidez) inbasio fisikoek eragin edo beharturik ugaltu direla, funtsez.

Metodo honen zilegizkotasuna Europaren kasuari aplikatu zaio eta hemen Cavalli-Sforzaren ustekabea areagotu egin da, Euskal Herriak zein euskararik subjektu historikotzat ezagutzen ez zituelarik, ikerlan horietantxe agertu baitzaio Euskal Herria berezko nortasun nabarmen eta sendoarekin.

Munduko herrien banakuntza genetikoari buruzko ustezko taula jarraiki, hara nola laburtzen diren 65.ean euskaldunen arrazari buruzkoak:

dira baita turkiera, japoniera... eta ez dakit hortik beren jatorriaren inguruan edo beren arteko kontaktu historikoei buruz ezer atara genezakeen. Irlandera eta arabiera biak dira V- eta hortik bien arteko loturarik jarraitzen ote?

26. Eta horiek ere ez dira aski; cf. oinarritzko morfologiari buruzko eztabaidaz Lakarra 1997b: §4.

27. Cf. § 6 akabuan *erku* / *duo* indoeuropar adibide ezagunari buruz eta gogora (cf. *FHV*) *enara* / *elai* <*eNala / *eLana.

Abakoa sei aldetan banatzen bada ikusiko dugu I eta II aldeak europar herriei dagozkiela, tartean euskaldunak azaltzen ez direlarik. Euskaldunak VI aldean daude (aztertzen ari garen arazora begira, honek berebiziko garrantzia dauka) kaukasiar eta bereberekin batera. Garai batean kontraesanezkoa zirudien honek, abakoko alde horretan koerlazonaturik agertzen ziren herriak geografikoki elkarrengandik oso urruti zeudelako (are eta kontinente desberdinetan ere). Horregatik zientzialariak ez ziren gauza izan lotura horren arrazoia azaltzeko. Lan honetan orain arte ikusi eta iruzkiniko azterketa arkeologiko eta linguistikoak eginik, ordea, Streng-en taulako datuek, Mediterraneoko euskal-akitaniar zibilizazio eskerga egiaz bizi izan zela zientifikoki eta independentziaz bermatzen dute.²⁸

Alabaina, ez dirudi —hizkuntzalarien artean bederen— arrazaren eta hizkuntzaren bilakabidea bereizteko (edota lotugabe mantentzeko) aspaldiko joera gainditzeko arrazoi aski denik kasu honetan ere. Bataren eta bestearen etorkia eta tempoa aski diferenteak izan ohi dira eta litekeena da “euskal-akitaniar guneko” batasun arkeologiko, linguistiko eta genetiko (32. or.) berankorra izatea: euskaldunok cromagnondarren ondoko zuzen —«gizadirik zaharrenaren erlikia bizia» (34. or.)— bagina ere, AM-ek hainbateko estimutan duen “hizkuntz arkeologiak” ez du ahalmenik ez duela 30 mila urte (34. or.), ezta 15 eta are 10 mila urte ere euskara hitz egiten zela frogatzeko. Bestela esan, nominalismo inozoetan ez erortzeko —“euskara” orain, “euskara” duela 2000 urte, “euskara” duela...—, aitzineuskararen berreraiketaren bertsio estandarrak (Mitxelena 1957, 1977) latinarekin kontaktuan sartu baino lehentxeagoko (-300, -500?) egoerara baino ez garamatza.²⁹ «Euskara milurteko askotan zehar hausturarik gabe lurralde berean dirauen giza talde bati atxikita» egon dela diosku AM-ek (11. or.) eta ezingo diogu ukatu azkenengo bi milaurtekoen ari bada eta ezta, agian —baina bestelako eszenariorik era liteke—, indoeuropar inbasioen garaian bizpahiru lehenago.³⁰

28. Eta «Kaukasiar, berebere eta kanariarren azterketa serologikoa burutzeko xedearrekin martxan jarritako lanek berresten omen dute euskal-akitaniar zibilizazio eskergaren hipotesia...» jarraituaz.

29. Traskek (1997: 179) Lakarra 1995eko sistema «askozaz zaharragoa» dela dio zehaztasun gehiago gabe; zuzenkizun eta gehiketa anitzekin ere ez zait iruditzen ene bigarren graduko berreraiketa honek Mitxelenarenak baino askozaz urutiago eramango gintuzkeenik, ez behintzat k.a. 3.500-4.500 aldera indoeuroparrak Europan hedatzen diren garaira. Akitanierazko lekukotasunetara iritsi arteko 30.000 urteko eten horren %90az behintzat hizkuntzalaritzak zeresan gutxi du. Optimistek duela 8 bat mila urtetako aitzinhizkuntzak berreraiki uste dituzte (afroasiatikoa) gehienez ere metodo konparatuaren bitartez eta bizpahiru gehiagotan fetxatu glotokronologikoki beste zenbait (na-denea Greenbergekin).

30. AM-ek sasihizkuntzalaritzarekiko begirune handiegia eta hizkuntzalaritza historikoaren lanarekiko ezaxola handiegitxo erakusten du behin baino gehiagotan eta ez gutxienik honelakoak idaztean: «[...] Cro-Magnon gizakiak erabili zuen hizkuntza protoeuskararen antzeko zerbait edo, nolana ere, zeharo garaturiko hizkuntza bat izan zitekeela uste dute egungo hizkuntzalarik (?) eta arkeologoek (?), genetistak ere bat datozela, behegaro ikusiko dugun bezala. Cromagnongo eztandari maila goreneko abstrakzio-ahalmena erantsiko lioke honek (edo, agian, haren zergatia izan zatekeen), ikertzaileen aburuz, *protoeuskara hura eta egungo euskara hau ez bailirateke oso desberdinak funtsez*. Ederki dakigunez, euskara gai da egungo zeinahi hausnarketaz aritzeko, fisika kuantikotik hasita kosmologia erlatibistaraino» (26-27), «Hizkuntza eta gizakia, hortaz, denbora eta toki berean bizi izan ziren. Honenbestez, *aski zentzuzkoa dirudi cro-magnonen hizkuntza euskara izan zelako hipotesia hartzeak, hizkuntza hori egitura aldakuntza handirik gabe gureganaino iritsi delarik*» (34, etzanak neureak dira) eta «Badakigu euskal-akitaniar matrizean mintzatu z(ir)en hizkuntza(k) protoeuskara(k) izan z(ir)ela, haietako zenbait seguru aski, egungo euskaratik ez oso urrunekoak, gainera. Badakigu, era berean, paleolitoko hizkuntza euskal-akitaniar haietakoren bat —hauxe da, izan, historia kitzikagari

«Kontinente zabal hau [Europa] kulturalki loturik egon bazen, biologiaz eta hizkuntzaz ere loturik egon beharko zukeen, hori da atera daitekeen ondorio garrantzitsua» AM-en ustez (44) eta nahita edozeinek *non sequitur* esango lukeen arren, hor dugu labar-pinturen atzetik Levanten nahiz Afrikan:

Hego Afrikan ere makinabat labar-pintura aurkitu dira. Artelanok K.a. bost mila urte baino zaharragoak ez direnez, ikertzaile batzuek bidezko hipotesi hau eratu dute: korrante artistiko eta espiritual batek Afrika osoa alderik alde zeharkatu zuen, ipar muturretik hasi eta hego-hegoalderaino heldu. Afrikako iparraldeko artea eta Levantekoa loturik egon baziren, azken finean, mugimendu eskerga haren muineko sorburua euskal-akitaniar gunean zegokeen, apika (42).³¹

Hori bai, inoiz edo behin neurria (?) gorde nahian agertzen zaigu:

Honelako migrazio kulturala (eta fisikoa, beharba) azken ondorioetaraino eramatea, agian, ez dakiguke zilegi. Hortaz, testuingurua bortxatzeke, emaitzak sor ditzakeen euskal-akitaniar/levantetar/saharar lotura bakar-bakarrik hartuko dugu kontuan, lan-hipotesizat (42).

Gaitz erdi? Ez da, bada, izango Estornes maisuarengan (ikus 41. oharra) beltz eta horien hizkuntzatarik euskarak urruti izan behar zuela ikasi duelako edo?³² Bidenabar, hizkuntzalaritza eta biologia bat badoaz, ez dakit ez ote diodan kontraesantxoren bat aurkitu egileari; kontraesan handitxoa, beharbada, bi alorretako bi ardatz nagusien kronologiaren artean ematen baita: 15. orrialdean familiakotzat ematen zaizkigun hizkuntza na-dene-kaukasiarren jatorburua duela «40.000» urte kokatzen zaigu eta orrialde berean «euskararen sorburua Cro-Magnon gizakiarengandik gertu finkatzen» dela esaten. Alabaina, Cromagnon gizakiaren kulturak K.a. 30.000etik 10.000era iraun zuela esaten zaigu 26. orrialdean eta, niketz, 10.000 urteko jauzia askotxo genuke, beste alderdi batzuetan 1.000-2.000 urteko jauzirik ere onartzen ez dugunean. Alabaina, ez dakit euskara eta cromagnondarren zibilizazioa askatzen baditugu —euskara “humanizatu” eta “hominizatu” gabeko zeren (?) hizkuntza izaki— “gune euskal-akitaniarrak” bete ahalko zukeen AM-ek ikusi dion misio historikoa:

honetako egiazko alderdi miragarritzkoena— hogeita hamar mila urte geroago, European oraindik mintzatzen dela, garai hartan baino, hori bai, askozaz ere eskualde urriago batean. Badugu, beraz, lekuko bat bizi-bizirik: egungo euskara» (AM 45).

Eta ze iratxok eman dio AM-i berdintasun horren berri? Nondik *daki* euskarak azken milurtekoetan (bi milurtekoetan, esaterako) izan duen aldaketa bakarra eremuz urritzea dela? Hizkuntzalaririk jakintza eta konfidantza gutxixeagorekin (Mitxelenaren aitzineuskararen morfologiaren eta sintaxiaren berri noizbait izatearekin, demagun) pozik ginateke. Esan nahi dena zera bada, “hizkuntzatasunean” ez dela aldaketarik izan azken 30.000 urtetan, hori ez da berrikuntza handiegia; gehienentzat gizakien hizkuntz ahalmenak eta giza-hizkuntzek —ez soilik euskarak edo honen leinuak— badituzte 100.000 eta beharbada gehiago ere; cf. Dixon 1977: 67.

31. Hala biz. Dena den, AM-ek kontuan izatekoa duke, apika, De Hoz-en ondoko gaztigua: «Más interés tiene la posible reconstrucción de una cultura ideológica, relativa a instituciones, religión, conceptos morales y sociales, transmitida a la vez que y por medio del lenguaje. No hay que perder de vista sin embargo que en este terreno se ha construido demasiado a menudo sobre arena, y que la distancia temporal entre la supuesta protocultura común y las culturas históricas es extremadamente amplia como para poder esperar continuidades significativas incluso en terrenos tan conservadores como el de la religión» (1999b: 9). Gogora bedi De Hozek indoeuropea eta indoeuropar familia dituela gogoan, zalantza izpirik gabe eta urrutitik gainera, munduan diren ikertu eta ezagunenak.

32. Alabaina, dene-kaukasiar familia ere ez bide litzateke Estornesen oso gustuko: horiak eta gorriak aspalditik, kobrizoak eta bestelakoak ere gehiturik orain...; ik. beherago 41. oharrean.

Sapiens sapiens afrikarraren inbasiak Europan berari-berariazko izakia sortarazi zuen: Cro-Magnon gizakia, alegia. Arras berezia gertatu zen, Lurrean kultura sortu zuen lehena izanda, gure planetako hominizazioaren ardatz bilakatu baitzen (25).

Euskal-akitaniar gunea enborra izan omen zen, hemendik abiatuta, Europa osoan barrena Asia Txikiraino, batetik, eta iberiar penintsula eta Ipar Afrikaraino, bestetik zabaldu zena. Humanizazio-prozesua Europan euskal-akitaniar zibilizazioarekin gertatu zela gogoan badugu, gizadiaren aurrehistorian —bai espazioari, bai denborari dagokiela ere— behin izan den gertakari nagusia dugu aztertzen ari garen migrazio-mugimendu hauxe (43-44).³³

Euskararen edo horren leinuaren fetxaketa peitu izateaz landa,³⁴ badira genetika eta hizkuntzaren garapen ezberdinen eta lotura zuzenaren faltaren adibideak AM-ek berak ematen dizkigun datuetarik atera gabe. Esaterako, zergatik ez da kolore beltz [=«inbasio neolitikoeak menperatu ez (biologikoki zurgatu ez) zuten populazio aurreindoeuparra» (31)] haboro eta abondo Europako mapan Euskal Herritik landa? 64. orrialdeko abako genetikoaren alderdi berean (VI.ean) “basques, berbères eta géorgiennes” izateak egoki dirudi AM-en (eta haren iturri Estornesen) ikuspegian; orain are gehiago “australien” delakoak ere hor aurkitzea —eta “indiens”ak ere gertu-gertu V.a eta VI.aren artean— (beharbada norbaiti hau ere arraza kaxkarra begitanduko litzaiokeen arren) na-denea horiengana ere hedatu delarik. Baina bada hor beste zer begiraturik: zergatik dira hawaiarrak I. alderdian eta melanesiarrak V.ean eta javarrak IV.ean guztiek familia austro-nesioko hizkuntzak mintzatzen dituztelarik?; orobat, zergatik suomiarrak II.ean eta ainuak IV.ean uralikoz mintzo direlarik edo egiptoarrak III.ean, bereberek VI.ean eta tuniziarrak V.ean guztiek noizbait hizkuntza hamitikoak edota hamito-semitikoak, bederen, mintzatu zituztelarik?

Ameriketako hizkuntzen sailkapena eta lurralde haien populaketa dela bide eman da, zalantzarik gabe, azken dozena bat urteotan izan den eztabaida bero eta interesgarriena arkeologia, genetika eta hizkuntzalaritzaren arteko elkarlanaz

33. Eta berriro 128-129.ean: «Kultur hedakuntza honek euskal-akitaniar gunea hartu du abiapuntu, bertan —gogora dezagun— hominidoen humanizazioa, hots, giza historiaren urrats behinenetako bat eman zelarik. Euskal lurraldeetan —eta, seguruenik, euskaraz— egin zen jauzi koalitatibo hau atzera gabeko gertakaria izan zen, aurrerantzean gizadiak eboluzio-lasterketa azkarragoari ekingo zion. Hizkuntzak, arteak erlijioak, taldeko bizitzak, musikak eta beste edozerk adierazten dizkigute iraultza haren izaera eta jatorrizko sustraiak. Iraultza kulturala izan zen, funtsez, giza historiaren orrialderik ederren eta originaletako bat, noski». Eta kritiko maltzurren bat saihesteko, aurretiaz gaztigitzen digu: «Hau guztia, kulturari dagokionez, behintzat, zibilizazio baten hedakuntzaren froga da. Ez liteke bidezkoa, beraz, —geroago, indoeuparren inbasioak direla eta, arituko garen bezala— konkistaz edo inperialismoaz aritzea; menperakuntza hiztegiko kontzeptu ikaragarri hauek, tamalez, gizadiaren “aurrerakuntzari” buruzko kontakizunetan ohikoak izango badira ere» (128). Ez dakit guztiok garen hain moko fineko “inperialismoaren” eta “zibilizazio hedakundearen” artean bereizteko.

34. «Gentes indoeuropeas son gentes que hablan una lengua indoeuropea y los indoeuropeos son los hablantes de indoeuropeo común. El concepto de indoeuropeo es puramente lingüístico y sólo puede ser referido a una lengua o a seres humanos en tanto que capaces de hablar y en tanto que hablantes nativos de lenguas indoeuropeas» (De Hoz 1999b: 5). Euskal Herrian ere gauzak historikoki antzera batean izan direla dirudi, orain euskaraz ez dakien “euskaldunik” aurkitzen dugun arren hor zehar. Alabaina, indoeuparrek Europa mendebaldera iritsi aurretik han ziren guztiak euskaldunak zirela onartzen ez bada, eta Matisoffen “heliopartenogesi” hertsiren bat (cf. 41. oharra) gogoko ez badugu, badirudi zehaztasun gehixeago bilatu behar litzatekeela kontu hauetan. Nolanahi ere, ikus 85. oharraren akabuan Mitxelenak “euskara batu zaharrari” (De Hozen “indoeupera batua”rekin pareka daitekeen eraikuntzari, alegia) emandako fetxaketa.

eta beren metodoen paralelismoaz zein lekukotasunen askatasunaz. Pena da horri buruzko AM-en berriak horren urri izatea. Greenbergek eta haren lankide zenbaitek hiru giza-olatu ikusi nahi izan ditu Bering-eko pasabidean zehar, gero Kontinente Berrian aurkituko omen ditugun aipatu hiru hizkuntz familiekin eta hauen aitzin-hizkuntzentzat Greenbergek emandako datekin bat egingo luketenak, hain zuzen.

Zorigaitzez, eszenario linguistikoak bere aldetik dituen arazo larri gaindiezinez landa, azken urteotan (cf. Beteman et alii 1990, MacMahon & MacMahon 1995, Sims-Williams 1998) genetikatik eta hortzen analisitik eskuratu uste zen laguntza eta birrespena ezerezean gelditu da: informazio genetikoa —ezertarako argi denean— ez doa bat hizkuntz-mapekin³⁵ eta orobatsu hortzen azterketatikoa; hau, bestalde, ez delarik askea genetikoa. Kronologiari dagokionez, Clovis kultura [-15.000] eta ondoko populaketak —Greenbergen urte horien inguruko eta beranduagoko aitzinhizkuntzekin horren ongi zetozenak—³⁶ ez dira bakarrak ez lehenak: -50.000eko lekukotasunik izan liteke eta 35.000 urte bederen beharrezko jotzen dituzte hizkuntzalariek (cf. Gruhn 1988 eta Nichols 1990) kontinenteko aniztasun eta ñabardura azaldu ahal izateko, Greenberg eta bere aldeko hizkuntzalari urriek ez genetikaren edo arkeologian baizik eta beste nonbait bilatu beharko dutelarik, ahal badute, hizkuntzalaritzazkoak sendotzeko kanpoko laguntza askerik.³⁷

Patrick Sims-Williamsek honela laburtu du arazoa bere arestiko lan berebizi-koan:

To be credible, geneticists —and archaeologists and linguists— need to admit the uncertainty of our knowledge about the prehistory of even so well-known a linguistic family as Indo-European, and to detach themselves from the “Neanderthal Loan-words in Proto-World” school of philology. Geneticists need to be beware of using linguistic and archaeological data as surrogates for ethnic data, and to throw off Primitivist assumptions about the relative simplicity of the past. The chronological ambiguity of gene-frequency maps needs to be reiterated, and apparent correlations of genetic and linguistic data need to be subjected to more stringent tests. Finally, the comparisons which have been made between linguistic and genetic trees should be recognized as flawed in principle and in practice. A convincing synthesis of genetics, linguistics and prehistoric archaeology is still some way off (1998: 525).³⁸

35. Batez ere na-deneari legokiokeen hortz eta gene mapa, cf. Campbell 1986 Laughlin 1986, Szatmary 1986 eta Gruhn 1987, Hamp 1987:222. Hiru migrazioak, amerindiararena, na-denearena eta aleuto-eskimoarena, hurrenez hurren, ez dira batere garbi, gutxiago (batzuek, Laughlinek esaterako, bakarra aski dute) zein gehiago suposa litezke eta, gainera, na-denea eta aleuto-eskimoa beren artean gainerako edozerekin baino hurbilago dira, beharbada diferentzia genetikoa erabatekorik ez delarik. Gogora bedi na-deneak gutxienez txinerarekin eta kaukasierarekin joan behar lukeela (urrutitxo gelditzen diren euskaldunak ahaztu gabe!) eta eskimoaleutiarra indoeuropearekin Greenbergen eurasiar hizkuntz familiaren barnean.

36. AM-ek —lehenago Ruhlenek bezala— txintxo-txintxo «-13.000» jartzen du 25. orrialdeko mapan. Hor bertan «Aipatutako migrazio horiek erabat egiaztatu dituzte paleoantropologiak, arkeologiak eta populazioen genetikak» badiosku ere, ikusi ahalko dugu segidan Ameriketako kasu garrantzitsuan (garrantzitsuagoa AM-entzat beste inorentzat baino) ez dela horrela.

37. Batez ere 1999ko udaran prentsan agertu den Brasilgo -50.000 inguruko giza-hondakin batzuei buruzko berriak zuzenak izatera; are gehiago genetikoki polinesioetarik gertuago bailirateke Bering ingurukoetarik baino.

38. Bateman et alii-k (1990b: 180) esperantza gutxi uzten digute: «Even if evolutionary rates were constant, this would not allow reconciliation of genetic and linguistic histories unless genetic and

5. 49-51. orrialdeetan euskara-akitaniaren “hizkuntz hedapenak” aztertzen edo dira Estornesen paleolito garaiko ibai, mendi eta harriei buruzko lexikoaren bitartez: emaitza ezin hobekak dirudite. Levantetik Afrikara batetik, Asturiastik Galiziara bestetik, Erdialdeko Mendigunetik eta Rodanotik Italiara hirugarrenik, eta are Jugoslavia eta Greziaraino iristen dira hedapen lerroak, Estornesekin batera «aurrehistoriako latina euskara izan zen» (51. or. eta 141.ean errepikatua) esatera iritsiaz.

Ikerlan honetako hizkuntzalaritza eta arkeologiaren arteko koerlazioak europar kontinentearen sorburuez bestelako ikuspegi baten aurrean ipintzen gaitu; euskaltasuna europartasunaren jatorrizkotzat eta euskaldunak kontinenteko substratu indigenatzat (hitzaren adiera sakonenean, hots: biologia-, hizkuntza- eta kultura- alorrean) balioesten ditu ikuskera horrek.

Estornesek zirriborratu hizkuntz kontinente hori noraino zabaldu zen jakin nahian euskarak dauzkakeen ahaide hurkoenetako batzuk —“kaukasiar hizkuntzak” zehatzago— aztertzea iruditzen zaio AM-ri bide zuzenena; lanaren alderdi horri heldu aurretik bada gogoetaren bat edo beste egin beharrik.

Damurik, Estornesen azterketa linguistikoa arkeologo eta hizkuntzalarien artean ez dira famatuak ez famagarriak: Asturiasko *Cubia* ibaiaren izena eusk. *zubi*-rekin edota Orense-ko *Deva* Euskal Herrikoarekin erkatzeak (Estornes 1980-81: III, 219) ez dakit nora garamatzen eta ezta gainerako —itxuraz itxura hobeko— lekukotasun eta historia ezagunik gabeak.³⁹ Bere ondorioak, dela Penintsula Iberikoan, dela handik kanpo, nekez onar litezke inoiz, borondate oneko afizionatu gisa, Estornesek aurretiaz arkeologo eta hizkuntzalariek esandakoaren oihartzunak jaso arren, inongo irizpiderik gabe, hori bai:

8. Los elementos vascos en el pre-bereber se deberían a contactos de los vasquitanos de levante, y aun a irrupciones de nuestros cazadores en el norte africano. Habrían ocurrido en las postrimerías del paleolítico superior en consonancia con la fecha dada por Swadesh y los testimonios de la arqueología (pinturas rupestres de Parpalló). El bereber los habría heredado de su antecesor el mauritano.

9. El contacto con los caucásicos y en particular con el georgiano y circasiano sería mucho más antiguo que el bereber y se debería a la irrupción de los vasquitanos paleolíticos por el centro europeo hacia el medio oriente. El resultado de las tablas de Swadesh parece confirmar este contacto pero lindando a lo puramente fortuito.

10. La situación central del vasquitano paleolítico expansionándose por toda Europa explica las relaciones distintas y sucesivas con pueblos tan distantes como los caucásicos y los bereberes. El vasquitano, antepasado del vasco actual, sería un

linguistic divergence commenced simultaneously [i.e., at the same basal node for all human “populations”]. If genetic divergence predated linguistic divergence, languages are, by definition, polyphyletic [...] There cannot be a single global linguistic phylogeny, and congruence with human phylogeny cannot be fully established, each separately evolved lineaged must be considered in isolation». Wiss & Woolford-ek 3 multzo genetiko balira ere hortik 3 ustezko hizkuntz familiekin bat joatea edota bakoitza migrazio berezi baten ondorio izatea ez litzatekeela frogatua besterik gabe gaztigatzen dute.

39. Cf. Irigoyen 1977. Adierazgarria izan liteke Estornesen (1967: 237) oharra: «Sobre el desarrollo del flexionario vasco publicó P. Irizar un trabajo (...) Ahí se reseñan las diversas teorías que sobre este punto concreto han sostenido conocidos lingüistas. Como puede verse no coincidimos con ninguna de ellas».

núcleo de irradiación lingüístico-cultural en lugar de un receptáculo como lo es el vasco moderno (Estornes 1968: 269).

«Berak erdietsitako informazioa ugari-ugaria izaki, nondik-norako zehatz eta garbiak egituratzen ez zuen asmatuko, beharbada» aitortzen du AM-k Estornesen *Orígenes de los vascos*-ekin duen zorra aipatu ondoren, eta zehaztasun eta egokitasun falta honetan arrazoia eman behar diogu.⁴⁰ Alabaina, datu guztiak onak balira eta egilearen naiftasunak ezer onik erdietsiko balu ere, halabehar hutsez litzateke; hara Estornesen jokamoldearen bizpahiru adibide ekar litezkeen dozenen artean:

Euskera, euskara, eskuera, se analizan hoy, *eusk-era* (modo o lenguaje del vasco) pero originariamente parece una de tantas variante (sic) de vocablos para designar al “lenguaje”. Una de éstas, *izk-era*, se acerca mucho a *esk-ara* (AN), “vascuence”. De comprobarse esto habría significado primeramente “lenguaje” contra “baboseo” u otra idea despectiva relativa a *erd-ara* (22).

Cuando dos palabras de la lengua, no relacionadas formalmente, signifiquen la misma idea, optaremos por la que se explique en el seno del sistema léxico y ofrezca componentes de valor más primitivo. *Esteka-tu* y *josi* “coser” no ofrecen duda. La primera puede ser coser con “intestinal” *este*, “prieto” *estu* y la segunda ofrece una sospechosa semejanza al español *coser* (24).

El euskera se intensifica y densifica a costa de la diferenciación dialectal que se acentúa. Pero, diferenciación, es siempre signo de progreso y de integración a pesar de parecer a las mentes miopes todo lo contrario, las fuerzas vivas son siempre diferenciales, las fuerzas de la inercia conducen siempre a la disgregación que se hace visible en lo uniforme y promiscue (sic). El dialecto, mientras cumple con su función, es un vivero de sinonimia y de distinción semántica. Y distinción mental, es tanto como clarificación, afinamiento de la percepción, engamado de puntos distintos de vista. Los dialectos vascos parecen ser anteriores a las invasiones arias (249).⁴¹

40. Cf. «Greenberg (1989: 112) stated ‘although I have exercised great care, it would be miraculous if, handling such a vast amount of material, there were no errors of fact or interpretation’. Adelaar (1989: 253), a specialist on Quechua, responded: ‘if one looks at the quality of the data Greenberg presents... the number of erroneous forms probably exceeds that of the correct forms’» (Dixon 1997: 34, 2. oh.).

41. Oharrerako uzten dut ondokoa: «Se ha comparado al vasco con todas o casi todas las lenguas del mundo con resultados más o menos positivos según el grado de entusiasmo de cada autor por sus tesis respectiva. En realidad, casi todas las afinidades enunciadas hasta hoy, tienen bases endebles o injustificadas. No obstante, hay dos cosas que retener:

1) *El Vasco es de tipo fuertemente sintético, lo que quiere además decir, que muchos rasgos de otras lenguas se hallan en él embrionariamente pero, casi siempre, desarrollados. Calificaríamos por este solo hecho al vasco como una lengua troncal. De ahí muchas de las afinidades reales o supuestas.*

2) *El Vasco se aleja, en su lógica lingüística, en su modo de denominar y concebir las cosas, de las lenguas de amarillos y negros, tanto como se acerca a las lenguas de la raza blanca. Es, indudablemente, una lengua occidental, aunque su infancia haya podido transcurrir en tierras del otro lado de los Urales pero fuera, al parecer, del mundo chino-mongólico-japonés.*

Con esta pequeña introducción nos parece que podemos ya entrar en materia tratando de descubrir los secretos que celosamente nos guarda atesorados el *Euskera*. Huiremos, tanto del excesivo aparato científico, como de la terminología que solamente la comprenden los que están habituados a los análisis lingüísticos. Al fin y al cabo, nuestra actitud, más de historiador que de otra cosa, nos obliga a ello» (15; badaezpada ere, letra etzana Estornesena da).

Gero bere ikasleak legez, Estornesek artearen sorrera eta hizkuntzarena lotzen zituen:

El gran desarrollo del euskera no ha podido lograrse sino en una época de esplendor[,] ocasión que después no se presenta jamás. Si las pinturas maravillosas de Altamira y sus similares no se hubieran conservado, nunca el hombre hubiera sospechado su posible existencia. Con la lengua debió de ocurrir lo mismo. El que pueblos primitivos actuales sean portadores de lenguas rudimentarias no dice nada. El pueblo creador de la pintura y el grabado pudo y debió crear una lengua preciosa (1980-81: III, 103).^{41b}

Datazioari buruz ere zalantza gutxi zuen: «El euskera es lengua paleolítica» (1980-81: III, 102), hortara baitzeramaten *haitz-en* eratorriak, ez bakarrik euskarazkoak, gazt. *hacha*, arag. *estral*, fr. *hache*, ing. *adze*, alem. *axen* eta beren aldaeretan ere euskal erroa baitzekusan. Alabaina, argudio hori onargarria balitz, berdintsu esan ahalko litzateke zenbait hizkuntza indoeuroparretako formekin Gorrochateguik (1999: 21) erakutsi duenez.⁴²

17. orrialdean Tovarri jarraiki⁴³ K.a. V. menderako (edo beste garairen baterako) euskararen “mendebaldeko ertza” Galiziaraino darama AM-ek, beharbada oinarri handiegirik gabe. Egia da Tovar 1951an «elementos toponímicos vascos acreditan que hace tres mil años esta lengua u otra afín se extendía por los montes y valles de Santander y Asturias» esatera iritsi zela (1959: 93), nahiz eta *Güeñes* izenaren mendebalderagoko kidesun hutsetan oinarritu. Dagoeneko 1981erako, aspaldiko sukarrak igarota edo, hara zer zioen:

Estudios de la toponimia hechos con mayor rigor presentan formas que posiblemente se pueden relacionar con el vasco en territorios situados al oeste del actual territorio euskaldun. Yo intenté encontrar algunas formas en el país de los cántabros y de los astures, y más recientemente M^a Lourdes Albertos ha llamado la atención hacia nombres personales que parecen típicamente vascos, como un Ibarra en una inscripción romana de Portugal. Pero se puede afirmar que quizá ya al Oeste mismo de la Ría de Bilbao el establecimiento de pueblos de habla indoeuropea cambió la lengua del país quizá desde comienzos del milenio I a. C. Quedan hacia el Oeste restos de tipo vasco, y sin duda no todos reductibles a las colonizaciones que hubo con vascos en la reconquista cristiana, pero estos restos no son numerosos ni muchas veces muy seguros. En cambio hacia el Este, todo a lo largo de los Pirineos, sí tenemos toponimia vasca claramente tal, lo cual se debe a que la lengua resistió más en esta parte (1981b: 9).⁴⁴

41b. Definizioak eta neurriak ez dira ugari ez hemen eta ez Estornesen beste pasarte anitzetan; ikus 30. oharrean AM-ek Estornesengandik hartutako ideia hauei emandako moldaketarako. Bistan da “urrearoren” ideia amateur hedatuari nola lotzen zaizkion hizkuntzarekiko ardura garaikideak.

42. Matisoffek dioenez (1990: 114-115) gutxienez zazpi teoria diferente aurkeztu dira japonieraren jatorriaz; horietarik lehenak ez ote “paleolitiko euskara”renarekin antz poxiño bat?: «1. *Helioparthenogenesis*. The Japanese people descend from the Sun Goddess and were dropped down onto the Japanese islands along with their language at the beginning of time».

43. Tovarren lan zaharrenei, hobe, segidan ikusiko dugunez; AM-ek —beti bezala— ez du erreferentzia zehatzik ematen.

44. «El país de lengua vasca tenía casi los mismos límites que el actual, por el oeste (?), el norte y el sur, ya en época romana, extendiéndose hacia el este más que ahora, hasta la provincia de Lérida. La toponimia o estudio de los nombres de lugar confirma estas conclusiones y relega al terreno de la

Santanderretik mendebalderantz (eta ekialderagotik, esaterik bada) euskal arrasto gutxi izateaz landa, bertako erromatar aurreko hizkuntz lekukotasun urriek hizkuntza indoeuoparren bat hitz egiten zela baitioskute berezilarien ustez:

Volviendo al problema de los cántabros, ya hemos dicho que su onomástica es la misma que la de otros pueblos de la Península de los que tenemos datos que nos permiten asegurar que hablaban lenguas indoeuropeas, pero cuyos nombres tienen orígenes diversos y constituyen un patrimonio común interlingüístico. No podemos por lo tanto sacar de aquí ninguna conclusión segura sobre lo que los cántabros hablaban, y las afirmaciones generales de los historiadores antiguos apuntan más a una clasificación etnológica que lingüística. De ahí que las opiniones de los investigadores modernos sean contradictorias. Personalmente creo que la total preponderancia de los nombres indoeuropeos, que aparecen además sin modificaciones ni adaptaciones a diferencia de lo que ocurre con los pocos elementos supuestamente indoeuropeos en el área ibérica, aconseja considerar a los cántabros como hablantes de una lengua indoeuropea, siendo imposible precisar si ésta era céltica o no (De Hoz 1981: 35).⁴⁵

Hurbilagoetarako Gorrochategui (1984 eta ondoko lanak) zuen iturri segurua-goa, Luchairek joan den mendean hasi eta oraingoan Corominasek zabaldu ikerketekin batera;⁴⁶ ez bata ez besteak ez du arrastorik utzi AM-ren bibliografian ez testuan, ordea.

18. orrian «euskara inguruko hizkuntzez arrunt bestelakoa» dela diosku; alabaina, horren “bestelakoa” ote zen iberiera? (cf. Lakarra 1996 eta, batez ere, De Hoz 1999). Ba ote, gainera, AM-k beharrezko lukeen “bestelakotasun”-aren neurririk? Ohar bedi, izatekotan, lehen glotokronologian “berdintasun” neurriaz kausitu bezala, hemen ere ez okulista frogak baizik eta hizkuntzalaritzatik datozen frogak beharko liriatekeela... eta segur naiz hizkuntzalarientzat ustekabe ederra liriatekeela “desberdintasun frogak”. Nolanahi ere, ez ditzagun nahas hipotesi genetikoak deuseztatzea (euskara eta iberikoaren artekoa, demagun) eta familia

hipótesis no muy bien fundada la teoría de la gran extensión del vasco en la España primitiva (Humboldt), o no ofrece sólida base a la teoría —por otra parte muy atractiva— de que el vasco pertenezca al sustrato más viejo de toda la Europa atlántica (E. Lewy)» zioen 1954an (*La lengua vasca*, Donostia, 2. arg., 10. orr.). Bere azkenengo lanetarik batean «Galicia es una de las tres zonas peninsulares, con Celtiberia y con la extensión de los celtíberos al Sur de Portugal y a la Beturia, donde hallamos atestiguados históricamente celtas [...] El estudio de la toponimia gallega, el de los nombres de dioses, y ciertas etimologías, a veces muy diferentes, pero en conjunto impresionantes, confirman la importancia del elemento céltico. [...] La lengua euskera se extendía también hacia el Oeste, y si es cierto que como ocurre con los vascones, en las partes meridionales del territorio de estas otras tribus (várdulos, caristios, autrigones), las inscripciones romanas ofrecen nombres indoeuropeos, no se puede dudar de que el vasco se extendía por la costa y por las montañas hasta el Nervión, y antes, más allá» dio (1987: 21 eta 24), “antes” eta “más allá” gehiago zehaztu gabe.

45. «es no sólo posible sino probable que hablantes de una forma antigua de indoeuropeo, aterior al estadio del que toman sus raíces las lenguas indoeuropea históricamente atestiguadas, hayan penetrado en Europa sudoriental en fechas remotas» eta «es significativo que en muchos de estos casos la expansión de la lengua o lenguas indoeuropeas en cuestión se haya realizado a costa de otras lenguas igualmente indoeuropeas» irakur liteke De Hoz 1999b-n, (10) eta (25), hurrenez hurren. Cf. Kitson 1996, eta Villar 1991 eta geroztiko lanak “europera zaharraz”; zorigaitzez AM-ek ez du hizkuntz estrato honetaz inongo gogoetarik.

46. Komeni da ez ahaztea, halere, Untermannek (1999) Corominasen obra onomastikoaz egindako ohar kritikoez.

diferenteko partaidetzaren frogak onartzea (euskara-na-denearena edota ibero-hamitikoarena, esaterako).

47-48. orrialdeetan akitaniera eta iberieraren artean lehena hautatzen da euskararen ahaidetzat 100-200 hitzetatik 30 edo berdinak omen direlako; euskara-iberiko hipotesia ideologikotzat jotzen delarik, EH Espainian integratzeko asmoaren hondar, azken-finean. Alabaina, ez da zehazki hori akitaniera euskararekin lotzeko hizkuntzalariek duten arrazoi bakarra, ezta nagusia ere. Konturatu ote da AM Mitxelenak eta Gorrochateguik —joan den mendean Luchairek ireki bidetik— erakutsi dituzten akitaniera eta beranduagoko euskararen arteko $-N- > -n-$, $-n- > -\emptyset-$, edota $V_1 > V_1$ erregelez? Konturatu ote da, orobat, euskara historikoan dokumentatzen ez den morfemaren baten aurrean ere izenen bat (*Abisunhari*, demagun) eusko-akitaniararena⁴⁷ den edo ez erabaki ahal dela, ez soilik batean *eta* bestean (aldaketa handiegirik gabe, gainera) errepikatzen direnen (*Cison*, *Nescato*, *Sembe...*) kasuan? Ez gara, bada, “antzekotasun” amorfo ugari edo urriaz ari, homologia hertsiez baizik.⁴⁸

Ez da pasarte oso garbia ondoko hau:

Euskara-akitaniararen arteko lotura, aldiz, genetikoa da, hots, (egungo Euskal Herrian oraindik ere bere hartan dirauen) euskal substratuaren gainetik jardun zuten elementu zelten inbasioaren ondorio litzateke akitaniera. Mundu zeltarekin harremanetan sartu aurretik, akitaniar biztanleria euskalduna izan zen, beraz; horregatik ari gara paleolitoz geroztik bizi izan zen mundu euskal-akitaniarraz hitz egiten (AM 49).

“Aurretik”, eta ondoren ez ala? Euskara eta zeltaren arteko hibridazio prozesuren bat ote du egileak buruan? Eta are “garbiago”:

Ibai huraxe [Garona] izango zen aurrerantzean euskaldun eta galiarren arteko bereizketa eta Euskal Herriaren muga berria, horrenbestez. Konkistan harturiko lurraldeetako hizkuntza —akitaniar— zelteraren eta euskararen hibridoa izango da, eta haren arrastoak gaur egun ere hauteman daitezke (AM 102).⁴⁹

Akitaniar, edozein hizkuntzalarirentzako (eta gai honetan horiek agintzen dute) ez da Garona, ozeanoa eta Auñamendi bitartean Zesarren garaian hitz egiten zen hizkuntza ez-indoeuropar euskararekin genetikoki lotua baizik. Horren corpuseko (izenetan!) izan litezkeen morfema zeltek (eta latinetikoeak edota iberikoeak, cf. Gorrochategui 1984) —*Attaio-rigis*, *Condann-ossi* nahiz *Andossius*, *Bambiolus*, etab.— ez dute hizkuntzaren nortasuna aldatzen.

47. Izena De Hozek (1999b: 3) eta bestek azken urteotan zabaldua da, agian justifikazio gehixeago beharko lukeelarik.

48. Honek ez du kentzen hizkuntzalarientzat antzik gabeko erregularitasunak froga haboro ematea 27. oharrean erakusten den bezala.

49. Pasarte honen aurretik (101) datorrenak “usaintxoia” du: «Iberiarrek —la Iberiar Penintsula osoa okupatu zutelarik— iparraldetik etorritako zeltekin bat eginik, (frankismo garaiko eskola-entziklopedietako usai garbia, alegia) “zeltiberiar herri” izenez ezagutzen den mestizaia (!!) moldatu zuten. Herri hau, ordura arte euskal-akitaniar omen ziren Galiziaz eta Asturias-Kantabriaz jabetu zen»; agian parra egiteko, testukoaren ondotik datorrena ere ez da txarra: «Makina bat herri harrapatu eta suntsitu zituen erasoaldiaren gordina gorabehera, Euskal Herriak buru eginik, zutik eta bat irau du [...]» (102).

Bestalde, euskara-iberiarra ez ote zen lehenago “Antigua Lengua de las Españas” eta “De la Universalidad y Antigüedad de la Lengua Vasca” legez aurkeztu? Hots, kantabrismoarekin eta beste zenbait mito gehiagorekin euskaldunen —euskaldun batzuen— lehentasuna Erreinu barruan sendotzera zetorrena. Ez ote ginen, bada, gu geu benetako espainiar bakarrak, enparatuak erromatar, goto, mauru, judu eta bestelako kasta eskasagoekin nahasiak zirelarik, Larramendik *Corografía*-n gipuzkoar ezkongaien gurasoei gogoratzen zien legez? 20. mendean sabindar mitologia hedatzerakoan aurreko honek abertzaleen artean lekuri ez izateak ez dakar Humboldt, Schuchardt, Menéndez Pidal eta beste zenbait “espainolistak” asmatutzat —eta Vinson bezalako txobinistek gaizki ikusitzat— jotzea. Oraingo Del Cerro, Alonso eta beste argitu batzuek ere hizkuntzazkoak ez bide dituzte aldatuko: ez alde batera eta ez bestera, prentsaren zati jakin batek unereren batean eman laguntza gora behera.⁵⁰

AM-k lagun hartu dituen Renfrew eta Gimbutasek indoeuroparren aitzin-aberriaz eta herri horien oldeen kronologiaz dituzten uste aski kontrajarriak (Anatoliatik Balkanetan zehar 6.000-4.000 bitartean batarentzat, Ukraina aldetik 3.400-2.900 aldera bestearantz) ez dira arazorik gabeak beren eskema arkeologikoak hizkuntzalaritzarekin bateratu nahi direnean azken urteotan argiro ageri den bezala. Gure artean Gorrochateguik Renfrew-ri egindako iruzkinean (1993) erakutsi zuenez, indoeuropartzea hark nahi legez neolitizazioarekin bat bazihoan, zergatik ez zen indoeuropar bilakatu Finlandia, Ertasia edo Kaukaso? Edota indoeuropartze goiztiarreko Europaren hegoaldean zergatik iraun zuten etruskerak, retikoak, iberierak, tartesierak, euskarak eta ligurak, gutxienez, eta ia indoeuropa-rrik gabeko iparraldean soilik dugu Eskoziako pikteraren aditzea? Bestalde, -6.500 aldera indoeuropar bilakatu omen zen Grezia aldeko toponimia ez-indoeuroparrak ere ez du batere laguntzen Renfrewren teoria. Orobat, nola izan liteke mendebal-deko grezieran eta ekialdeko indoiranieran eta armenieran berrikuntza berberak izatea eta ez, aldiz, haien tartean ageri diren hizkuntza anatolikoetan? Soilik hizkuntza hauek enparauetarik lehenago bereizi balira aitzinhizkuntzaren jatorrizko kokagunetik historikoki aurkitzen ditugun lurralderantz mugituaz.⁵¹

Kitsonek (1996b) Gimbutasek Pontiko aldeko estepako Kurganen alde egindako proposamenaren aurka bildu dituen hizkuntz argudioak ere kontuan izatekoak dira hizkuntzalaritzan oinarria duen “indoeuropar arazoan”. Gorrochateguik Renfrewren liburuaz dioenez (1993: 1019)

El libro pretende dar una solución arqueológica (...) a un problema eminentemente lingüístico, cual es la extensión geográfica considerable de las lenguas indoeuropeas históricas a partir de un núcleo originario mucho más reducido (en el que debió de hablarse la lengua común, llamada indoeuropeo, de la que derivan las que encontramos en registros escritos desde el ca. 1600 a.C. hasta nuestros días). Digo que el problema es eminentemente lingüístico, porque a la lingüística compete establecer las relaciones de parentesco entre determinadas lenguas (...) así como

50. Prentsa “herrikoiak” edo sentsazionalistak Greenbergen eta jarraitzaileen ideiei egindako oihartzunaz ikus Dixon 1997: 43-44 eta Campbell 1998: 311.

51. Ikus Gorrochateguiren lana Renfrewren teoriak hizkuntzazko argumentazioaren aldetik dituen hutsune larrien kritika argi baterako.

emitir hipótesis acerca del aspecto del indoeuropeo: lengua originaria común de la que proceden las lenguas históricas, que no está registrada por escrito, pero cuyas características estructurales más notables pueden ser reconstruidas por medio de unos métodos muy precisos a partir de la valoración de las relaciones lingüísticas existentes en las lenguas históricas, a cuyo constructo se le denomina “proto-lengua”.⁵²

Badira zenbait animalia-izen indoeuropearazkotzat jo litezkeenak eta estepan nekez espero litezkeenak; alderantziz, badira ezinbestean estepako kultura batean itxadon ditzakegunak eta aitzin-indoeuropeararako ezin berreraiki ditzakegunak. Antzera aspalditik aztertu diren zuhaitz-izenekin ere. Gainera, Krahe jarraituaz “euopera zaharra” deitu ohi den ibai-izenen azterketak ere ez du estepa laguntzen jatorritzat: Rin-etik Don-era eta Alpeen eta Karpatoen iparraldeko hidronimoak egitura jakin batekoak dira eta ez da zalantzarik inguru horietan historikoki aurkitzen ditugun hizkuntzak baino zaharragoetarik —haien eta indoeuropear batuaren artekoetarik edota hartatik bertatik— sortuak direla esateko.⁵³ Hots, indoiranioan eta hititan ere aurkitu izan da hidronimia honen oihartzunik edota mendebalderagokoaren puntu ilunen azalpenik, eta ez da pentsatzekoa, Gimbutasi komeniko litzaiokeen arren, Erteuropearantz dagoeneko bereizitako hizkuntza eta tribuen beranduko berrikuntza denik; aldiz, badirudi datu hauek eta beste zenbaitek —lehen aipatu animalia eta zuhaitz-izenek landa uralikoan diren mailegu indoiranioek, esaterako— indoeuropearren aitzin-aberria Europan bertan (Alemania-Polonian) kokatzea laguntzen dutela.⁵⁴

Eta indoeuroparrak Asiatik baletoz ere, soilik azken finean letozke handik, mendebalera iritsi aurretik Europa ekialdean pausaleku zenbait zituztelarik, jakina. Indoeuropartze fenomenoan larriena AM-en eta bere iturrien pentsamenduan ez da soilik herri horren batasun eta homogeneousitasun genetiko eta linguistiko ordurako aski pitzatua,⁵⁵ baizik eta haiek aurkitu omen zutenaren batasun eta homogeneousitasuna. Izan ere Kalifornian edo Ginea Berrian garai modernoetan aurkitutako aniztasuna ez ote sinesgarriago?

52. Gure alorrean “euskaro-akitanoa” eta “aitzineuskara” horko “indoeuropeo” eta “protolengua”-ren ordezkirak beharko genuke, gainerakoak (corpusaren fetxa izan ezik, zorigaitzez) bere balio osoa gordetzen duelarik.

53. Azalpen estandar hori onartu beharrean Vennemannek (cf. 1994, 1997 eta 1998) hidronimia horretako hizkera ez indoeuropea baizik eta “Vasconic” delakoa, hots, euskararen eta beste hainbat kide galduren jatorri litzatekeen izozte ondoko (-10.000) hizkuntzaren hondartzat du. Damurik, iruzur eta asmaketa gehiegi egin beharra du Vennemannek ondorio harrigarri horietara iristeko, nahiz indoeuropeararen aldetik (ikus Villar 1991/96 eta, batez ere, Kitson 1996a) nahiz euskararenetik (cf. Lakarra 1996). Itxura batean AM-ri teoria hau komenigarri gertatuko litzaiokeen arren, berak ikusiko, ez dakit euskara eta iberikoaren arteko lotura genetikoa “null hypothesis”tzat jotzea gustatuko litzaiokeen (cf. Lakarra 1996).

54. Lehen 8. oharrean esandakoa osatzeko, interesgarri begitantzen zait ondoko pasartea: «Most American linguists seem to have believed Gimbutas. Her Model is taken for granted in assumptions about west European substrates [...] A scholar on the British side of the water has contemplated this over the last twenty years with increasing incredulity; for almost all the assertions quoted in the last paragraph are disbelieved by almost all British archaeologists over the same period» (Kitson 1997: 199) eta baita ondoko oharra ere: «Perhaps I may be permitted to quote an obiter dictum of Professor Gamkrelidze at Rydzyna, that he does not think a single Russian archaeologist believes in Gimbutas's theories. Diakonov (1990: 58) voices a similar thought more restrainedly» (1990: 224, 62. oh.).

55. Cf. «Es obvio que quienes indoeuropeizaron Europa no eran gentes ni racialmente homogéneas ni que eliminasen a otras razas anteriores» (De Hoz 1999b: 25).

6. Ikusi dugunez (§ 3 akabuan), hizkuntzalaritza historiko estandarraz etsirik AM-ek «metodo lexiko-estatistiko edo glotokronologikoa» jartzen digu mahai gainean (53 hh), hala-holako definizioa emanaz eta euskararen ahaidetasunak argitzeko asmotan egin zen aplikazioa gogoratuaz.

Nola bilatu, ordea [euskararekin lotura izan zezaketen beste hizkuntza batzu]? Elkarren ondoan konparatzeko hizkuntza bat baino gehiago bagenitu, hiztegiak konpara genitzake: hiztegien alderdi jakin batzuk, zehazkiago, arrunt iraunkorrak direnak, denborak joan ahala bere hartan aldatzeke jarraitzen dutelako; hala nola zenbakiak, pertsona-izenordainak, naturaren gorabeherak adierazten dituzten hitzak, etab. Honek guztiak, hizkuntzen arteko ahaidetasunari buruzko informazioa eman ez ezik, denbora iragan ahala ahaidetasun horrek nolako bilakaera nozitu duen ere jakinaraziko liguke. Elementu hauekin diharduen hizkuntz metodologia, glotokronologia da (46).⁵⁶

Swadesh eta gainerakoen “oinarrizko lexikoa” osatzeko aipatzen diren kategoria lexikoen artean badira zenbait zehaztu beharko liratekeenak —zenbakietan soilik txikiak, demagun— eta beste zenbait gehitu beharko genituzkeenak —ekintza ohiko eta arruntei buruzko aditzak, kontzeptu kulturalak adierazten ez dituzten izen eta adjektiboak, etab.— (cf., halere, Haarman 1990 eta Campbell 1998 horren balioaz). Bestalde, nola hartu behar da “ahaidetasun bilakaera” delakoa? Gutxitu edo gehitu —edota bere izaera aldatu— egiten dela uste ote? Esango nuke glotokronologiako bibliografian honako hau berrikuntza bat dela eta AM-k gehixeago azaldu eta arrazoitu behar zukeela aitzinamendu garrantzitsutzat jo genezan.

1961ean Tovarrek (Bouda, Lafon, Mitxelena, Vycichl eta Swadesh-en ohar eta laguntzarekin) argitara eman zuen euskararen konparaketa ikerketetan eragin larria izan duen lana: “El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence”, *BAP* 17, 249-281. Bertan, Swadesh eta beste zenbait hizkuntzalarik II. Mundu Gerra ondoren metodo historiko-konparatuarekin umezurtz gelditzen ziren hizkuntzentzat prestatua egokitzen zitzaion euskarari, «no por simple afán de novedades, sino con el deseo de experimentar en un campo más el método, y de contribuir con ello al problema de la situación lingüística del vasco» egileak zioenez (Tovar 1961: 250). Ameriketako hizkuntzen historiaurre luzeetan (gero baita Ozeania, Afrika eta Asiakoetan) testu zaharrik gabe —inoiz ez leku-kotasun zaharrik eta ez berriagorik— barneratu eta haien arteko hausturaren kronologia absolutua lortu nahian prestatua dugu glotokronologia. Tovarrek bi aldetatik ikusten zuen metodo berriaren garaipena ohiko metodo konparatuaren gainetik:

56. Ross-ek eta Durie-k (1996: 4 hh) metodo konparatuarekin nahasi diren zenbait ideia oker aipatzen eta iruzkintzen dituzte, horietarik bigarrena glotokronologia delarik: «The second misunderstanding confuses the comparative method with the techniques of lexicostatistics and glottochronology. Lexicostatistics is the use of the percentages of assumed cognates (that is, items in related languages which are directly inherited from a common ancestor) shared by pairs of languages on a standard word list to arrive at a ‘family tree’ of those languages [...] the lexicostatistical method is different in both practice and principle from the comparative method (despite occasional claims by lexicostatisticians that they are practising the comparative method [...]). Atal honetarako ikus Lakarra 1997b, eta metodo konparatuarekin egindako beste nahasketa batzuetarako zehazki ikus lan horretako 13. oh.

Las limitaciones del método histórico-comparativo se hacen sentir en dos direcciones: en primer lugar porque es incapaz de darnos una cronología absoluta, y en segundo, porque sólo sobre la base de una fonética histórica bien elaborada cabe establecer comparaciones. Por otro lado, el método histórico tiende a representar la etapa “primitiva” o “común” como algo fijado y estático casi “anterior a la historia” (Tovar 1961: 251).

Glotokronologiaren oinarrian hizkuntzek bereizko duten aldaketa genuke; hots, aldaketa horren erritmoa garai eta hizkuntz tradizio diferenteetan berdintsua litzateke 100 edo 200 hitzetako oinarritzko lexikoan (%20tsu milurtekoan) eta, hortaz, hori erabili az hizkuntzen etena fetxatu ahalko. Tovarrek berak aitortu bezala, “konparaziogaia” erabat aldatzen da: «El término “comparación” adquiere así un valor completamente nuevo y distinto del que tiene en el método histórico basado en la aplicación de las leyes fonéticas» (1961: 254). Tauletan %4ean edo kalkulaturako halabeharra baztertzeko, CVC baino antzekotasun txikiagoak —erakusleetan salbu— kontuan hartu gabe ere, ondoko formulak bihurtzen du fetxatan ikusitako antzekotasunen kopurua (Tovar 1961: 254-5):

$$t = \frac{\log C}{2 \log r}$$

Irizpideok euskarari ezarri aurretik beren mugak aitortzen ditu Tovarrek:

Las limitaciones en la aplicación del método léxico-estadístico son grandes. El método histórico-comparativo puede asegurarnos de parentescos allí donde el método léxico-estadístico sería mudo. Ejemplos brillantes son las equivalencias etimológicas ciertas, pero invisibles, entre al. *kommen* y port. *vir*, al. *voll* y port. *cheio*. Y por otro lado el método estadístico, en lenguas de historia fonética desconocida, no es capaz de eliminar semejanzas aparentes pero demostradamente falsas, como al. *haben* y lat. *habere*, fr. *feu* y al. *Feuer*, ing. *much* y esp. *mucho* (1961: 257-8).

Egindako kritiken artean aldaketa erritmoaren iraunkortasunari buruzkoak eta antzekotasunen artean jatorri bera izateari eta halabeharrari zor zaizkionak ezinbereizia iruditzen zaizkio garrantzitsuen; azken hauei dagokienez, Europa aldean aurkitzen diren antzekotasunak ez antzinako jatorri bakarrari baizik eta bi hizkuntzak (euskarak eta bereberak, demagun) hondar amankomun batetik jasoak. Bestalde, bere ideia kutun bati jarraiki, hizkuntza guztiak mixtoak izaki (hitzez hitz esaten du hauxe 261.ean)⁵⁷ metodoaren egokitasun kronologikoa hondatu arren ez du uste hainbeste gertatzen denik ahaidetasunarekin. Hara emaitzak:⁵⁸

57. Cf. «Hipotéticamente, cabe suponer que el bereber sea, en este ejemplo, una lengua mixta de elementos orientales camíticos y de elementos euroafricanos occidentales que podría hallarse en el vascuence. A su vez la lengua vasca, podría ser una lengua mixta de elementos africanos, que tiene en común con el bereber, y de elementos euroasiáticos, que pueden pervivir en lenguas caucásicas u otras. Ello compromete sin duda la validez cronológica del método, pero no la medición estadística de los parentescos» (Tovar 1961: 258).

58. Bakarrik euskara biltzen duten pareei dagozkienak ezartzen ditut labor beharrez; gainerako hizkuntzen konbinaketei dagozkienetarako jo bedi Tovarren laneko 259-260 orrialdeetara. Zenbakiak Swadeshen tauletako kognadoei dagozkie (izartxodunak taula laburrekoei, besteak zabalekoari) eta zalantza marka dutenak ez dira portzentaiak eta bestelako ondorioak ateratzerakoan erabili (Tovar 1961: 259, 22. oh.).

<i>Hizkuntz bikoteak</i>	<i>Antzeko hitzak. Zerrendak</i>	<i>Antzekotasun %</i>
eusk.-txuktxiera	18, 32, 57, 68, 72?, 90?, 123*, 131*?, 144*	2'08 edo 2'17*
eusk.-zirkasiera	9*, 20, 22, 24*?, 27*, 58, 76*, 83?, 89*, 100*, 104*, 137*, 149*, 173, 185, 190?, 191?, 197	6'62 edo 7'52*
eusk.-avarera	9*, 17, 24*, 27*?, 32, 89*, 94*, 111?, 185, 209*	3'8 edo 5'37*
eusk.-georgiera	12?, 24*, 27*?, 39*?, 54*, 76*, 89*?, 93*, 103, 115*, 121*, 146*, 187, 206, 215*	4'73 edo 7'52*
eusk.-bereb.(Rif)	1*, 12?, 24*, 34, 39*, 81*, 119*, 121*, 141*, 159?, 165, 168*, 172*, 173, 191?, 195?, 207*	6 edo 9'67*
eusk.-bereb.(Sus)	1*, 2*, 4*, 12?, 24*, 34?, 61?, 64?, 81*, 119*, 120, 121*, 172*, 173, 174*, 191, 195, 207*	7'38 edo 10'86*
eusk.-egipziera	1*, 61, 74, 97, 207*, 213	3'35 edo 2'29
eusk.-koptoa	1*, 7*, 22, 55*, 60, 61, 130*, 176*, 191, 207*	5'18 edo 6'59*
eusk.-arabiera	1*, 18, 60, 61, 72, 146*, 160, 163, 191	4'9 edo 3'26

Hauek eta gainerakoak «hurbileko ahaidetasuna», «aski hurbilekoa», «urrutikoa», «litekeena» eta «egiantz gutxikoa» multzoetan sailkatzen ditu; soilik Rifeko eta Suseko berebereak dira lehendabizikoan eta hizkuntza hamito-semitikoak batetik eta Kaukasoko zenbait bestetik, bigarrenen. Euskararekikoak oro «urrutiko» (eusk.-zirkasiera, eusk.-georgiera, eusk.-berebera, eusk.-koptoa), «litekeenak» (eusk.-avarera, eusk.-arabiera) edo «egiantz urrikoak» (eusk.-txuktxiera, eusk.-egipziera) dira.

Hara Swadesh-Tovarren taulak (1961: 255) goiko portzentai horiek kronologia absolutuetan bihurtu ahal izateko:

Mendeak	Gordetako %	Mendeak	Gordetako %	Mendeak	Gordetako %
5	86	65	14	125	2
10	74	70	12	130	2
15	64	75	10	135	2
20	55	80	9	140	1
25	47	85	8	145	1
30	40	90	7	150	1
35	35	95	6	200	0'2
40	30	100	5	250	0'05
45	26	105	4	300	—
50	22	110	3,6	350	—
55	19	115	3		
60	16	120	3		

Beste era batera:

%	<i>erlazioa</i>	<i>mende banaketa</i>	<i>sailkapena</i>
100-81	elkar ulertu (dialektoa)	0-5	hizkuntza
81-36	argia, berezilari izan ez arren	5-25	familia (errom., germ.)
36-12	konparatistak ikustekoa	25-50	enborra (IE, semit.)
12-4	antzekotasun urriak	50-75	mycrophylum
4-1	antzekotasun oso urriak	75-100	macrophyllum

Alabaina, zenbaterainoko fedea jar liteke Tovarren ondorioetan? Euskarari bilatutako kognado guztiak eta horien ondorioak hizkuntzaren erlazio genetikoe-tarako beste lan baterako utziaz, Lakarra 1997b-n bereberarekikoez ohar zenbait egin dut, izan ere bera aurkezten baitu Tovarrek euskaratik hurbilen. Hara segidan S(useko) eta R(ifeko) bereberarekin euskarak izandako ustezko kognadoak (soilik Tovarrek goiko zerrenda numerikoan segurutzat emanak ezartzen ditut, kalkuluak ere horien gainean egin baitira).

	<i>Eusk.</i>	<i>Berebera</i>	
1.	ni	S. nekk(i), nekki:n;	R. nes, nis
2.	i	S. kiyin, kiy	
4.	gu	S. nekn: f. nkwenti	
24.	au	S. γuad;	R. wa
34.	itzuli		R. emγulii
39.	etzan		R. zen
81.	izar	S. ayris	R. izri
119.	emakume	S. tamγart	R. tamγart, tamettut, tisedent
120.	aur	S. arrau	
121.	gizon	S. argāz	R. argaz
165.	negar egin		R. seγoi
168.	beltz		R. abersan
172.	ori	S. aurag	R. awareγ
173.	zaar	S. assar	R. awessar
174.	legor	S. γar	
191.	ama	S. γimmi	
195.	soka	S. iziker, asγun	
207.	izen	S. isem	R. isem

Iruzkina.

(1) Oso ahula da: *-i* dugularik 2. pertsonan ere (eta *-u* pluraleko lehen bietan) *n-* hutsa gelditzen zaigu; VC genuke **en-* batekin arituaz (cf. *ene, eni*).

(2) Ezerezean gelditzen da (1)en iruzkinaren ondoren: **khi* batetik abiatuaz ere soilik C- genuke.

(4) Kognado segurutzat izatea harrigarria da; aurreko sarreretan esandakoaz gainera, nabarmena da bereberez singularraren gainean eratua dela.

(24)-an *haur*-etik (< *Kaur*) abiatu behar dugu, honela CVV edo genukeelarik. Alabaina *-ur* amaiera bereizi ahalko bagenu CV baino gutxiago geldituko litzaiguke.

(34) Itxuraz hobetu egiten da **e-* batetik abiatuaz, baina hori aurrizki bat dugu; VC (*-ul*) baino ez zaigu erroan gelditzen.

(39)an CC garbi-garbia genuke euskarazkoaren bigarren silabako bokalismoak (*-in, -un*) forma luzeagoa eskatuko ez balu.

(89) CC (txist.-dardark.) itxuraz.

(119)-an euskarazkoa konposatua izateaz landa, *eme-* mailegua dugu.

(120)-an VVC dugu; *haur*-etik abiatuaz ez da ulertzen bereberez zergatik galduko zen hasierako leherkaria edo hasperena.

(121) CC (leherk.-txist.) itxuraz.

(165)ean VC genuke bereberez bokalak kontuan hartu ahal balira ere.

(168) Ia CCC (b-l/r-txist.) dirudien arren euskarazko txistukaria atzizkia delarik, CV baino ez da hertsia-hertsian.

(172) C edo ia VC baino ez da gehienez ere; kontua da kognadoa desagertuko litzatekeela euskarazkoa ezingo balitz *hor*-etik bereizi.

(173)-an *zahar*-etik abiatuaz gauzak zaildu egingo bide lirateke (cf. 120), batez ere **zandar* < **zan-or* edo balitz (cf. *azkar* < *haz(i)-gor*).

(174) Oso ahula da; euskarazkoan bokalarteko herskaria berankorra baita.

(191) Ez dirudi oso erabilgarri inongo konparaketatarako eta are gutxiago euskaraz bere *-m* horrekin; bidenabar C bakarra dugu eta bokalismoak ere ez dirudi egokiegia.

(195) Mailegua da, euskaraz bederen.⁵⁹

(207) Orain bereberez da mailegu argi; euskaraz, bestalde, bada *uzen* ere.

59. Honetan eta aurrekoan ez da ikusten zergatik ez den ematen, hainbatetik hainbatean, Rifeko berebereko forma.

Azken finean, dozena t'erdi ustezko kognado hauetarik gutxiena da (89 eta 121.ak ?) azterketa zehatzago baten ondoren irauten duena. Halabehar hutsa genuke, beraz, ez % 6tik 11ra bitartean (7.500-10.000 urtetako etena) baizik eta %1en inguruan baino (14.000 urte); VC edo CV onar bageneza 9 kognadotzakok igaroko lukete gure baheketa, Tovarren erdiek, eta % 3-6 liratekeelarik, gutxienezko 10.000-12.000 urtetako etena suposatuko lukete.

Tovarrek eta bere lagunek⁶⁰ metodoaren sorlekuan bertan (EEBBetan) hizkuntzalari zientifikoen artean eta modu estandarrean antolaturiko hizkuntz familietan eztabaidatzen hasia zenean, 1961ean Euskal Herrira inportaturiko ustezko alternatiba horrek ez du inoiz lortu metodo konparatu klasikoa gainditzea, eta metodo onargarrien zerrendan ia mende erdi honetan sartzea ere lortu duenik ezin esan.⁶¹ aspaldi ahaztuxea eta baztertua dugu ofiziokoen artean.⁶²

Ene iduriko, hizkuntzalari historiko gutxik onartuko du ondokoa:

Metodo lexiko-estatistikoak bi hizkuntzen artean gaur egun dagoen lotura erakutsi ez ezik, substratu baten osakide inoiz izan ziren ere kalkulatzeko balio du. Lorturiko koerlazio-zifreei (sic) esker jakin dezakegu hizkuntza horien arteko ukipena K.a. 10.000 urte gauzatu izan zela. Zenbaki horrek garrantzi handia dauka, paleolitiko —magdalenieneko, zehazkiago— Europan jartzen gaituelako; artean, gailur-gailurrean zebilen (eta hedatzen ari zen) euskal-akitaniar zibilizazioa. Estornesen arabera, kaukasierarekin izaniko ukipen edo harreman hori, paleolitoko euskal-akitaniarrak Erdialdeko Europa eta Ekialde Ertainera jalgi zirelako da.

Arestian eginiko ikerlanek —berretsi gabe ditugun arren— frogatu dutenez, euskal toponimiako eskualdea Armeniaraino zabaltzen dute (euskal armenierazko 2.000 hizkuntz ekuazio baino gehiago omen dira, Vahan Sarkisian ikertzaile armeniarren iritziz). (55).

Nahi genuke metodo lexiko-estatistikoak horrelako botererik balu! Ez dakit AM benetan ohartu den, begibistakoa den arren, metodo hori zenbait asmakizunen gainean eraiki zela: oinarrizko lexikoaren kontzeptua eta bere partaideen

60. Halere, ez da segurua Tovarrez gainerakoek zenbateko sinestea zuten metodoan; Mitxelenak egiten dituen oharretarik (ezta 1963: 83koetarik) ez dirudi handiegia zenik.

61. Ikus Coseriu 1965, Haarman (1990) eta bestek emandako bibliografia eta frogak; Blustek bere iruzkinean garrantzi handia ematen dio Lehman-en eskuliburuaren edizio berria gaitzesteko honetan egilea glotokronologiaz lehendabizikoan baino biguñago agertzeari. Gure artean bada (cf. Gorrochategui 1986b, Trask 1997) Echeniquek (1984) ustezko erlazio euskara-uralikoan ikerketa glotokronologiko gehiago beharko liratekeela suposatuz ez ote dion abegi gehiegizkoa egiten pentsatzen duenik. Bidenabar, Décsy-ren aitzinuralikoaren berreraiketan ez da inongo hurbilketa ez erreferentziarik euskarak guzti hartan izan zezakeen inongo egitekoaz.

62. Cf. «Lexicostatistics and glottochronology are still practised in a few odd corners of the world (including Russia, where these methods were introduced in the 1980s, twenty years after being discarded by serious linguists in the West). I am sorry to have to report that one of these corners is in Australia» (Dixon 1997: 36, 5. oh.). Halere, amatteurrek eta atzeratuek baino ez darabilte han ere. Bidenabar, barrengarri xamarra da Txillardegiren 1977ko lanaren akabuan agertzen den presa "gure Kaukasoko anaiei" glotokronologiaren berri ona(k) helarazteko; Mitxelena 1979b-n adierazten den bezala, ez da bertan Tovar eta gainerakoen 1961eko lanarekiko aitzinamendu funtsezkorik, ezta aurreko bi hamarkadetako uholdeen berririk ere.

iraunkortasuna onartzean batetik eta hizkuntzen aldakortasun-indizea unibertsal eta iraunkortzat ematean, bestetik (cf. Campbell 1998, beste hainbaten artean). Are gehiago, nabarmena da glotokronologiak ez duela inongo ahaidetasun genetiko *berririk* erakusten; izan ere, ez da horretarako diseinaturia:⁶³ gehienez ere lehendik norbaiten sinismenean zen bat neurtzeko asmatua dugu. Hots, “lotura” hori eta beste hainbat gauza aurretiaz onartuaz, zenbakien bitartez frogatu nahi luke.

Bada, ez da soilik bere “oinarrizko lexikoa” uste baino askozaz aldakorrago izatea —mailegaketaren aurkako txertakuntza ahulekin— edota aldaketa erritmoa ez dela bera (% 1,4koa edo) mende, garai eta lurralde guztietan.⁶⁴ Bi horien ahulezia aski izan arren glotokronologiaren oinarri eta asmo eta asmakeriak oro deuseztatzeko, bada oraindik larriagorik. Zerk eragin lezake ondoko hirukotean “antzekotasunetan” abiatu gure erantzuna zuzena izan dadin?⁶⁵

(house) etxe [ece] chez [se] casa [kasa]

Itxura hutsak erdiko biak lotzera garamatza zalantzarik gabe, ez azken biak; egia historikoa, ordea, kontrakoa da, hain justu. Frantsesaren eta euskararen forma *modernoetako* berdintasuna halabehar hutstzat salatzen dute beren historia ezagunek.⁶⁶ frantsesezko morfemaren kasuan badakigu noizbait bokal gehiago eta irekiak zituela eta sabaikari belarea zela; euskarazkoarenean, gutxienez, sabaikaria ez dela betidanikoa, bestela bizkaieraz ez bailitzateke /ece/ gertatuko. Baina, eta historia ezagunik ez duten hizkuntzetan edota historia ezagunekoen historiaurrean: zerk saihestuko ditu glotokronologia itsuaren halabeharreko hutsak?

Alderantzizko bidetik, edozein hizkuntzalari historikok —edota hizkuntzaren eboluzioaz artatuk— badakike Meilleten adibide klasikoaren berri: “bi”-arentzako latineko *duo* (eta hizkuntz familiako gainerako kideetakoak) eta armenierazko *erku*

63. Ezta “ukipenak” miatzeko ere; ustezko kognadoen artean zeintzuek salatzen duten jatorrizko lotura eta zeintzuek mailegaketa ez bereiztea da, hain zuzen, metodo honen akatsik larrienetakoa. Beste kontu bat da oinarritzko lexikoa erabiltzea jatorri eta erlazio *ezaguneko* morfema eta hizkuntzen artean mailegaketa neurtzeko corpus gisa, Chaker-ek (1984b) bereberaren zenbait dialektorekin egin legez. AM-ek ongi ezagutu beharko lukeen Tovar et alii (1961: 258, 21. oh.)-en argi irakur liteke: «Swadesh *Perpectives* 194 examina con cuidado el problema de la eliminación de los préstamos en la aplicación del método. Pero sólo la historia conocida de la palabra es la que puede darnos seguridad, y la aplicación principal del método, y donde tiene sus plenos valores, es allí donde no sabemos la historia». “Mass comparison” delakoarekin berdintsu: «Without demonstration that the etymologies are based on cognates rather than borrowings, his conclusions are unsupported» markatzen du E. J. W. Szathmary-k Greenberg, Turner & Zegura-ri egindako iruzkinean (1986: 490).

64. Euskal testuek, beren urritasunean, 16. mendetik 17.era bitartean gertatu zen aldaketa —aditzaren egiturari, demagun— 18.etik 19.era bitartean adinakoa izan zela ote dioskute?

65. Gogora 10. oharreko «supposed cognates»; egia esan, «supposed» dira baita hango beste zenbait gai, genetikoki lotutako hizkuntzak, esaterako.

66. Euskarazko *hoge*i eta bere ustezko ordain zeltekin jazotakoa ere ez da ahaztekoa: Tovar eta “eskuzabal” zenbaitek horien antzean (eta herri zeltekin hedatu omen duten hogeinakako kontaktetan) oinarriturik euskal hitza mailegutzat jo zuten; arazoa da *hoge*i-rekin antzen bat duten formak oso berriak direla (Erdiarokoak), berriegiak 1.000 edota 1.500 urte lehenago euskarak aitzinzeltikotik har zitzakeenean horrelatsu izateko eta ez latinezko *uiginti*-ren oso antzeko: zorigaitzez, antzekotasunak behar ez direnean eta diferentziak haiek beharko liratekenean gertatzen dira. Ikus Mitxelena 1964: 49 (eta gero De Hoz 1981 eta Gorrochategui 1987) zelta hizkuntzetako formek, euskararekin edozein kontakturen ondoren, pairatutako aldaketa ugari ezagunetarako.

jatorri bereko dira, antzekotasun material arrastorik izan ez arren; Matissoffek (1990) eta Puyllleblanck-ek (1992) erakutsi dute, aldiz, mandarineraz badela *er* “bi”, ez batarekin ez bestearekin inola ere “lotua”,⁶⁷ *lotura* hitzak linguistika genetikoan izan dezakeen adiera hertsia eta, beraz, interesgarrian (cf. Meillet 1925): halabehar hutsaren ondorena dugu, euskarazko *alkar* eta holandesezko *alkaar* bezala (cf. Mitxelena 1964).

Behin eta berriz lege fonetikoaren eta egokitasun semantikoaren beharra ikusi da glotokronologia edota beste edozein metodo ezertarako izango bada; gogoratzen ote Bender (1969) eta beste hainbat hizkuntzalarik konparaketa lexikoa okulista eskuzabalaren azterketaren antzeko izan beharrean segurtasun minimo batekin aritzeko egindako saioak?⁶⁸ Alabaina, bide horretatik aitzinatuz —halabeharra mugatuaz eta morfologiaren eta korrespondentzia fonetikoaren egitekoa onartuz, alegia—, eta glotokronologiazko ikerketek har zezaketen hobereena dela begibistakoa da aspaldidanik, zein litzateke metodo konparatuarekiko funtsezko diferentzia edota funtsezko aurrerapena? Bestela esan, hoberenean ere, glotokronologiaren formalizaziorik hertsiena ere ez da iristen (baldintzetan zein horien ezarpenetik ateratako emaitzetan) metodo konparatuaren ariketa arinenaren pare izatera.⁶⁹

En conclusion, la glottochronologie nous paraît être une technique mal fondée, fautive et même théoriquement absurde. Et de par sa facilité même —et superficialité— elle nous paraît représenter un danger pour la linguistique contemporaine. Un danger encore plus grave que ne l’est la glottochronologie en elle-même: c’est celui qu’implique la quantification de ce qui n’est pas quantifiable, la prétention de remplacer la méthode comparative et l’histoire par les mathématiques et le calcul. On a souvent l’impression qu’en employant des symboles et des chiffres, l’on est exact et cohérent. Mais l’exactitude réside en réalité dans la pensée et dans sa correspon-

67. Ezta, gehi genezake, euskarazko **her* ere (*hirur* < **her-ur*; cf. *her-en* eta **la(C)-ur*).

68. Bender-ek CVC formula aurkeztu zuen gutxienezkotzat; badira, halere, bokalak eta kontsonante paretarik bat berbera izanik eta beste pareak soilik ezaugarri bateko ezberdintasuna badu edota bokalak albo batera utziaz kontsonanteak berberak erkaketa onargarritzat ematen dutenak; Campbellek (1973) CVC osoa ere ez dela aski hertsia erakutsi zuen.

69. Rossek eta Duriek (1996: 6-7) honela formalizatzen dute metodo konparatua: «1. Determine on the strength of diagnostic evidence that a set of languages are genetically related, that is, that they constitute a ‘family’; 2. Collect putative cognate sets for the family (both morphological paradigms and lexical items); 3. Work out the sound correspondences from the cognate sets, putting ‘irregular’ cognate sets on one side; 4. Reconstruct the protolanguage of the family as follows: a. Reconstruct the protophonology from the sound correspondences worked in (3), using conventional wisdom regarding the directions of sound changes, b. Reconstruct protomorphemes (both morphological paradigms and lexical items) from the cognate sets collected in (2), using the protophonology reconstructed in (4a); 5. Establish innovations (phonological, lexical, semantic, morphological, morphosyntactic) shared by groups of languages within the family relative to the reconstructed protolanguage; 6. Tabulate the innovations established in (5) to arrive at an internal classification of the family, a ‘family tree’; 7. Construct an etymological dictionary, tracing borrowings, semantic change, and so forth, for the lexicon of the family (or of one language of the family)».

Beraiek aitortzen dutenez, bestek bestela laburtu arren guztiek antzera batean burutzen duten ariketa; lehendabiziko puntutik diferentzia larriak dira glotokronologiarekin, (3)-ko lege fonetiko zehatzen beharrari buruz duten portaera bateraezinerira iritsi aurretik ere. (4)-ko berreraiketa eskakizuna (glotokronologian zein mass-comparison delakoan agertzen ez dena) diferentzia garrantzitsua da eta azken urteetan Greenberg eta bere taldekideen aurkako eztabaidan sarri agertu dena; gainerako puntuetan ere edozeinek dakus metodo konparatuak enparatuei egiteko horietan hartzen dien aldea.

dance aux faits, et non pas dans les symboles et les chiffres, qui sont de simples instruments, parfois commodes, pour l'expression de la pensée. Si la pensée est fausse ou absurde, les symboles et les chiffres ne nous permettent pas de la rendre exacte et cohérente en elle-même: ils nous permettent seulement d'être d'une fausseté et d'une absurdité mathématiquement parfaites (Coseriu 1972 [1965]: 452).

7. Izenetik bertatik aitzina ("Euskara-kaukasiera, desagerturiko kontinentearen hondakin batzuk") esanguratsua gerta bide daiteke 53. orrialdean hasten den buruaren azterketa. Bertan gogoratzen zaigu Kaukasoko mendiak hizkuntzen altxor direla, eta horiek eta euskararen arteko loturak bilatzen jardun dutela hizkuntzalariek:

Kaukasoko mendiak, Pirinioen antzera, hizkuntza aurreindoeuroparrak babestea erdietsi duten altzo bakarrak dira. Kokaera geografikoa, argi dago, lehen mailako babespena [sic] izan da. Kaukasoko mendiak hizkuntzen altxor dira: georgiera, azerbaijanera, armeniera, abiazera, abjasiera, adigera, agulera, avarera, txetxeniera, zirkasiarrera, darginera, ingushioera, kabardinera, lakera, lezginera, osetiera, rutulera, tabasanera, tsakhurrera eta udiera magaltzen dira bertan. Hizkuntza hauetariko batzuk eta euskararen arteko parekotasunen bila jardun dute hizkuntzalariek, eta hizkuntza hauekin izango luke euskarak lokarrik sendoena (berbereez kanpo), egun dakigunez (53).

Alabaina, nork *daki* hori? *Jakin* aditzaren erabilera xelebrea begitantzen zait hau; zerbait badakigu honako hau litzateke: inork ez duela egundaino eman hizkuntzalariek onargarritzat jo dezaketen frogarik euskara eta hango hizkuntza edo hizkuntz familiarren bat genetikoki "loturik" dela baieztatzeko.⁷⁰ Aldiz, arrazoi asko eman da horrelako saiok oinarri gabeak eta amarru hutsak zirela (cf. Mitxelena 1950, 1964, 1968 edo Trask 1995, 1997) aldarrikatzeko. Areago dena, bada ziorik segurtasun pitin batez etorkizunean egoera ez dela hobetuko pentsatzeko ere: hori iruditzen zait, niri behintzat, euskararen eta kartvelieraren erroaren azterketa konparatu baten emaitzarik seguruenetarik (cf. Lakarra 1998a eta 1998b).⁷¹

Kaukaso aldeko hizkuntz-sailkapenean berezilari izan gabe ere, begibistako gertakari larri batez ohar gaitezke (cf. Mitxelena 1964): AM-k ematen digun hango hizkuntzen definizioa ez da ez extensionala ez intensionala; bestela esan, zerbait "Kaukasoko hizkuntza" da bestela ezin sailka daitekeen bitartean.⁷² Halere, Benvenistek ikertu osetiera (iranieraren familiakoa) edota hor ere mintzatzen den armeniera aspaldi ezabatuak dira zerrenda horretatik; bestalde, zentzu guztietan ezagunena den familia (kartveliera) osatzera iristeko georgieraren anaiarrebak falta zaizkio AM-ri: svanoa, lazoo eta mingrelia.⁷³

70. Herts-hertsian nabarmena da Lafonek ere (1951-52) horrenbeste ikusten zuela.

71. Gogora bedi ezezkoaren frogarik ez dela eta pisu guztia sinestunaren aldera doala (cf. Hamp 1998, betiko ortodoxia modu arin, egoki eta atsegin batez laburtuaz).

72. Catford-en hitzez esateko: «By *Caucasian languages* we mean those languages spoken in the Caucasus Mountain region of the USSR between the Black Sea and the Caspian Sea that (unlike other languages of the region) are neither Indo-European, Turkic, Mongolic, or Semitic» (1991: 232). Bidebatez, Catforden ustez iparraldeko hizkuntzen jatorrizko batasuna segurua litzateke eta litekeena horien eta kartvelieraren artekoa; euskara eta hizkuntza horien arteko loturaren hipotesia aipatzen du —garatzen ez badu ere— kontran agertu gabe. Liburu osoa bezala, makrokonparaketaren alde agertzen zaigu baina beherago ikusiko ditugun estandarrak gaintitzea lortu gabe.

73. Asti apur batekin —eta izan da honetan saiatu denik ere— Europako hizkuntza guztientzat (euskara barne) amankomuneko ezaugarriak ere eman ahalko lirateke, finougriak, indoeuroparrak, iberiera nahiz etruskera gogoan izan; alabaina, hortik jarraituko ote litzateke beren jatorri bakarra?

Guztiarekin ere, AM-ren zerrenda horretan okerreza ez da hizkuntza asko faltatzea (berrogehitsu Ekialdeko Ipar Kaukasieran bertan dira) baizik eta “benetako hizkuntza kaukasiarren” barneko hierarkia eta sailkapenez aspalditik dakigunaren berri ez ematea: hots, ez da frogatu (pankaukasistek nahi balute ere) guztiak familia bereko direnik, gehienez ere hegoaldeko laurak; gainerako iparraldekoek⁷⁴ hiru talde (mendebaldekoa, erdialdekoa, ekialdekoa) aitortu ohi dira, eta nahiz eta lehen bi azpitaldeen barneko batasuna onartu, hirugarrenarena ez, eta are gutxiago iparreko guztiena edota haiena hegoaldekoekin.⁷⁵ Hemendik jarraitzen da Mitxelenak duela ia mende erdi zioen legez, euskara “Kaukasoko hizkuntzekin” erkatzera doanak garbi asko jakitea alderdi batean (euskararenean) zer jarri, baina ezta urrunetik ere bestean zer espero litekeen: hegoaldeko taldearekin erkatzea zilegi litzateke eta baita iparraldeko bakoitzarekin; ez, aldiz, guztiekin batera edota lauren arteko konbinaketaren batekin; askozaz gutxiago orain bateko, gero besteko zeinahi hizkuntzatako formekin, aitzin honetako berrikuntzaren batekin, ondoren beste hartako arkaismo edo forma suposatu zenbaitekin (bateko eta beste teko maileguak barne, saltsakaria loditzeko) Boudak (1950) eta bestek, beren komenientzien arabera, egin bezala. Tovarren 1961eko saioan ere familia diferentetako hizkuntza kaukasiarrak (eta kamito-semitikoak) euskararekin erkatzean, metodoa berez ahula bazen ikusiko dugunez, honenbestez ez du indartzen, jakina.

Kontu honekin amaitzeko, gaiztakeria edo meditazio-gai txiki batzuk: zergatik ote aitzinkartveliera ezagunago denetik familia hori besteren batekin erkatzen duten hizkuntzalari optimistenak⁷⁶ euskararekikoak ahaztu eta beste hautagai baten bila aritzea (nostratiko-peko indoeuropea eta gainerakoak, esaterako)? Zergatik ote, orobat, Greenbergen eurasieran ere alde batetik joatea euskara eta bes-tetik kartveliera, kontsolazio gisa edo iparraldeko ezezagunagoak utziaz gurearen kidezat?⁷⁷ Ez ote euskararen (eta besteren) “lotura” hauek ezaugarri tipologiko bitxi batzuk alde —eta beste larri zenbait aurka— izateaz landa, ezjakintasun hutsak eta metodoaren garapen eskasa ikusi uste zituela eta orain, batzuk eta besteak ezagunago direnean, eta hizkuntzalaritza historikoaren estandar orokorren aurka-ko kontrabando eta korsario lanak zaildu direnean —herritar askori arbasoenganik datorkion ohitura ekandutuak badira ere—, Eldorado eta Kalifornia berriak aurkitu beharra dutela azken ameslariek?^{74b}

Eta zergatik goragoko “berbereez kanpo”?⁷⁸ Euskarak hizkuntza berebereekin (bide batez, zenbat dira?, nolakoa zen aitzinberebera?) izan litzakeen lokarriez idatzi idatzi izan da —bidenabar, AM-k ez du Mukarovsky ez

74. Eta hauek eta hegoaldekoek bai esan daitekeela arras diferenteak direla tipologikoki, AM-rentzat euskara eta iberiera (cf. § 9 akabuan) izan litezkeen adina gutxienez, eta beharbada arrazoi sendoagoz.

75. Bidenabar, Tovar honetan eta bestetan hizkuntz familien arteko propietate trantsitiboak ez zion burukomin handirik eman, itxuraz bederen.

76. Berezilari gehienak eszeptikoak dira adabegi horretatik gora Klimov (1991) eta Schmidt-ek (1989) diotenez.

77. Historiografikoki, bitxia da Colarusso-k (cf. 1997 eta aurreko lanak) ipar-mendebaldeko kaukasiera indoeuropearekin lotu nahia eta ez euskararekin.

74b. Cf. Mithun 1990/92 Ameriketara ere izan diren argudio genetiko eta tipologikoen nahasketez.

78. AM-ek ez du argitzen poligenetismo eraren baten aldeko den ala mailegaketaz ari den Estornes bezala, baina hala dirudi bere arrazoibidea jarraituaz: cf. «8. Los elementos vascos en el pre-bereber se deberian a contactos de los vasquitanos de levante y aun a irrupciones de nuestros cazadores en el

Schuchardten (ezta, noski, Zylharzen) berririk— baina eltze horretatik baba gutxi: berbak berbekin begiz nahiz belarritz erkatzea ez da lizentzi aspaldidanik (neogramatikoetarik eta are lehenagotik ere) eta hizkuntza baten eta bestearen morfologiak ez du inongo laguntzarik eskaintzen hizkuntzaren artean loturaren bat susmatzeko ere. Irakurleren batek barneko flexioaz (*kitab / kitub*, etab., arabieraz, demagun) inoiz ezer aditu badu euskararekikoek alde horretatik esperantza handirik ezin izan dezaketela be-rehalakoan antzemango du.⁷⁹ Bährek (1934) aspaldi zabaldu zuen Schuchardten euskara-kamitoari Zylharzek emandako jipoi erabatekoa; ez soilik euskararen egitura zein hiztegiarekin antzekotasun urriak agertzen zirelako baizik eta, larriagoa dena, Schuchardten metodoekin koptoaren eta alemanieraren artean antzekotasun haboro bila zitezkeela erakutsiaz.

Gainera, historiografikoki ere, ez ote interesgarri markatzea euskara-berebera edo euskara-kamitikoia ez dela lehen graduako —hots, datuetarik zuzen zuzenean sortutako— hipotesia?

La hipótesis de una relación genética entre el vascuence y las lenguas hamito-semíticas tiene algún fundamento objetivo, pero es —o era, cuando gozaba de cierto favor— más que nada el corolario que difícilmente puede ser cierto de premisas que nacieron del error y de la confusión. H. Schuchardt, poniendo el carro delante de los bueyes como dice el refrán vasco, intentó demostrar en *Die iberische Deklination* (1908) que vasco e ibérico coincidían sustancialmente en algo tan central en una lengua como es la declinación. Como el ibérico a su vez, según la idea tradicional, tiene sus raíces en el norte de Africa, era obvio buscar allí los parientes antiguos y modernos de la lengua vasca (Mitxelena 1964: 61).⁸⁰

norte africano. Habrían ocurrido en las postrimerías del paleolítico superior en consonancia con la fecha dada por Swadesh y los testimonios de la arqueología (pinturas rupestres de Parpalló). El bereber lo habría heredado de su antecesor el mauritano. 9. El contacto con los caucásicos y en particular con el georgiano y circasiano sería mucho más antiguo que el bereber y se debería a la irrupción de los vasquitanos paleolíticos por el centro europeo hacia el medio oriente. El resultado de las tablas de Swadesh parece confirmar este contacto pero lindando a lo puramente fortuito» (Estornes 1967: 269). Aurreko orriari dioenez «No compartimos ni el optimismo exagerado de Swadesh ni el pesimismo de nuestro Michelena en cuanto a la cosecha que pueda darnos el euskera como instrumento de investigación prehistórica e histórica»; pena bere neurri eta irizpideek oinarri horren ahulak izatea: “mauritanoaz”, esaterako, ez dakigu ezer.

79. Gogora, aldiz, Mitxelenarekin (1964), hitita ia deszifratugabea latineko eta gainerako hizkuntza indoeuroparretako deklinabide erregulartasun eta bitxikeriekin bat etortzeak ekarri zuen segurantzaren haren sailkapenerako. Campbell eta Poser-ek (1992) ere aztertzen dute hititaren kasua erakusteko, Greenbergen aurka, indoeuropar hizkuntzalaritzan jatorrizko batasuna ezagutzeko lexikoaren erkaketa baino funtsezkoago izan direla paradigma morfologikoen eta irregularitate amankomunen aurkikuntza.

80. Erorketa katearen oinarri-oinarrizko begi bat haustean gertatu zen: «La hipótesis vasco-iberista de Schuchardt se derrumbó por estar edificada sobre arena: la había fundado en la totalidad de los textos en *escritura* ibérica, leídos, además, según entonces se estilaba, de una manera muy deficiente. Cuando se pudieron leer, se vio que la misma escritura había servido para transcribir dos lenguas muy diversas, una de las cuales —la que hoy llamamos celtibérico— era inconfundiblemente indoeuropea. Una buena parte de las desinencias ibéricas resultó así no ser ibérica y otras, ibéricas éstas, resultó que tenían una lectura muy distinta de la que Schuchardt les atribuía» (Mitxelena 1964: 61). Gainerako katenbegiez ere zeresanik bada testuan erakusten denez; ikus, gainera, ondoko oharra eta testua iberieraren ustezko afrikar jatorriaz.

Eta zergatik bilatu behar dira iberieraren hizkuntz loturak Afrikan AM-ek nahi bezala?⁸¹ Norbaitek hango iparraldean antzeko kulturaren bat aurkitu uste duelako edo zuelako?

A pesar de todo, hay algo de las concepciones ya caducadas de Schuchardt que sigue pesando sobre la investigación actual, y es la idea de que el ibérico, tal como ahora lo conocemos, está relacionado con el norte de Africa. Ahora bien, un parentesco lingüístico sólo puede ser demostrado por argumentos lingüísticos, y nada hay en ibérico, a nuestro entender, que lo relacione con lenguas norteafricanas, al menos si por norteafricano no entendemos una lengua o lenguas prelibicas o preberberes. Pero de éstas nada sabemos prácticamente y sería absurdo indagar las relaciones de parentesco de unos antes de razón (Mitzelena 1964: 61).

Jakin bedi, ordea, hizkuntzazko frogak eskas eta aukera gutxi duen ideia dela: Mitxelena segidan markatu legez, hizkuntza hamito-semitiko orotako goian aipatu barneko flexioaren arrastorik ez da aurkitu iberikoan, esaterako, eta —gehienezake— sistema fonologikoez ere zerikusi gutxi dute.⁸²

Cohen eta eskola frantsesak ere aspaldi ikusi zuen erroaren egitura zela arrazoirik garrantzitsuena —baina ez bakarrik, hor baita fonetika konparatua ere— bereberak, libiera zaharrak, egipziera zaharrak (hots, hizkuntza kamitikoek) eta akadierak, arameoak, arabierak, hebreerak eta bestek (hizkuntza semitikoek, alegia) familia kamito-semitikoa osatzen zutela onartzeko.⁸³ Oraintsuago, Chakeren edo besteren lanetan —bereberaren historiaz eta egoeraz, haren berreraiketaz eta mailegaketaz, libiera zaharraz...— ikus lezake nahi duenak euskalaritzarako gauza jakingarririk, euskararentzat anaia edo arreba berriak aurkitzeko esperantza uxa baledi ere,⁸⁴ ala berri “onak” ote berri jakingarri bakarrak?

81. Cf. «Iberiar mundua ez zen euskal mundurik izan; iberiarren lotura genetikoak, seguru aski, Afrikan bilatu beharko lirake» (49); «Afrikatik abiatu eta iberiar penintsulako ekialdea Almeriatik [...] menperatuz, geroago iberiar deituko ziren tribuek iparraldera jo-eta-su dihardute erasoan, Ebro aldean baskoiekin topatu arte» (101).

82. Cf. orain De Hozek 1999a-n aurkeztutako iberikoaren tipologiaren inguruko saio interesgarria; hamitistei (ikus Chaker 1984, 1995 edo Lipinski 1997 eta hor aipatu iturriak) ez zaie bururatu —nik dakidanez— iberierazkoak beren arazoetan sartzea.

83. Eta horrela aitortu zuen Lafonek berak ere (1950), bere saioak gora behera antzeko ezer aurkitzen ez zuelarik euskara eta Kaukasoko hizkuntzen artean; ikus orain Lakarra 1998b puntu honetaz. Ez naiz hemen sartuko beranduago (“afrasiera”, “afroasiatikoa” eta beste zenbait izen dituen hizkuntz makrofamiaren barnean) erantsi zaizkion kuxitiko, omotiko eta gainerakoez; hauen ezagutza, beren aitzinhizkuntzen berreraiketa eta horien erlazioa kamitosemitiko berreraikiarekin ez da garbia hizkuntzalari askorentzat; ikus Lipinski 1997 edo Moscati 1964.

84. Cf. «L'hypothèse [d'une parenté basque-berbère] est donc loin de soulever l'enthousiasme des linguistes, notamment chamito-sémitisants» (Chaker 1975: 241). Horren aurrekoa ere ez da ahaztekoa: «L'hypothèse d'une parenté basque-berbère est donc déjà ancienne [...] Elle a été reprise récemment par Mukarovsky [...]» eta bereziki, «Lorsque l'hypothèse a été formulé, le rattachement du berbère à une grande famille chamito-sémitique n'est pas encore reconnu. Mais désormais, on peut considérer l'apparentement du berbère à la famille chamito-sémitique comme une certitude. Il s'ensuit que tout rapprochement du basque avec le berbère doit être compatible avec l'ensemble du chamito-sémitique: en d'autres termes, s'il y a une parenté basque-berbère, cela ne peut être que dans le cadre d'une relation basque-semitique (c'est d'ailleurs la direction dans laquelle travaille Mukarovsky qui envisage un immense ensemble linguistique “euro-saharien”. Quant aux données sur lesquelles s'appuie le rapprochement, elles sont très fragiles et fortement contestées par les spécialistes (Mukarovsky utilise des données linguistiques souvent approximatives, voire même tout à fait erronées)» (ibid).

8. 56. orrialdean «Euskara eta berbere hizkuntzak senide?» galdetu ondoren (erantzuna, jakina, baiezkoa da arrazoi sendo ez ahulik horretarako eman gabe) “Krutwig eta guantxeak” burua dakusagu 58-60 orrietan. Berebereak eta (ondorioz edo) guantxeak cromagnon-en migrazio ote ziren eta konkista garaietan guantxeak “euskaraz ari zirela” esaten zutela lekukoek aurreratu ondoren, hara zer dioskun AM-ek:

Antzinako 37 testu azterturik, eduki semantikoari dagokionez, euskararekin lotura duten guantxerazko 200 hitz hustu zituen Krutwigek; ehunetik gora, bere korrespondentzia lexikal eta guzti (izugarri ugariak, inondik inora). Harrigarriena, ordea, aditz laguntzaileetan oinarriturik, guantxearen aditz-egitura berregin ahal izan zuen. Guantxerazko aditzaren egitura eta euskarazkoarena —bizkaierazkoarena, zehazkiago—, ia-ia berdinak zirela egiaztatu zuenean, huraxe ustekabe ederra! Euskararen historia (aurrehistoria) eta bilakaera ulertzeko ikerketa hark izan dezakeen garrantzia egundokoa da. Horregatik sinesgaitz gertatzen zaigu ikerketa horiek hogeitaz urtez geldirik egon izana (60. orr.).⁸⁵

Arrazoi luke AM-ek Krutwigek burututako aditz laguntzailearen berreraiketa harrigarritzat jotzean —familia ezagunagoen aitzinhizkuntzetarako ez da beti hainbat lortu—... eraikuntza horrek egirik ez eze sinesgarritasun apurren bat balu.⁸⁶ 158. orrialdean ondoko paradigma ateratzen zaio *izan-* aditzaren nor-norirentzat bizkaierazkoa jarraituz:

natgwai		k,n	o		zu	e
hatgwai	t		o	gu		e
gwai	t	k,n	o	gu	zu	e
gatgwai		k,n	o		zu	e
zatgwai	t		o	gu		e
gwai	t	k,n	o	gu	zu	e

164.ean beste hau dagokio guantxeraz *eroan-*i:

na	raíz verbal			k, n	∅		zu	te
ha	" "		t	k, n	∅	gu		te
da	" "		t	k, n	∅	gu	zu	te
ga	" "	(tza)	t	k, n	∅			te (z)
za	" "	(tza)	t	k, n	∅	gu		te (z)
da	" "	(tza)	t	k, n	∅	gu	zu	te (z)

Krutwigek «parece que las formas canarias se asemejan más a las vizcaínas [haien gainean ez ote dira berreraiki bada?], por lo que en vez de poner el pluralizador delante del dativo, se debería colocarlo detrás» diosku 158-159. orrialdeetan

85. AM-entzat guantxeen hizkuntza eta kulturaren azterketak berebiziko garrantzia du bere “Euskal Zibilizazio Handiaren” hipotesia berresteko egitekoen artean: «Ikerlan hauek guztiak Kanariar herriari dagokiola zehaztu beharko lirateke bereziki, haxe bailiteke, agian, gure herriaren aurrehistoriako altxorra: seguruenik euskal errotik abiatuta eta kanpo aldetik eragin handiegirik nozitzeke, isolamenduan eboluzionatuko zukeen milurteko batzuetan kanariar herriak» (156).

86. Ederra litzateke izan ere, indoeuropar hizkuntzetan ere —hizkuntza anitz, lekukotasun zahar eta arkaikoak, ehundaka ikertzaile zorrotz— ez baita horrenbestekorik lortu... Adizki jokatu berreraiketarako irakurleak badu Gómez & Sainz 1995; aditz jokatugabiez ikus Trask 1995.

eta antzeko zerbait gehi «este esquema verbal en vasco en caso de que las formas reclamen dativo, reciben [sic] una indicación de dativo que coincide con la del ergativo, a la excepción que llevan un indicador delante de dicho pronombre (-ki-) y que en la tercera persona es la vocal o en singular y la vocal e en plural, en vez de *zero* y *-te*» 164.ean.

Benetan eskura diren lekukotasunek ezertarako oinarri gutxiegi ematen dute, noski; hemen ere arazo nagusienak, ordea, bestelakoak dira: berreraiketaren eredutzat hartu denak ez du hainbat puntu larritan aukera handirik aitzineuskara edota euskara zaharreko izateko eta, beraz, askozaz gutxiago ****aitzin-euskara-guantxerako** (edota ****aitzin-bizkaiera-guantxerako**). Adibidez, garbi ote *nor* aditzetan pluralgilea betidanikoa dela? Gogora *gatoz* erregularra vs. *gaitean* edota *ditean* irregularrak⁸⁷ (eta hau euskalki guztietan, garbienik bizkaiera zaharrean bertan). “Konparaketaren” alderdi honekin amaitzeko, *nork-nori-zer* delakoetan, *-ki-* hori ote betidaniko marka? Eta erro aitzineko bokal aldaketak (*-a/-e-*) ez ote du zereginik? Hara bizkaiera zaharrean bertan *deroat* “te llevo una cosa” vs. *daroat* “llevo una cosa”.⁸⁸

Bestalde, “egundokoak” ote dira —hitzaren zentzurik hoberenean, esan nahi dut— Krutwigen ondoko “korrespondentzia” hauek? (cf. haren “Vocabulario guanche”, 149 hh):⁸⁹

1. *abe* ‘pariente’ : *abe* ‘antepasado’.
2. *abett* ‘él lo tuvo’ : *eban* (B) ‘id’.
3. *aben* ‘aquí’ : *hemen*, *heben* ‘id’.
4. *gen* ‘alto, superficie’ : *gane*.
5. *haru* ‘deseo’ : *gura*.
6. *hirgwan*, compuesto de *hir*, *ir*, *iru* ‘lana’; en vasco *hiru* ‘hilo’, *phiru* ‘hilacha’.
7. *punapal* ‘hijo del primer matrimonio’. En esta palabra parece que tenemos la palabra circasiana *po* ‘hijo’... y la vasca *aphal* ‘bajo, inferior’.
8. *tahuian* ‘falda’ : *gona* ‘id’, *ubykh huian* ‘id’.
9. *zakha*, *zakhon* ‘hueso, tibia’ : *za(n)kho* ‘pierna’.
10. *zauz* ‘estad’ (...) «[En vascuence] Las formas en *-au-* son consideradas vulgares».

87. Meilletek lanen ondoren, behintzat, ezaguna da irregulartasunek (bestelako frogaren laguntzarik gabe ere) dutela aukera gehien zaharrenak izateko; honako honetan testuen kronologiak ere bat egiten du hatsarri horrekin (cf. bi irizpideoi buruz Mitxelena 1963).

88. Mitxelenak 1954b-n erakutsi zuen bereizkuntza ekialdean ere inoiz ezagun izan zela (Oihenarten erretrauak lekuko).

89. Ezin utzi aipatzeke, nolana ere, 143an hasten den «frases canarias seleccionadas entre las variantes y sus correspondientes traducciones vascas»; «traducciones»-ek ez du “itzulpen huts” esan nahi, jakina. Bertan ikusenezake *-kebe* atzizkiari euskarazko *-gabe* dagokiola (pena metatesia moderno izatea eta forma zaharra ere erraz zatika litekeena; bide batez, *gabe* iberiko ere ikusi nahi izan da, cf. De Hoz 1981 eta Lakarra 1996) edota *Jaungoikoa*-k «sintaxis religiosa» duela (*Jinko* zaharra-goarena agnostikoa ote?) edota euskararen batean *ahal handikien abeen baku zelhaia* “el lugar de la reunión de los poderosos” dela. Ezin utz zitekeen, noski, datu urri edo oker batzuek teoria polit bat —edo idazkera bitxi bat— hondatzen; baina, gauzak horrela, ba ote diferentziarik Krutwigen liburu honen eta *Mikelditarrak*-en edo bere sagakoen artean?

(1) *abe* ez da benetako euskal morfema askea, azken batean Sabino Aranek eta bere jarraitzaileek *osaba*, *izeba*, *neba* eta beste ahaidetasun berbetarik berreraikia baino. Ezin erabil liteke, beraz, erkaketa honetan ez bestetan. Antzekotasunak begiz edo belarriz bilatzen jarrita, gainera, ez ote ditu haboro beste hizkuntzaren batean?

(2) Euskaraz (bizkaieraz nahiz ekialdean) *-b-* modernoa da eta *-d-* eta *z-* zaharrak: zein da, beraz, korrespondentzia?

(3) Euskaraz kontsonante zaharra *-b-* da, baina *haur* + (*e*)*n*-etik datorrelarik...

(4) Bizkaierazko *-e* bigarren berrikuntza bat da edozeinek dakusanez (gogora *-ain* > *-an*); cf. *Paris-e*, *atz-e*, *aurr-e*, etab., leku kasuetako formen mozketak berri batez oinarria luzatuaz.

(5)-en metatesia eta hasperenketa azaltzeke izateaz landa, aseka beren batek euskarazkoa lat. *gula*-tik datorrela usteko luke.

(6) Oso polita, eta baita ondoko (*h*)*iruene* “perro lanudo” vs. *tebiz-ene* “perro de caza”; alabaina, euskarazkoek ez ote zerikusirik lat. *filu(m)*-ekin?

(7) Ez dakit zirkasierak zer egin lezakeen saltsa honetan; nahita edo nahi gabe latina edota erromantze zaharra ahaztu zaio Krutwigi: *ap(h)al* < *ad vallem* (cf. Mitxelena 1957).

(8) Guantxearen fonetikaren —eta beharbada morfologiaren— aldetik bada zer azalduke, eta baliteke markagarria begitantzera norbaiti *gona* mailegu zeltikoa dela (cf. Gorrochategui 1987), honetan Krutwigek italierazko kideak aurkitzeak kontuak aldatzen ez dituelarik.

(9) Dirudenez, *zanko*-ri eta bere aldaerei erkagaiak sortzen zaizkio nonnahi: Boudak bere ohiturak jarraituaz, zenbait mozketak “aproposen” ondoren Kaukasoko hizkuntzaren batean ikusten zion kideren bat (cf. Mitxelena 1950) eta arestian Vennemannek germanikoan gorde omen den “Vasconic” zaharraren sustratotzat eman digu (cf. Lakarra 1996: postscriptum). Alabaina, Corominas-Pascual-en hiztegian s.u. *zanca* begiratuaz geroz baliteke azalpen sinesgarriagorik aurkitzea.

(10) “Arruntak” edo “herrikoiak” izateaz landa, *-au-* forma horiek “aitzin-guantxe-euskaratik” edo “aitzin-guantxe-bizkaieratik” zuzen-zuzenean etor litezke? Esango nuke mundu guztiak dakiela *-gon-* erroa (cf. *-bil-*, *-kar-*, *-tor-*, etab.) arkaikoagoa dela eta *-ago-* adizkiak testu zaharretan (hots, atzo goizera arteko guztietan) inongo konspiraziorik gabe agertzen diren bakarrak.

Labur esanda, borondaterik hoberenarekin ere “korrespondentziatzat” ezer gutxi aitortu liteke bertan eta bai amateurismo edo adarjotze gehiegitzo.⁹⁰ Halere, beharbada, zorrotzegi ari naiz eta guantxea XIX. mendean edo Izaroko uhartetik

90. Irakurlearen pazientzia eta aldizkariaren tamaina agortu beharko nuke gainerako “korrespondentzien” hustasuna erakusteko laburren arituta ere. Hankasartze eta tranpen katalogoaren zati baten berri eman dudalarik (Trask 1997-n ez baita Krutwigen eta ustezko guantxeen hizkuntza-ahaidetasunari buruzko erreferentziarik), edozein irakurlek zabal dezake nire lana; irazkinerako langairik behar izanez geroz, aski dirateke *Sobre el pasado de la lengua vasca, Fonética histórica vasca* eta filosofoen batek eskastzat zuen zentzu pixkatekin.

agian, Kanarietara joandako mendebaldeko hizkera dukegu; horrela azalduko lirateke bere mailegu eta berrikuntza bereziak batetik, eta bizkaierarekin gainerako euskalkiekin baino antz (?) handiagoa izatea,⁹¹ bestetik, Krutwigek nahi bezala. (Alderantziz, Tenerifetik etor zitezkeen hango beroez nazkaturik mendebaleko euskaldunak, Godoy-k lagundurik segurki). Damurik, ordurako ez omen zen inor mintzatzan guantzez... Guantxe gaixoen lepotik aitzineuskara irakatsi nahi badugu agian komeni zaigu jakitea, gutxienez, ez aitzineuskaraz mintzatzan baina bai zer den zilegi suposatzea eta zer ez hizkuntzaren garai horretarako.⁹²

9. AM-ek Ruhlen-Greenbergen lanaz esaten diguna edo 22.ean aipatzen zaigun «alderdi anitzeko hurbilketa (“mass comparison”)-nekez eman liteke hizkuntzalaritza historikoaren egungo egoeraren deskribapen bezala. Izan ere, Campbellek *Language*-n argitaratutako bere iruzkin famatuaren hasieran bertan «Greenberg’s *Language in the Americas* has a detrimental impact on the field; its classification should not be accepted; the record should be set straight» zioen (1988: 591);⁹³ horrezaz gain ez zuen hain berritatz aurkitzen (ibid), akritikoa (593), konparaketa lexiko huts ahulean oinarritua (595), bera bezain ahul den glotokronologiaren lagun (596), maileguak ezagutzeko edo kognadoen zehaztasun semantikoaren axola handirik gabe (598-600), azterketa morfologiko okerrekin (605) eta sasiko forma anitzekin (606) hornitua zela erakutsi zuen argiro. Azkenik, Greenbergek ez zekiela beti hizkuntzak zein diren ere markatzen zuen, horiek bailiran hartu izan zituelarik dialekto eta are ikertzaileen izenak ere.

Ross eta Durie ere (1996: 4-9) ez dira arestian goxoago izan:

The third misunderstanding⁹⁴ is a more dangerous one. It confuses the comparative method with the technique of ‘multilateral comparison’, sometimes known as ‘mass comparison’, used for example, by Greenberg (1987) in his work on

91. Cf. «Estas relaciones sobre los diversos dialectos indoeuropeos constituyen un dato básico para la determinación de la zona original y la época en que se habló el indoeuropeo común, lo que a su vez está estrechamente relacionado con el problema general de la cultura y modo de vida de los indoeuropeos. El problema fundamental, común a todas estas cuestiones, estriba en que antes de la aparición de los primeros textos escritos, a partir de datos lingüísticos sólo es posible plantearse una cronología relativa, es decir un rasgo es más antiguo que otro, un dialecto A parece haberse separado del núcleo central antes que otro B, y una localización igualmente relativa: originalmente el dialecto A debía estar más próximo al dialecto B que al C» (De Hoz 1999b). Bizkaiera gainerako euskalkiekin sinkronikoki nahiz diakronikoki kontrajartzen duten teoretarako (Lacombe, Uhlenbeck) ikus Mitxelena 1964 eta Lakarra 1986; bidenabar, Mitxelenak (1981) K. ondoko V-VI. mendeetan kokatzen du “euskara batu (zaharra)”, hots, geroztik lekukotu diren euskalki guztien jatorria; pena da, baina ez dugu paleolitikoan edo neolitikoan sortutako euskalkiren arrastorik.

92. AM-entzat (60. or.) «sinesgaitz» gertatzen da Krutwigen [euskara eta guantxearen inguruko] ikerketak «hogei urtez geldirik egon izana». Ez dakit zergatik hizkuntzalaritza diakronikoaren ikerketen bilakabideak barneko logikaren bat badu, behintzat, eta ez ez bada uanean uneko “ikertzaileen” apeten menpeko soil. Zergatik ez hedatu “sineskaiztasun” hori Guiteren eta Krutwigen euskaro-piktoari (cf. Trask 1997: azken atala) edota R. Frank-en ikerketei? Beste maila batean: “sinesgaitza” ote flogistoaz ez arduratzea bereziki azken hamarkadetako fisika?

93. «This is a strongly negative evaluation, but necessary. G’s well-deserved eminence draws unwarranted attention to L[anguage] I[n the] A[mericas], as evidenced by frequent positive reports of it in the popular press» gehituaz.

94. Bigarren erruaz (glotokronologiaz) ikus gorago (§ 6); 1.ko errua metodoa hizkuntzalaritza indoeuroparrean egindako ariketarekin nahastea litzateke (Szemerényi-ren adibide ezagunarekin). Tipologiatik eta gainerako alorreko harremanetarik letozkeen hutsak ere gogoratzen dituzte.

the linguistic prehistory of the America [...] The attraction of multilateral comparison and other techniques of 'long-range comparison' is that they claim to reach much further back into time than the comparative method has been able to do. However, if they do not provide evidence of relatedness which could not have arisen by chances, the 'families' they establish must be treated with skepticism.⁹⁵

Zylharzek behinola Schuchardtekin egin bezala (ikus Baehr 1934), Campbellek (1988) ere Greenbergen kognadoei parra egiten die beste suomierazko batzuekin⁹⁶ eta dagoeneko bibliografian Greenberg eta jarraitzaileen *reductio ad absurdum* mota klasiko bat agertu da. Hots, haien hatsarri eta metodoak (hobe, horien falta) indoeuropar familiako edo semitiko zein uralikoko historia ezaguneko hizkuntzei ezartzen zaizkie, lehen glotokronologia modan zenean haren ahulezia nabarmentzeko egin zen legetxez. *Reductio* klasiko hau da, demagun, Peter-ena (1992), batetik ingelesa eta suomiera eta bestetik hindia eta suomiera à *la Greenberg* aztertzen, hindia eta ingelesa taldekidetzat sailkatzeak bertan suomiera eta ingelesa egiteak baino arrazoi gehiago ez duela ondorioztatuz:

After using mass comparison, followed by the comparative method, I arrived at different percentages for the various groupings. Of the 8,3 % correspondence between English and Finnish uncovered by mass comparison, none was due to actual genetic relationship, 28,6 % were attributable to borrowings. Thus, 71,4 % of the items scored as (possible) cognates were due to pure chance. An initial percentage of 19,1 % were uncovered for Hindi and Finnish. None of this 19,1 % was attributable to actual genetic relationship, 12,5% were due to borrowing, and 6,3 % each were due to onomatopoeia and nursery language. In the end, a full 75 % of the 19,1 % were due to the chance (Peter 1992: 339).

95. Campbellek (1998: 312-313) ondokoak zerrendatzen ditu: «Afroasiatic, Altaic, Amerind, Athabaskan (or Na-Dene) plus Sino-Tibetan, Austric (Austro-Asiatic with Austronesian), Austro-Tai (Japanese-Austro-Thai), Basque-Caucasian, Basque-Sino-Tibetan-Na-Dene, Dravidian-Uralic, Dravidian-Japanese, Elamite-Dravidian, Eskimo and Indo-European, Eskimo-Uralic, Eurasiatic, Hokan Indo-European and Afro-Asiatic, Indo-European and Semitic, Indo-Pacific, Indo-Uralic (Indo-European and Uralic), Japanese-Altaic, Japanese-Austronesian, Khoisan, Macro-Siouan (Siouan, Iroquian, Caddoan, sometimes Yuchi), Maya-Chipayan (Mayan, Uru-Chipayan of Bolivia), Na-Dene, Niger-Kordofanian (including the very large Bantu family), Nilo-Saharan, Nostratic, Penutian, Proto-Australian (all twenty-six or so of the Australian families), Proto-World, Ural-Altaic, Ural-Altaic and Eskimo-Aleut, Yukagir-Uralic».

Aurkezpenean zera dio: «In order to give an idea of what is at issue, the following is a list of some of the better-known hypotheses which would group together languages which are not yet known to be related. None of the proposed genetic relationships in this list has been demonstrated yet, even though some are repeated frequently, for example in encyclopaedias and text-books. Many other unconfirmed proposals of distant genetic relationship (not listed here) have also been made».

96. Cf. «Many scholars have attempted reductions ad absurdum of megalocomparison by taking any two languages at random and finding large numbers of "cognates" between them, often to very amusing effect» (Matisoff 1990: 112). Berak ere sinotibetera eta amerindierazko zerrenda bat egin omen zuen, «List furnished upon request to adults 18 years old or over», alegia; Traskek (1997: azken atala) ematen digu euskara-hungariera zerrenda ederra ere, hungarieraz —"zorionez"— ezer jakin gabe eta hizkuntza horren ingelesezko hiztegi on bat izanik lauzpabost ordutan etxean egina. Traskek zuzen dioenez beste hainbat konparazio ez dira sendoagoak ez oinarrituagoak.

Sinestezina badirudi ere, izan dira *reductio ad absurdum* hauek horrela hartu ez dituztenak, "erkatutako" hizkuntzen arteko lotura genetikoaren frogaraz legez baikik: «[...] With a correct understanding of macrofamilies and the principle of external comparison, however, Finnish may indeed be "seriously taken" to be related to many American Indian languages, and its exact correspondence with the reconstructed grammatical forms of Amerind only supports the Amerind hypothesis» (Shevoroshkin apud Campbell 1998: 145). Ez dirudi honek iruzkin handiren beharrik duenik.

Peterrek berak (1992: 340) markatu legez, hoberenean ere emaitza (ezagun!) zuzena lortzeko % 50eko ahalmena duen metodo batek laguntza urria eman liezaiguke munduko hizkuntzak sailkatzeko. Hemen ere —lehen glotokronologian eriden bezala— arazo nagusia oinarrian bertan dugu, kognadoen hautaketan, alegia:

2.1. Selecting affinities. The putative correspondences were established by scanning the list of the English glosses of 84 core concepts taken from Greenberg 1987, and comparing these to Hindi and Finnish equivalents. Selection was made on the basis of rough similarities encountered while visually scanning the list. To the best of my ability, I have tried not to let prior knowledge of cognates affect my judgment. There were, to be sure, difficulties in selecting the groups (pairs or triplets) that should be regarded as “bespeaking a common origin”. The question that arises is: how close do words have to be in order to be scored as similar? Are English *saliva* and Finnish *sylki* sufficiently close, if they are, are Hindi *pissu* “flea” and Finnish *kirppu* “flea”? I have found nowhere in Greenberg’s work explicitly stated criteria by which to make this judgment (1992: 335).

Izan ere, Greenbergen «alderdi anitzeko hurbilketa» (AM 15) —euskarazko itzulpen honek besterik pentsaraziko balio ere norbaiti— ez da item lexikoen miaketaren bitarteko hurbilketa ezagunena baizik. Greenbergekin berak dioenez hizkuntza askotako hitz gutxi batzuk aztertzen dira metodo konparatu estandarreko hizkuntza gutxi batzuetako hitz anitz aztertzeko ohituraren aurka. Bestalde, azaleko (begizko) miaketaz aurkitutako antzekotasun lexikoak dira erlazio genetikoak onartzeko oinarri. Ez da harritzeko Campbell (1998: 315) metodo honen egitekoa besteak hasten diren puntuatan amaitzen dela esatea:

This inspectional resemblances must be investigated to determine why they are similar, whether the similarity is due to inheritance from a common ancestor (the result of a distant genetic relationship) or to borrowing, accident, onomatopoeia, sound symbolism, nursery formations and the various things which we will consider in this chapter.⁹⁷ Since multilateral comparison does not do this, its results are controversial and rejected by most mainstream historical linguists.

Campbell, azken finean, Meilletek⁹⁸ aspaldi aldarrikatuari jarraikitzen zaio:⁹⁹

97. Matisoffek (1990: 113) berariaz markatzen du Greenberg eta bere jarraitzaileen metodoak ez duela hizkuntz-elkarte (*Sprachbund*) fenomenorik edo faktore tipologikorik baztertu ahal ere.

98. Poser & Campbell (1992: 217)-n erakusten da Sapir ere azken finean iritzi bereko zela eta baita hizkuntzalaritza indoeuroparrean lehentasuna izan zuela morfologia sistemen antzekotasunak lexikoaren azterketaren gainetik. Oso jakingarriak dira Sir William Jones-ek berak egindako sailkapen-hutsak (zenbait hizkuntza iraniar edo malayera semitikotzat, eta zenbait hizkuntza austronesio indoeuropartzat jo zituen) lexikoari gramatikari baino garrantzia handiagoa ematean.

99. Hara Campbellen liburuko urrutiko ahaidetasunen ikerketari buruzko atalaren amaiera: «Given the confusion that certain claims regarding proposed distant genetic relationships have caused, the methodological principles and procedures involved in the investigation of possible distant genetic relationships are extremely important. Principal among these are reliance on regular sound correspondences in basic vocabulary and patterned grammatical (morphological) evidence involving ‘shared aberrancy’ or ‘submerged features’, with careful attention to eliminating other possible explanations for similarities noted in compared material [...]. Research on possible distant genetic relationship which does not heed the methodological recommendations and cautions of this chapter will probably remain inconclusive. On the other hand, investigations informed and guided by the principles and criteria surveyed here stand a good chance of advancing understanding, by either further supporting or denying proposed family connections» (1998: 326).

Les concordances grammaticales prouvent, et elles seules prouvent rigoureusement, mais à condition qu'on se serve du détail matériel des formes et qu'on établisse que certaines formes grammaticales particulières employées dans les langues considérées remontent à une origine commune. Les concordances de vocabulaire ne prouvent jamais d'une manière absolue, parce qu'on ne peut jamais affirmer qu'elles ne s'expliquent pas par des emprunts ([1914], apud Poser & Campbell 1992: 215)

Plus sont singuliers les faits dont on constate entre deux langues la concordance, et plus grand est la force probante de la concordance. Les formes anomales sont donc celles qui sont les plus propres à établir une "langue commune" ([1925], apud Poser & Campbell 1992: 215)

Greenbergekek, aldiz, korrespondentzia fonologikoak ezartzen ez saiatzeaz landa, ez du bere "grammatical evidence" delakoan gainerako ikertzaileek hizkuntzen arteko lotura genetikoak onartzeko eskatu sakoneko korrespondentzia morfologikorik edota irregulartasun amankomunik bilatzen. Azaleko antzekotasunak dira hor ere: aspalditik (Meilletek berak, demagun, gehienetan duten tamaina laburratik) lekukotasun ahultzat jo ohi diren izenordainak, hitz askeak, morfema solteak (ez ablaut sistemak edo paradigmak)... Eta morfologian ere lexikoan egileak hartu ohi dituen "askatasuntxoak" ahaztu gabe, jakina: erlazio semantiko zalantzazkoa, antzekotasun fonologiko eztabaidagarriak edota segmentu bakarrekoak, morfologi-analisi oker eta interesatuak...¹⁰⁰ Azkenik, Greenbergekek ez du frogetarik frogena ere onartzen:

If we want to say, with Greenberg, that demonstrating genetic relationship does not require any kind of reconstruction, then I think it's appropriate to ask what the purpose of our genetic classification is. I believe that most historical linguists value the classifications because they help us find out about the histories of the languages in a family. We reconstruct parts of their common protolanguage and then use those reconstructions to study and compare the changes that have occurred in the various daughter languages. In other words, to be useful to a historical linguist, a hypothesis of genetic relationship must be fruitful: a valid genetic grouping will permit reconstruction and thus lead to be a better understanding of the member languages and their histories. If a genetic hypothesis does not lead to new insights of these kinds, then it is sterile and, within linguistics, useless (Thomason 1993: 494; esan gabe doa hizkuntza isolatuetan ere argudiaketa berbera litzatekeela).

Greenbergen liburu honen iruzkin ugari izan da mundu osoko aldizkari garrantzitsuetan eta, espero zitekeen bezala, *International Journal of American Linguistics*-en: haien artean ez dut bat ere ezagutzen G-en metodologiaren eta ustezko emaitza orokorren aldekorik eta azkenen artean "Greenberg eta X hizkuntz familia" sail edo eraso-estilo zabaldua aurki liteke. Ez da bakar bat ere delako (iruzkintzaileak ezagunen duen) familia horri dagokionean G-en oinarri eta sailkapenak gezurtatzen ez dituenik, ezjakintasuna, utzikeria eta faltsifikazio gradu ezberdinak agerian utziaz. Hara zenbait adibide:

When I first saw Greenberg's *Language in the Americas* I turned to the cognate sets which included Yurok and Kalapuya, both of which I have worked on, to see how

100. Bati baino gehiagori ekar bide liezaioke honek guztiak Boudak konparaketa euskaro-kaukasikoan egindakoaren oroitza penik; cf. Mitxelena 1950, Lakarra 1996.

Greenberg had treated them. The results were disappointing. Nearly every form required some sort of emendation [...] Obviously Greenberg should have gotten the aid of specialists in the various languages. The reader should be warned not to use the forms in *Language in the Americas* without first checking to be sure that they are correct. One wonders whether the low standard of accuracy seen in the Yurok and Kalapuya data is representative of the entire book (Berman 1992: 230, 233).

[...] Unfortunately, it is marred by errors in both methodology and data, which make it essentially useless for its intended purpose. I have experience in only one language family, the Muskogean, and feel qualified therefore to criticize the material in *Language in the Americas* pertaining only to that family [...] This survey of the Muskogean, "Gulf" and Yukian material in *Language in the Americas* has shown that a high percentage of the items quoted contain errors, from the trifling to the severe. Although my experience with other American Indian linguistic families is limited, I would expect that a similar percentage of errors would be uncovered by linguists familiar with those families [...] It is distressing that a work of this nature should be so untrustworthy; no linguistic item can be taken from its pages without checking with a reliable modern source. The saddest fact in that *Language in the Americas* is not necessarily wrong in its insights into the deeper relations of American Indian language families to one another, but without the rigorous application of the rules of comparative linguistics, and the use of accurate and verifiable data, a work such as this cannot be trusted, and should not be used (Kimball 1992: 447, 489).

Kimballen zortzi eratako hutsak aurkitzen ditu:

(1) Datuen iturriak ez dira ematen (Kimball 1992: 447).

(2) Datuok zaharkituak dira (448).

(3) Datuak gaizki transkribatzen dira, hiztegi eta gramatiketarik arin batean hartuaz inongo ezagutza filologikorik gabe (448).

(4) Hizkuntza bateko eta besteko datuak nahasten dira (448).

(5) Hizkuntzen arteko konparaketak ez dira explizitoki egiten, zerrenda hutsetarik irakurleak antzeman behar duelarik (449).

(6) Aitzinhizkuntzak ez dira erabiltzen eskura direnean ere (449).

(7) Kognadoak ez diren formak erkatzen dira (449).

(8) Item bera kognado sare diferenteetan erabiltzen da (449).

Eta ez pentsa hutsak txikikeria batzuk direla:

Thus, out of a total of 268 Penutian sets containing Muskogean, "Gulf", and Yukian material in *Language in the Americas*, 185, or approximately 69%, had errors severe enough to require correction; 106, or approximately 39%, were of such a severity that the Penutian set was weakened or eliminated. The situation is much worse for the proposed relationship of the Yukian languages and the "Gulf" languages. Of the 40 Yuki-Gulf sets published in *Language in the Americas*, only 9 can be considered to have any validity. The number is so small that these resemblances seem to be due entirely to chance, and not to result from genetic origin (Kimball 1992: 488).

Greenbergekin bere alde ekarri ohi du Ameriketako jipoia goxatu nahian Afrikan mende laurden lehenago lortutako garaipen ustez zalantza eta ikamika gabea: hark proposatu (1963 eta lehenagoko lanak) Afrikako hizkuntzen sailkapen laukoitza (Afroasiatikoa, Nilo-Sahararra, Kongo-Kordofaniarra, Khoisana) ikertzaile orok ezagutu omen du zuzentzat eta erabili estandartzat bere lanetan geroztik, ordezkorik inork aurkeztu ez omen duelarik.

Alabaina kontakizun eta kontaera honi ohar eta zuzenkizun garrantzitsu anitz egin ahal zaizkio. Hasteko, kontinente batean gauzak ongi ateratzeak ez dakar nahita nahi ez aldamenekoan ere horrela izan beharra: hots, litekeena da Greenbergi Afrikan bere metodoaz atetiko zioengatik arrazoia eman izana edota ozenki ez ihardetsia, bederen. Kontinente batean gutxi kritikatzek ez lezarke bestetan ere nahita nahiez egokia izatea edota metodo onartezina justifikatzea. Izan ere, bat baino gehiago izan zen Greenbergen sailkapenean metodo konparatuaren aurkako berririk ikusi ez zuena eta soilik berrikuntza horietaz ohartzean Greenbergen hatsarriez eta sailkapenaren oinarri eta segurtasunari buruzko zalantzak agertu zituen; Ameriketara, aldiz, metodoarekiko eztabaidak lehen momentutik abiatu dira, Greenbergi batere laguntzen ez ziotelarik.

Areago dena, Afrikan Greenbergekin ez zuen ekarri Ameriketara adinako aldatzarik 150 hizkuntz familiarik edo 3tara igaroz eta, erantsiko nuke, inork ez bide zuen behatz muturrak ukitu uste Amerikan bezala kontinente horretako lehen gizakiaren sarrera; hemen lilura horiek aspaldi atzanduak ziren. Sailkapen laukoitz hartan afroasiatikoa oinarriak lehenagokoak dira (horri txadikoa erantsi badio ere), khoisan taldea ere lehenagokoa dugu eta Nilo-Sahararra ez da funtsean aspaldiko "Sudanikoa" ken kamitosemitikoari erantsiak. Aldaketa gehien "Kongo-Kordofaniarrean" izan zen, batez ere bantu hizkuntzak ez talde beregaina baizik eta erraldoi horren adar apala bilakatzean. Sailkapenaren estatusa ere behin-behinekotzat hartu zen, inork ez baitzuen frogatuztat ematen bertako beheko edo goragoko adar askoren familiasuna,^{97b} klik famatuak eta beste zenbait ezaugarri tipologiko agian berrik elkartzen zituzten hegoaldeko hizkuntzena (khoisan), esaterako, baina ezta seguruena edo aipatuena den afroasiatikoa bera ere (cf. Fodor 1966, Dixon 1997,¹⁰¹ Campbell 1998).^{98b}

97b. Dixonekin dioenez (1997: 32) inork ez du indoeuropearekin, semitikoarekin, algonkinoarekin edo uralikoarekin erlazio genetikoak finkatzeko erabiltzen den metodologian onargarritzat jo litekeen frogarik aurkeztu, ezta maila diferentetako aitzinhizkuntzak berreraikitze saiorik burutu; antzekotasunak azaltzeko hizkuntzen arteko ahaidetasunaz landako azalpenak direla gogoratzen duenarentzat nekez esan liteke hizkuntzalaritza historikoak Afrikan Greenbergekin aitzinamendu nabarmenik izan zuela.

101. Cf. «There is no reputable historical linguist, anywhere in the world, who accepts the claims of Greenberg and the Nostraticists» eta oharrean: «Lest this be thought circular, let me provide a criterion for recognising a large group of reputable historical linguists: anyone who teaches the subject at a leading university in the USA or in an EEC nation» (Dixon 1997: 44).

98b. Hara zer dioskun futnsean Greenbergen aldeko zen Winston-ek: «[...] Greenberg's findings have constituted a major advance in this field; and that they now require considerable refinement, both in specific points of the classification, and in the underlying conceptual scheme» (1966: 160).

Afrikako hizkuntzen sailkapenari iruzkin labur bezain argia eman ondoren (1997: 32-35), Dixonekin zera diosku Greenbergen beste sailkapen proposamen batez: «There is also Greenberg's 'Indo-Pacific hypothesis' (1971) purporting to show that the 60-odd Papuan families from New Guinea, the extinct languages of Tasmania, and the various languages spoken in the Andaman Islands are

Ondoren (23. orr.) AM-ek zirrara izan zuela aitortzen du nostratikoaren eta eurasiarraren¹⁰² mapak gainjartzean, oraindik euskara isolaturik kausitzean; alabaina, egileak —pozik edo?— gaztigatzen du gauzak atzerago eramanaz (30.000 bat mila urte) euskararen askaziak (na-dene hizkuntzak) lor ditzakegula:

Mapa horretan zirrara latzena eragiten diguna, ordea, berebiziko denbora-tarteak egin ditugun arren, esandako hizkuntz superfamilia horretan oraindik ere ezin txertatuzko hizkuntza isolatuak hautematea izan da, hauen sustraiak (denboran) sakontasun handiagoko substratuetan leudeke eta. Horietako bat dugu euskara.

Atzeratze-prozesu horretan beste zerbait ere formulatu izan da, hots, aintzi-nagoko garaietan —duela hogeita hamar bat mila urte—, baliteke halako hizkuntz familia eskerga (“dené-kaukasiar” [sic] izenekoa) izatea, planetaren ipar-hemisferio osoa beteko zukeena. Greenberg eta hizkuntzalari errusiarren familia nostratiko-eurasiarra¹⁰³ baino lehenagokoa. Jatorrizko superfamilia hura desagertu omen zen, nostratiko-eurasiarraren inbasioa pairatzearen ondorioz. Jatorrizko hizkuntza haren lekuko geratuko ziren euskara, Kaukasoko hizkuntzak, sino-tibetarra eta Ipar Amerikako indioen na-dené deritzona. Hau baieztatuko balitz, euskara loturik agertuko litzateke gure planetako beste hizkuntzekin, eta irla-hizkuntzazko egoera gaudituko luke, azkenean.

Lehenagoko denbora-koordinatuetan euskara kokatzean, paleoantropolo-giak, bere aldetik, argi-izpi berririk erakuts diezaguke. Gaur egun ere harrizten gaituen zeinu-sistema biziki konplexu hura asmatu zutenak nor izan zitezkeen argituko digute datu horiek, agian (23-24).

Aipua luzexka bada ere, interesik baduela esango nuke egilearen hatsarriak zein diren eta horien sendotasuna ikuskatzeko.¹⁰⁴ Ezer baino lehen, beldur naiz

genetically related (...) This idea lacks any substance, and is perhaps even more fanciful than Greenberg's American Indian work» (ibid., 3. oh.). Campbell-ek ere ez du ahazten Greenbergen beste hipotesi honi buruzkoa *The African fallacy* deitutako bere 1997ko liburuan (254-57) eta Fodor 1966ko [laugarren edizioko] hitzaurrea argigarria da Greenbergekin bere arerioen kritikak saihesteko zuen trebezia.

Azkenik, Greenbergekin 50etan ukitu zuen Australiako hizkuntzen sailkapenaz hara zer irakur litekeen berezilaririk handiena bide den Dixonengan: «It is possible to establish low-level subgroups in Australia —groups of from two to a dozen or so languages that appear to have a close genetic relationship. With two exceptions, all of these are geographically contiguous. No higher-level family tree can be justified linking the low-level subgroups» (1997: 92).

102. Eurasiarraz ez da Greenbergekin 1987ko liburuan suposatutako batasuna baizik; frogak oro peitu ditu eta ikertzaileen esperantzak, nolazpait esan, urriak dira. Cf. Matisoffen ondoko pasartea: «Leaving aside (1) for the moment, we may apply G's 'principle of transitivity' to the above theories, removing any apparent contradictions among them by assuming they are ALL valid —i.e. that Dravidian, Sino-Tibetan/Tibeto-Burman, Altaic, Ainu, Austro-Tai and Indo-European are all related to Japanese and to one another. We can be sure that it is by such leaps of transitivity that G will progress toward his ultimate goal of linking up all human languages into the Sapiens family» (1990: 115).

103. Watkins-ek zioen legez (1990: 295), komeni da AM-en 22. orrialdeko mapan egin baino zehaztasun gehiagorekin bereiztea batoren eta bestearen artean: «A comparison of the language groups in Greenberg's 'Eurasianic' family... with those in Illic-Svityc and others' 'Nostratic' family shows, if nothing else, the perceptual variability —and consequent fragility— of such inspections. Thus, 'Eurasianic' includes not only Korean and Japanese, but also Ainu, Gilyak, Chukotian, and Eskimo-Aleut; 'Nostratic' excludes some of these, but includes Khartvelian, Dravidian, and at least the 'Semitic-Hamitic' component of Afro-Asiatic, which for Greenberg (and for me) are separate families» (apud Ruhlen 1994: 133).

104. AM baino apalagoak bide dira hizkuntzalariak: munduan oraindik diren milaka hizkuntzen artean (areago arrasto ugari edo eskas utziaz betiko joan direnak emendatuz geroz) beren metodoen araber ez bat edo beste baizik eta dozenaka dira isolaturik gelditzen direnak, tranparik egin ezean, bederen.

ez dela optimismo orokor horretarako inongo arrazoirik. Hots, familia eurasiarra edota nostratikoa ez dira “familia” ezagun eta erabatekoak erromanikoa, finougrioa, maya, austronesioa, semitikoa, bantua edota algonkinoa izan daitezkeen moduan.¹⁰⁵ Hau da, ez da batasunik hizkuntzalarien artean horien familiatasunaz, edota, hobe esan, iritzirik duten hizkuntzalari gehienek (% 100etik gertuago % 51tik baino) ez dute horrelakorik onartzen eta alde diren gutxiei sineskeria eta amarru zenbait aurpegiratu izan zaie lehen eta orain (cf. 92. eta 106. oharra).

Hara Johanna Nicholsek (1996: 39) dioskuna bere artikulu garrantzitsu baten hasiera-hasieran:

Nonlinguists are not always able to distinguish easily between genetic groupings established by the comparative method and those proposed on other grounds. A much-publicized recent example is Cavalli-Sforza et al. (1988), where the very deep macrogroupings the authors assume for languages of the Pacific and New World are treated as the same kind of groupings as Indo-European or Uralic. Another example is Renfrew 1991 [...] Comparative linguists distinguish between genetic groupings established on the basis of the standard comparative method and those not so established, which they generally view as probabilistic or speculative or even fanciful.

Na-dene familiaren kontuak merezi du aipu berezirik. Azken hamarkadetan “biltzaileen” (*lumpers*) eta “zatitzaileen” (*splitters*) artean den eztabaidan Greenbergek (1987) Amerika osorako proposatu hiru familietarik batek lortu du guztien adostasun orokorra: aleuto-eskimoak, alegia. Alabaina, familia horren proposamena ez zaio Greenbergi zor, joan den mendetik ere aitortua baitzen Siberia iparraldetik Groenlandiara bitartean diren dozenaldi hizkuntzen batasun hori.

Na-Dene delakoa dugu Greenbergen bigarren familia Ameriketara, Alaska eta Kanada mendebaldeko zenbait hizkuntza eta askozaz hegoalderagoko navajoa

Bestalde, euskara inongo koordenadatan kokatzeak ez bide luke paleoantropologiaren aldetiko aitzinamendu berezirik: nolani ere, nago «zeinu sistema konplexu hori asmatu zutenak» nor izan ziren aurkitzea ez dugula bihar bertan eskura izango, esperientzia mistikoren batez edo ez bada, behintzat; izan ere 30 eta are 60 mila urte baino gehiago ere igaro bide dira geroztik, eta ezagutu ditugun eta ezagut ditzakegun hizkuntza guztiak (euskara barne) ez dira beste lehenagoko batzuen aldaketa baizen, “euskal hominizazioa” ezinezko ez eze barregarri gertatzen delarik. Egileak ba ote daki Parisko Hizkuntzalari Elkarteak bere sorreratik lan glotonikorik ez onartzea erabaki zuela? Izan ere, bai lehen eta bai orain (cf. Trask 1996 “Proto-World” delakoaz) amateurrak eta hizkuntzalaritzaren ikergune nagusitik urruti zebiltzanak (Trombetti eta) eta dabiltzanak (izan) dira hizkuntz-unigenesia, —gehienez ere norberaren sinismen isileko huts izatetik—, teoria edota lan hipotesi bihurtzera abiatu diren bakarrak.

105. Nostratikoz bibliografian aipatzen diren zehatzagoz (Bomhardenak alde, Campbell 1998, Doerfer 1995, Ringe 1995 aurka) landa, hara Dixonen ondoko pasarte hau: «During recent years this term has been revived by a group of mainly Russian scholars (and modified to ‘Nostratic’) to cover a putative linkage of language families—IE, Uralic, Turkic, Mongolian, Tungusic, Dravidian, South Caucasian (Kartvelian) and perhaps Afroasiatic (...) they achieve their results only by allowing excessive phonological and semantic leeway (...) It is relevant to enquire how this Nostratic idea came to be accepted as an orthodoxy in a country like Russia which has such high standards in other scientific fields (physics and mathematics, for example). The Nostratic idea took root at a time when Russian intellectuals were cut off from close contact with the rest of the world, in a sort of Lord-of-the-Flies situation; there was no peer group available that would have employed proper standards of scientific assessment and demonstrated the unsound basis of the idea» (1997: 38-39). Ez dezagun guk ere moda irrigarriren bat Jainkoaren hitza bilaka herri hautatu honetan.

(hortik *na-* hori) besarkatzen dituelarik haren ustez.¹⁰⁶ Egia esan, familia hau ere —familia proposamen hau, hobeto— Greenberg baino lehenagotik ezagun zen, mende hasierako lanak eurak lekuko.¹⁰⁷ Areago dena, Greenberg baino lehenagokoak dira, orobat, *na-denea* Ameriketatik atera eta hedadura handiagoa eman nahi izan ziotenak: hau izan zen —*na-denea* eta txino-tibeteraren arteko lotura, zehazki— Sapirrek (tonua, isolamendua eta antzeko arrazoi tipologikoengatik) burutan izan zuen eta gainerako hizkuntzalariek onartzea lortu ez zuen sailkapen-proposamen famatuenetarik.¹⁰⁸ Haren ikasle Swadeshek eta bestek hipotesi honen alde egin izan zuten arren berrogeitahamar-hirurogeitahamarretan eta Shevoroshkin eta enparatuek familia hori hedatu guri hurbilago egingo bide litzazkigukeen buruhaskira, Kaukasoko hizkuntzetara eta bestetara,¹⁰⁹ nekez esan liteke *na-dene* familia lehen aipatu den adiera hertsienetik kanpo onartu izan denik ofizioko hizkuntzalarien artean.

10. Bada, hara non etorri den euskal zientzia, hots, Euskal Herrian argitaratzen dena, ideia hauek aldatzera eta suntsitzera guztien harridurarako, “bertako ikerketen alde” agertzen den AM (12 hh) horretaz ohartu ez arren. Joan den hamarkadaren akabuan eta hamarkada honetan *Fontes Linguae Vasconum*-en argitaratutako zenbait lanetan¹¹⁰ Schumacher-ek eta Seto-k erakutsi nahi izan digute *na-denea*, ez bakarrik txinera eta kaukasierarekin, buruhaskia eta hizkuntza paleosiberiarren batekin, baizik eta euskararekin, Himalayako hizkuntzekin eta are austronesioarekin ere lotua dela; azkenik (oraingoz?) euskara eta kikuyua (500 edo gehiagotariko hizkuntza bantu bat) ere askazi omen.¹¹¹ Austronesioarekin

106. Hirugarren familia, amerindiarra, litzateke hortik eta Tierra de Fuego bitarteko hizkuntza guztiak bilduko omen litzuzkeena; eraikuntza honek ez du berezilarien adostasunik lortu eta bai xehetasunei eta oinarri buruzko kritika gogorak jaso. Honetan ere Greenbergekin aitzindariak izan zuen, ortodoxoek ezagutzen dituzten 150 bat familiak Sapirrek dozerndi phylatara eraman nahi izan baitzituen (nahiz eta ez frogatutaz baizik eta behinbehinekotzat eman). Hortik aurrera egiten du, bada, Greenbergekin, teilatugintzan ari bailitzan, oinarriak basaren gainean izan arren, lehen eta orain ezagun den bezala.

107. Cf. «Although there are some antecedents (...) the Na-Dene hypothesis is usually attributed to Sapir (1915), who proposed a relationship between Haida, Tlingit and Athabaskan. (Eyak was rediscovered by American linguists in the 1930s)» (Campbell 1997: 284).

108. Oregon eta Kalifornia aldeko hizkuntzak bilduko omen litzuzkeen penutierarekin batean, esaterako; ideia honen aldeko izan ziren Sapir, Kroeber eta beste hainbat (Uhlenbeck gure artean) baina ez da frogatutaz eman ahal —are gutxiago berreraikitaz aitzin-penutiera— ezaugarri amankomunak (tipologikoak edota hizkuntz-batasunekoak) beren artean aipatu arren.

109. «The more extreme proposals of distant linguistic kinship involving so-called Na-Dene languages—such proposed groupings as Athabaskan - Sino - Tibetan, Na - Dene - Basque (- North-Caucasian)—should be discounted, given the extremely poor quality of current evidence» (Campbell 1997: 286).

110. Baliteke aldizkaria horrelako lanak argitaratuaz euskalaritza eta hizkuntzalaritza konparatuaren alde lanean ari dela pentsatzea. Komeni da ohartzea, ordea, Euskal Herrian beren zintzotasun eta trebezia zalantzaren bat izan dugunontzat, hemendik kanpo ere ofiziokoek ez dietela abegi onik egin. 1984 aldera Mitxelenak lortu zuen —berak zekikeen nola— “kaukasistek” *ASJU*-ra beren lanik gehiago bidal ez zezaten; *Eusker*a eta *FLV*-en ez dirudi —argitaratuaren arabera bederen— horrelako saiirik egin denik, adierazpen askatasunaren zaleago zirelako edo.

111. AM-ek aipatzen duen armeniar ikertzaileak (?) ere badu esankizunik, aldizkari berean jakina, armeniera eta euskararen arteko loturez; mitologia, kultura eta antzekoak antropologo adiskideei utziaz, esan dezadan mundu osoarentzat (salbu eta *FLV*-rentzat) armenierak eta euskarak inongo hizkuntz lotura historikorik ez dutela izan (zer ote beren arteko 2000 paralelismoen kontua?), eta hori garbi dago armeniera 1887an behinbetikoz indoeuropar hizkuntzatzat ezagutu zenetik. Armenieraren historia eta filologia ez ezagutzea (Meillet eta ondokoen berririk ba ote?) eta euskararena ingelesezko adieran “ignoratzek” (edota Hegoamerikakoan “ninguneatzek”) ez lioke inongo sasihizkuntzalari ez giza-espirituko jakintsuri berariazko inpunitaterik eman behar.

egia esan, jai dute, aspalditik —joan den mendearen akabutik— garatua baita hizkuntz familiar azterketa konparatuaren barnean; kikuyuaz, hainbeste: bantu hizkuntzetarik da eta familia horren sailkapen eta berreraiketa aitzinatua da metodo ortodoxoen barnean.¹¹² Zilegia begitantzen zait irakurleari gogoraraztea hizkuntzalaritzan ere multzo teoriaren propietate trantsitiboak indarrean dirauela.¹¹³

Ezjakintasun, ausardia eta amarruen adibidetzat har bitez gutxi batzuk (k. = kikuyu, e. = euskara):

1. k.	<i>ithoni</i> (=source, spring)	:	e. <i>iturri</i> (id)
2. k.	<i>iria</i> (=lake)	:	e. <i>ura</i> (=water)
3. k.	<i>-andûku</i> (=large)	:	e. <i>andi</i>
4. k.	<i>-nini</i> (=small)	:	e. <i>ñimiño</i> (id)
5. k.	<i>guoko</i> (=hand)	:	e. (esku-) <i>xoko</i> (=palm)
6. k.	<i>mbegû</i> (=seed)	:	e. <i>bikor</i> (=grain)
7. k.	<i>aria</i> (=to speak)	:	e. <i>erasi</i> (id)
8. k.	<i>aka</i> (=to build)	:	e. <i>egin</i> (id)
9. k.	<i>ura</i> (=to rain)	:	e. <i>uri</i> (=rain)
10. k.	<i>-kuî</i> (=short)	:	e. <i>gutxi</i> (id) ¹¹⁴

(1)-ek okulistaren froga agian gaudituko du —eskuzabala edo itsua balitz harako hura— baina bestetan sartu aurretik jakin beharko genuke euskaraz zergatik (4)-n ere ez den *-r-* (edota honetan *-n-*).

(2)-n euskarazkoaren 3. fonema artikulua delarik ezin kontatu; bestalde, zergatik hemen *i-* : *u-* aurrekoan *i-* : *i-* genuelarik?

(3) Orain ere *-u-* : *-i(-)* dugu; alabaina, euskarazkoan *h-* segurua izateaz landa, amaiera ez ote atzizki ezagunen bat? (cf. Lakarra 1996).

(4) Forma hipokoristikoek eta onomatopeiek ez dute konparaketan balio; are gutxiago *-m-* duen euskarazkoak. Cf. Trask (1996, 1997) fonema honek euskararen berreraiketan (ez) duen egitekoaz.

(5)-eko euskarazkoaren semantika aski urruti gelditzeaz kanpo, kikuyua hor joatekotan ere erromantzearekin eta arabierarekin lihoake bat.

112. Besterik da bantua onartzea edo ez azpifamiliarizat "Niger-Congo" delakoaren barnean, Greenberg 1963 jarraituaz; cf. aurreko ataleko oharra Afrikako hizkuntzen sailkapenari buruzko eztabaidetarako.

113. Eta Greenbergekin berak ere onartzen duela; cf. Matisoff 96. oharrean.

114. Schuhmacher & Seto 1994: 435-436ko lehen hamar adibideak dira (guztira 42 dira, gainerakoak ez nik iruzkinduak baino nabarmenki hobeak); bidenabar, hiru orrialde eskasetako "lanaren" azpi-izenburuan honela datza idatzia: «Examples for grammatical and lexical parallels of the basic vocabulary between the Bantu Kikuyu language and Pyrenean Basque, dating from the beginning of the ancient Egyptian "Dynastic" period» (435).

(6)-ren hasierako “antzekotasuna” oso polita litzateke Martineten (1950) aitzineuskarazko kontsonanteen teoriarako; damurik, kognadoen “antza” urria izateaz landa, euskarazkoan konposaketa garbia dugu.

(7) eta (8)-n ohar gutxi egin behar zaio euskal morfologiaz zerbait dakienari: morfema bat baino gehiago denez, ba ote bertan “grammatical parallel”-ik bi hizkuntzetako formen artean? (8)-n, bidenabar, “antza” ere zalantzan jar liteke; bokal korrespondentziaz hobe ezer ez esan.

(9)-n *uri*-k ez du “Egyptian Dynastic period”-eko aitzineuskarazko izateko aukera handirik; bestalde, ez ote horren morfologiazko analisi sakonagorik?

(10)-eko *gutxi*-k badu beste aldaerarik eta *guti*-k, demagun, zaharragotzat jotzeko eskubide gehiago izateaz landa, bere *-ti* horrek ez ote digu urrutiago jotzeko eskurik ematen?; cf. (3).

Laburtuaz, maileguak, onomatopeiak, esanahi okerrak, analisi morfologiko gaiztoagoak, forma dialektalak eta berriegiak, gutxi-gora-beherako inspektzio- (okulista- / otorrino-) irazkinak, lege fonetikoak eraikitze edozein saioaren falta... Honela ez goaz inora, jakina, erreka jotzera ez bada. Hori bai, norbaitentzat *à la page* egoteko forma bat bada, bejondeiola...¹¹⁵

11. Peredika arrunt luzatu denez, ahal bezain laburki amai dezadan. Honaino jarraiki zaidan irakurlea ohartu bide da dagoeneko liburua ez zaidala gustatu, ez bere helburu handinahiangatik edota horien atzean (zein aurrean) diren asmo politiko nabarmen bezain errespetagarriengatik,¹¹⁶ baizik eta bertan ikusten dudak jakitate neurriren batean aitzintzeko bide desbideratuagatik. Dibulgazioa zein oinarrizko ikerketa egin nahi bada —batean eta bestean badateke premiarik baina ez gizabanakoarentzako obligaziorik— betebeharreko gutxieneko batzuk badira eta ikusi dugunez, AM-ren pasarte askotan ez da horrelakorik nabari.¹¹⁷

AM-k honela ez baleritzo ere, hizkuntzalaritza historikoa ez da egungo egunean —eta badira bi mende— literatur kritika, metafisika edo ekonomiaren zenbait alderdiren kidesun eder bezain agorrean. Alorrek oinarri orokor eta orotariko batzuk ditu (metodo konparatua, demagun) hamarkada luzeetan langile

115. Metodo orokorarekin eta amerindieran egindako aplikazioarekin bigun agertu arren ene aburuz (cf. Trask 1996), euskara eta uestezko familia horren arteko lotura erakustera zetozen lanei Trask (1997: azken atala eta aurreko lanetan) egindako kritika zorrotza eta zuzena da oso.

116. Sokalek eta Bricmontek (1998: 17) «nuestro objetivo no es criticar a la izquierda, sino ayudarla a defenderse de un sector de ella misma que se deja arrastrar por la moda» diote eta ez bide da zaila jakiten hemen “izquierda”-ri zer dagokion; Michel Albert-engandik hartuaz toki berean haiek dioten ondokoa ere aldaketa handirik gabe sina genezake: «No hay nada veraz, sabio, humano ni estratégico en confundir la hostilidad a la injusticia y a la opresión, que es de izquierdas, con la hostilidad a la ciencia y a la racionalidad, que es un sinsentido».

117. Iruzkin hau prestatzerakoan berriz —gaztelaniaz oraingoan— irakurri dudalako edo (lehendabizikoz frantsesezko edizio ateraberria Beñat Oihartzabal adiskideak oparitu zidan), AM-en liburua Sokal eta Bricmonten liburuaren edota Sokalen artikuluko parodiko famatuaren, hobe, euskal oihartzuna ote genuen ere begitandu zitzaidan; izan ere han salatzen diren sasizko zientziaren hainbat ezaugarri (ez guztiak, halere) betetzen baitira honetan: informazio falta, irakurle ezjakina beldurtzeko azaleko erudizioa, eskuartean darabilen argudio, teoria eta kontzeptuen balioaz eta egitekoez hutsune larriak, autoritate argudioak, zehaztasun falta, erlatibismo kognitiboa... Alabaina, badirudi AM-ek guztiz seriotan eta txantxetarako gogorik gabe idatzi duela bere liburua.

trebe samaldek tamaina, egoera, kokapen eta zailtasun diferentetako hainbat hizkuntza eta hizkuntz familiatan mundu osoan zehar ezarri eta findu dituztenak, hititaren laringalak eta beste lekukotasun ezezagunagoak hatsarrien funtsezko egokitasunaz behin eta berriz ozenki mintzo direlarik. Jardun luze honek alorrari autonomia eta begirune txiki bat (Euskal Herritik at, behintzat) ekarri dio; metodo ezegokiak —usuenik presaturen batek zeharbide gisa bilatuak— edota metodo ezegoki zenbait bederen, baztertzea ere ekarri du: horrela glotokronologiarekin edota “mass comparison” delakoarekin, esaterako.

Beste edozein zientzi-alorrek legez, hizkuntzalaritza historikoak nahiago du ezagutzaren kalitatea kantitatea edo tamainaren zalaparta baino; hots, ez du inongo beldurrik hipotesiak luzatzeko eta berehalakoan azterkatzen eta —behar izanez geroz, eta beti behar izan ohi da— deuseztatzen aritzeko. Alabaina, zer den frogua litekeena, zer gezurtaturik gelditu den, zerk duen egiantza hutsa eta zerk bere aldeko frogua aske aski... horrelako galderak eta gogoetak eriden ohi dira hizkuntzalaritza historikoko argitalpen estandarretan. Nekez, aldiz, ustea ustearen gainean eta ametsa (edo komenientzia)¹¹⁸ ametsaren gainean pilaturik, beren buruak gazteriaren edota nazio-konzienciaren pizgarri izan nahi luketela esanaz (ikus beherago) zuritu nahi luketen idazkiak. Konpli da bereiztea jakin dakiguna —hau da, hizkuntzalaritza historikoaz diren munduko zaletu guztiek dakitena edota jakin behar dutena barregarri ez gelditzeko edo geldiarazteko— eta jakin nahi genukeena, jakitea on litzatekeena, jakin gogo duguna¹¹⁹ eta beharbada inoiz ez dakikeguna¹²⁰ edota orain arte eskura ditugun datu eta metodo estandarren bitartez (iruzurrik egin gabe, alegia) frogatu edo erabaki ezingo ditugunak: esaterako, paleolitoko hizkuntz egoerari buruzko guztia, gutxienez.

§ 1.2.en atalean AM-k «azkenean Euskal Zibilizazio handiaz, euskaraz eta gure herriaz irakurleari eskaintzen diodan ikuspegi sintetiko eta orokorrari original, ezezagun eta harrigarria deritzot» zioen bere lanaz. Sokal eta Bricmontek (1999: 203) diotenez —eta edozeinek dakikeenez— ikerketen ustezko asmoen eta emaitzen artean bereizi behar da eta iruzkin honetan zehar AM-en “Euskal Zibilizazio Handia”ren eraikuntza horretan, hizkuntzak eta hizkuntzalaritzak zeresanik izan lezaketen neurrian, bederen, konfidantzarik izateko zio guti dela erakutsi uste dugu. «Ni que decir tiene que no somos competentes para juzgar los aspectos no científicos de la obra de esos autores. Somos perfectamente conscientes de que

118. Cf. «In fact, however, sober-minded scholars have shrunk from megalocomparisons not because they are so difficult, but because they are so easy. When the number of languages being considered is large, when their relationship (if any) is remote, and the criteria for sound correspondences are lax, it is not very hard to find “phonosemantic lookalikes”» (Matisoff 1990: 110).

119. Cf. «Llegará el día en que, mediante un estudio de varios siglos, las cosas que actualmente están ocultas aparecerán con toda claridad, y la posteridad se asombrará de que se nos hayan escapado verdades tan manifiestas» (Seneka, kometen mugimenduaz mintzo; Laplace-k aipatua, apud Sokal & Bricmont 1999: 139). Bitartean Thomason-en helburuekin bat nator: «My goal in this paper is to show that we need to have some explicit criteria for deciding when we have reached the limits of our historical methodology, so that we don't step over the boundary that separates scientifically respectable research from idle speculation» (1993: 485).

120. Hara milaren artean (batez ere proposamen genetiko berrien iruzkinetarik atera ahalko liratekeen artean): «[...] lack of sufficient information certainly does not mean that there was no substratum interference; it merely means that we have no way of finding out whether or not there was any» (Thomason 1993: 492).

sus “intervenciones” en las ciencias naturales no constituyen el núcleo esencial de sus trabajos» diote Sokalek eta Bricmontek (1999: 25) “zientzia posmodernoaren” zenbait aitzindari kutunen lanak aztertzerakoan.¹²¹ Guk “hizkuntzalaritza” aldatu behar genuke “zientzia naturalen” ordeaz; alabaina, AM-en honako ariketa honetan alor hori ez da inolaz ere baztergarria funtsezkoena baizik.¹²²

Jose Azurmendik «oinarri zientifiko estriktoen gainean» eraikia dela (ik. 10. oh. eta hango testua) esan izan digu AM-ren (eta hemen aipatu ez dudana Naberanen!) gogoeta; ez dakit, ordea, Azurmendik hitz horien definizio apartekoren batekin lan egiten duen ala eta nik ezagutzen ez dudana zientifikotasunaren neurri bereziren baten jabe den. Bat nator Azurmendirekin dioenean «berak [AM eta Naberan] ez antropologoak, linguistak edo genetistak dira», ez hainbat «baina hori direnen ikerketa berrietan oinarritzen dira. Egiten dutena da, horien ekarpenak eskuan dituztela, gure iragana birgogoetatu —eta, zeharka, oraina jorratu, alternatiba errotik berri baten bila—» gehitzen duenean: AM-ek ez du bertan agertzen euskararen eta gainerako hizkuntzen inguruko gutxieneko ezagutzarik, dela horien iraganari eta bilakabideei buruzko analisi berri zuzenagoak edo sakonagoak proposatuaz, dela bestek azken hamabost zein berrogeita bost urteotan egindakoa miatuaz, pisatuaz, lotuaz eta gaindituaz.¹²³

AM-ek arrazoi izan lezake unibertsitate-giroko ikerketa —hots, egiatan egiten den ia bakarra— Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere hobe litekeela pentsatzean:

Hemen azalduko dudana, beraz, informazio zientifikoan eta historia sintetikoan dago oinarriturik. Hauze bera bestelako hitzekin esango dut: euskal ikaskuntzek ez ezik, gaur egun unibertsitate-mailan egiten diren ikaskuntza gehientsuek ezin sendatuzko gaitza dute: azterketa entziklopediko deskontrolatua, alegia. Egun egiten diren tesi doktoral edo ikerketa-proiektu gehienak, arazoak orokorki ulertzeko unean inongo garrantzirik ez luketen alderdiei buruzko aipamenez josiak daudela konturatuko zinen honezkero, onerako nahiz txarrerako, unibertsitate-giro horretan bizi bazara, neu bezala. Zerbait originala kontatu ahal izateko ikerlan akademikoak arras espezifikoak direnez, “ezerezi buruz den-dena jakitea lortzen dutela” umorez

121. «Sin embargo, cuando se descubre una deshonestidad intelectual (o una manifiesta incompetencia) en una parte, aunque sea marginal, de los escritos de un autor o autora, es natural querer examinar más críticamente el resto de su obra. No queremos prejuzgar los resultados de dicho análisis, sino simplemente disipar el aura de profundidad que ha disuadido en ocasiones a estudiantes —y profesores— de llevarlo a cabo» erantsiaz.

122. «The all too visible symbol of Basqueness is the language» zioen Wilbur-ek (1980: 5). Ikus § 1.3.ean antzeko argudio gehiago, egilearen beraren onespina tartean.

123. Aldaketa txiki batzuekin (hizkuntzalaritza matematikaren ordeaz edo) Russell-ek Bergson-i buruz esana ezar dakiok AM-en saioari: «Uno de los efectos negativos de una filosofía antiintelectualista como la de Bergson consiste en que prospera a merced de los errores y confusiones del intelecto. En consecuencia, tiende a preferir los malos razonamientos a los buenos, a declarar irresolubles las dificultades momentáneas y a considerar cualquier error tonto como una revelación del fracaso del intelecto y del triunfo de la intuición. En los trabajos de Bergson se encuentran numerosas alusiones a las matemáticas y a la ciencia, y, a los ojos de un lector desprevenido, esas alusiones parecen reforzar considerablemente su filosofía. En ciencia, sobre todo en biología y fisiología, no soy lo bastante competente como para criticar sus interpretaciones, pero en lo que se refiere a las matemáticas, el autor ha preferido deliberadamente los errores tradicionales de interpretación a las visiones más modernas que han predominado entre los matemáticos durante los últimos ochenta años» (Bertrand Russell, *History of Western Philosophy*, apud Sokal & Bricmont 1999: 181).

esaten da. Horren gauza berezi-berezi-berezien (eta, azken batean, horren txiki-txiki-txiki) azterketa, sakoneko ikerkuntza zientifikoa izan behar lukeenaren ordezkoren inoperantzia mozorrotzeko aitzakia da.¹²⁴ Hau da, azterketa, bai, baina bere testuinguruan; alegia, sintesiak burutuz. Testuinguru hauxe izango da liburu honetako helburu behinena. Euskaldun izatea ulertzera gertura gaitezen nahi dut, eta horretarako azterketak sintetikoa izan behar du, orokorra, osotasunezkoa. Orotasun horretatik bakarrik izango dira interesgarriak, gerora, zehazpenezko lan analitikoagoak (11-12).

Alabaina populismo errazek ez dute aitzinatuko euskal ikerketa eta Euskal Herria ere;¹²⁵ “euskal gauzak”, euskararen egituraren eta historiaren ikerketa, zehatzago, ez dira euskaltzale ez euskaldun soilen erantzukizun ez ehiza-txoko; zorionez, mundu osoko hizkuntzalaritzaren ardura da, gaiak bere apaltasunean jende gehiegi estresatzen ez badu ere gutariko batzuen ustez. Ez gaitezen engaina, ordea, sailaren aitzinamendu orokorraren bitartez baino ez gara aitzinatuko honetan ere; zertara datoz eskandala eta auhen horiek Euskal Herritik landa berton baino aitzinatuagorik ikusterakoan?:

Alderdi sintetiko eta osokoetan sartzeko —egotziko dit norbaitek— aurretiaz ikerkuntza analitikoa egin beharra dago, ondoren hipotesi globalagoak xedatu ahal izateko. Egia da, halaxe da hori. Baina gure kasuan, euskal zibilizazioaren kasuan, geroagoko ikertzaileen norabideak adieraziko dituen hipotesi orokorra eraikitzeko beharrezkoak diren *oinarrizko azterketa horiek eginda daude dagoeneko*, —*hau lotsa!*— *atzerrian gehientsuak*. Panorama honetan, ene betekizuna izan da lan sakabanatuak bildu, aztertu, elkarrekin lotu eta, azkenean, jokaleku berri bat (sintesi

124. Krutwig maisuarengan pasarte polit aipagarriak bazuen AM-ek: «Por otra parte, bien es sabido que lo que se llama en la investigación un “Fachmann”, es decir, un erudito en la materia, no tienen mayormente más cerebro imaginativo y creador que un simple “robot”... y no hacen todos ellos otra cosa que seguir las líneas de fuerza que les imponen otros hombres. Si de los periodistas se puede decir que son “hombres que hablan de todo y no saben nada de nada”, de un Fachmann se puede decir que es “un hombre que habla de una sola materia, que conoce una sola materia y que se supone que todo en el mundo es la materia que él en su limitación conoce”. Si los unos pueden ser peligrosos por su chabacanería, los otros son redutables por su arrogancia» (1979: 81). Segur naiz ondoko hau ere gustukoa dukeela: «Este tipo de investigación tan poco seguro es el que mayormente suelen manejar los “investigadores universitarios”, quienes siempre suelen estar tan contentos de la logicidad y de la forma en que se desarrollan matemáticamente sus teorías, que se desarrollan de una forma tan bonita y sin estorbos porque son productos de una imaginación calenturienta, sin otra base que la acumulación de tecnologías» (1978: 101). Eta zer esan azken bitxi honetaz: «Por ello, tendremos en la práctica siempre que mirar con mucho recelo a aquellas *teorías llamadas científicas* en las que se encierran otros intereses que los científicos. Así veremos que en lo general, cuando se defienden a capa y espada ciertas teorías contra toda la evidencia de la práctica, como se registran ejemplos en la actualidad, como es el caso con lo que dio por llamar la *ciencia proletaria*, que se inventaron ciertos soviéticos y que con tanto ardor han defendido algunos papanatas occidentales» (1978: 102; etzanak Krutwigena dira). Ez dakit inori begitandu ahal zaion “ciencia proletaria”-k eta “ciertos soviéticos”-ek oraintsuago bestelako ordainik har zezakeen; nik neuk ez daukat zeresanik “mendebaleko artaberoez”.

125. Cf. «Si los intelectuales, y especialmente los que se sitúan a la izquierda, quieren hacer una contribución positiva a la evolución de la sociedad, lo mejor que pueden hacer es clarificar las ideas predominantes y desmitificar los discursos dominantes, no añadir a estos sus propias mistificaciones. Un pensamiento no se convierte en “crítico” por el mero hecho de ponerse esa etiqueta, sino en virtud de su contenido» (Sokal & Bricmont 1999: 226-227). Bat nator beren ametsarekin ere: «Nuestras esperanzas, sin embargo, van en otra dirección, a saber: la aparición de una cultura intelectual racionalista pero no dogmática, con mentalidad científica pero no cientifista, amplia de miras pero no frívola, políticamente progresista pero no sectaria. Pero esto, por supuesto, es sólo una esperanza y, quizá, sólo un sueño» (229).

berri bat) bilatu eta aurkitzea; etorkizunean, ene ustez, euskal ikaskuntzen ikerketa testuinguru honetan bertan garatu beharko litzatekeelarik (12. orr.; etzana neurea).

Zer bada, hizkuntzalaritza historikoan ote da bakarrik, oso bestela agitzen delarik gure logikan edo fisikan? Ba ote jakintzarik gure artean —bertsolaritza eta ingeniariaritza edo kenduta, jakina— kanpoko kideak baino aitzinatuago, gutarrek besteena irakurri ez aditu ere egin behar ez dutelarik, urtero zein astero “Euskal Mundu Biltzarrak” egiteko prest garelarik?

Bat nator AM-ekin herri honek bere iragana sakon eta zehatz aztertzeko eskubidea duela dioenean; espero dut irakurlea ere ados izatea nirekin herri horrek ume bezala ez baizik eta pertsona larri gisa tratatua izateko eskubidea ere baduela aldarrikatzean.

Ulertzen dut, ongi ulertu ere, herri minorizatu eta zapaldu honetan herritar askok bere jatorriaren kontzientzia eta, horrenbestez, euskaldun sentitzeko autoestimazioa galdua duelarik, liburu hau sinistezin eta areago, gogaikarri gerta dakiokela norbaiti. Horrek ez nau asko kezkatzen. Oraindik ere nazio-kontzientzia dutela, herria aske eta soberano izan dadin borrokan dihardutenentzat egin dugu liburu hau. Gazteriarentzat, bereziki, bere kultura transmititzeko beste inolako azpiegiturarik ez duten herri indigena guztien esperantza nagusia gazteria baita (154).

Hori diosku AM-ek bere burua zuritzeko paternalismo eta chauvinismo benetan gogaikarria agertuaz. Pozik bera bere autoestiman liburu honen egiletasuna ere sartu ahal badu! Ez ote, ordea, inor euskaldun- eta are homo sapiens-duintasunagatik beragatik liburu arbuigarri gerta dakiokkeenik? Bat bai, bederen.

Ez dakigunean horrela argiro aitortzea¹²⁶ eta ez lilura funtsikabeak josten aritzea iruditzen zait ezagutza aitzinatze bide bakarra; nork daki inoiz edo behin hizkuntz historialari gaixoren batek —eta ugari omen ditugu gure artean (cf. Trask 1997: 69-70)— gure hizkuntzaren benetako iraganarekiko egarria asetzen lagun gaitzakeen? Nolanahi ere, bitartean AM-en liburu honek hizkuntzalaritza historikoaren oinarriak, metodoak eta helburuak ulertzen lagunduko ahal du... *malgré lui* bada ere.¹²⁷

126. Cf. «Historical linguists are understandably reluctant to confess ignorance in print; that's why I think it is important to show that saying “I don't know” is sometimes the only respectable position to take» (Thomason 1993: 490) eta ikus nire (eta bere) lanaren hasierako aipua.

127. Zergatik ez pentsa Thomasonek Greenbergezen esana AM-i ere egoki datorkiola: «I should emphasize that I am not claiming that all of Greenberg's hypotheses are sterile. Some of them, including some of the ones that are original with him, may turn out to be valid and fruitful. My point, rather, is that demonstrating their validity requires showing them to be useful in elucidating language history; and the proof of that pudding is in [linguistic] reconstruction» (1993: 495); parentesikoa neuk aldatu dut Thomasonen «comparative»-ren ordeez.

Bibliografia

- Agud, M., & Tovar, M., (1988-): *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia.
- Alonso, J., (1996): *Desciframiento de la lengua ibérico-tartésica*. Bartzelona: Fundación Tartesos.
- , s.a. (¿1997?): *Desciframiento de la lengua etrusca*. Toki ez argialetxeren izenik gabe.
- , (1998), *Traducción Nuevos Textos Ibéricos*. Argialetxearen izenik gabe: Madril-Granada.
- Anderson, J. M., (1977): *Aspectos estructurales del cambio lingüístico*, Madril.
- , (1988): *Ancient Languages of the Hispanic Peninsula*. Lanham, MD University Press of America.
- , (1993): "Iberian and Basque linguistic similarities" in Untermann & Villar (arg.), 487-498.
- , & Ch. Jones, (arg.), (1974): *Historical linguistics*. Nort-Holland, Amsterdam. 2 lib.
- Arnaiz, A. & J. Alonso, (1998): *El origen de los vascos y otros pueblos mediterráneos*. Madril: Ed. Complutense.
- Arndt, W., (1959): "The performance of glottochronology in Germanic", *Language* 35, 180-192.
- Austerlitz, R., (1990): "Typology in the service of internal reconstruction: Saxalin Nivx", in Lehmann (arg.), 17-34.
- Baehr, G., (1934): "El vasco y el camítico (E. Zylharz, *Zur angeblichen Verwandtschaft des Baskischen mit afrikanischen Sprachen-en iruzkina*)", *RIEV* 25, 240-244.
- Baldi, Ph., (1990): (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY.
- Banus y Aguirre, J. L., (1990): "La supervivencia de los vascuences várdulo y caristio en Guipúzcoa y en Vizcaya", *BAP* 46, 322-
- Barandiaran, J. M., (1934): *El hombre primitivo en el País Vasco*. Donostia.
- Bellwood, P., (1994): "An archaeologist's view of language macrofamily relationships", *Oceanic Linguistics* 33: 2, 391-406.
- Bender, M. L., (1969): "Chance CVC correspondences in unrelated languages", *Language* 45: 3, 519-531.
- Bengtson, J., (1991a): "Notes on Sino-Caucasian" in Shevoroshkin (arg.), 67-129.
- , (1991b): "Some Macro-Caucasian etymologies" in Shevoroshkin (arg.), 130-141.
- , (1991c): "Macro-Caucasian phonology" in Shevoroshkin (arg.), 142-161.
- , (1991d): "Macro-Caucasian: a hystorical linguistic hypothesis" in Shevoro-shkin (arg.), 162-170.
- , (1991e): "Some Sino-Caucasian etymologies" in Shevoroshkin (arg.), 172. or.
- , (1991f): "Macro-Caucasian again", *Mother Tongue* 13, 19-26.
- , (1992a): "The Dene-Caucasian Macrophyllum", in Shevoroshkin (arg.), 334-341.
- , (1992b): "Macro-Caucasian Phonology (revised version)", in Shevoroshkin (arg.), 342-352.
- , (1995): "Is Basque isolated?", *Dhumbadji!* 2, 2.
- , & M. Ruhlen, (1994): "Global etymologies" in Ruhlen (arg.), 277-336.
- Benveniste, É., (1954): "La classification des langues". Berrarg. in 1974, 99-117.
- , (1969): *Le vocabulaire des institutions indo-européennes*.
- , (1974): *Problemas de lingüística general*, Siglo XXI, Mexiko. Frantses jatorrizkoa 1966an.

- Berman, H., (1992): "A comment on the Yukok and Kalapuya data in Greenberg's *Language in the Americas*", *International Journal of American Linguistics* 58: 2, 230-233.
- Bertoldi, V., (1931): "Problèmes de substrat. Essai de méthodologie dans le domaine de la toponymie et du vocabulaire", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 32, 93-184.
- , (1937): "Contatti e conflitti di lingue nell'antico Mediterraneo" in *Festschrift Karl Jarberg*, Max Niemeyer, Halle, 137-169.
- Birnbaum, H., (1977): *Linguistic reconstruction: its potentials and limitations in new perspective*. Washington DC, Journal of Indo-European Studies.
- Blazek, V., (1991): "Basque and North Caucasian or Afroasiatic?", *Mother Tongue* 14.
- Blust, R. A., (1990): "Summary report: linguistic change and reconstruction methodology in the Austronesian language family" in Baldi (arg.), 133-154.
- , (1995): "An austronesianist looks at Sino-Austronesian" in Wang (arg.), 283-298.
- Bomhard, A. R., (1984): *Toward Proto-Nostratic: a new approach in the comparison of Proto-Indo-European and Proto-Afroasiatic*. Amsterdam, John Benjamins.
- , (1990): "A survey of the comparative phonology of the so-called "Nostratic" languages" in Baldi (arg.), 331-358.
- , (1991): "Lexical parallels between Proto-Indo-European and other languages" in L. Isebaert (arg.), *Studia etymologica indoeuropaea. Memoriae A. J. van Windekens (1915-1989) dicata*, Lovaina, 47-106.
- Boretzky, N., (1984): "The Indo-Europeanist model of sound change and genetic affinity and its application to exotic languages", *Diachronica* 1, 1-51.
- Bouda, Ch., (1950): "L'euskaro caucasique", *Homenaje a don Julio de Urquijo*, Donostia, 3, 207-232.
- Bright, W., (1984): "The classification of North American and Meso-American Indian languages", *American Indian linguistics and literature*. Berlin, Mouton de Gruyter, 3-30.
- Campanile, E., (1993): "Antigüedades indoeuropeas" in Ramat & Ramat (arg.), 27-56.
- Campbell, L., (1973): "Distant genetic relationship and the Maya-Chipaya hypothesis", *Anthropological Linguistics* 15, 113-135. Berrarg. aldizkari berean, 35 (1993), 66-89.
- , (1977): *Quichean linguistic prehistory*. Univ. of California Public. in Linguistics 81. Berkeley-Los Angeles.
- , (1985): "Areal linguistics and its implications for historical linguistic theory" in J. Fisiak (arg.), *Proceedings of the 6th International Conference of Historical Linguistics*. Amsterdam, Benjamins, 25-56.
- , (1986): "Comments [to Greenberg et alii]", *Current Anthropology* 27, 488.
- , (1988): "(Iruzkina) *Language in the Americas* by Joseph H. Greenberg", *Language* 64: 591-615.
- , (1990a): "The Mayan languages and linguistic change" in Baldi (arg.), 115-130.
- , (1990b): "The philological documentation of changes in Mayan languages" in J. Fisak (arg.), 87-105.
- , (1990c): "Syntactic reconstruction and Finno-Ugric", in H. Andersen & K. Koerner (arg.), *Historical linguistics 1987*. Amsterdam: John Benjamins, 51-94.
- , (1993): "On proposed universals of grammatical borrowing" in H. Aertsen & R. Jeffers (arg.), *Historical Linguistics 1989*. Amsterdam: John Benjamins, 91-108.
- , (1995): "The Quechumaran hypothesis and lessons for distant genetic comparison", *Diachronica* 12, 157-200.
